

## II. LIBURUKIA

OSPITALE PSIKIATRIKOETAKO  
BURU-GAI SOEN EGOERARI  
BURUZKO TXOSTENA

© ARARTEKO

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Estudios Gráficos ZURE, S.A.

Papel erreziklatua.

I.S.B.N.: 84-87122-34-5. Liburu Osoa.

I.S.B.N.: 84-87122-36-1. I Liburua.

L.G.: BI-1192-92

L.G.: BI-1547-92



II LIBURUKIA

EUSKO LEGBILTZARRARI  
TXOSTENA  
1991

**AURKIBIDEA**

I. ATALA. ARARTEKOAREN AURKEZPENA .....	13
II. ATALA. SARRERA .....	19
III. ATALA. OSPITALERATZE PSIKIATRIKOAREN SISTEMA .....	23
3.1. OSPITALERATZE PSIKIATRIKOA KOMUNITATE-PSIKIATRIAREN ESPARRUAN .....	26
3.1.1. Komunitate-Psikiatria kontzeptua .....	26
3.1.2. Komunitate-Psikiatriaren mugak .....	27
3.1.3. Hurbilpen sistemiko deritzagunaren garaia .....	28
3.2. EKIPOTERAPEUTIKOA KOMUNITATE-PSIKIATRIAN ETA DESBERDINKETA FUNTZIONALA .....	28
3.3. OSPITALERATZE PSIKIATRIKOA .....	30
3.3.1. Ospitale psikiatrikoa gaur egungo asistentzia psikiatrikoan .....	30
3.3.2. Inguru terapeutiko eraginkorren garapena .....	31
3.3.3. Ospitaleratzeko psikiatrikoa Estatuan eta Spainiako Erreforma Psikiatrikorako Ministrari Batzordearen txostena .....	31
IV. ATALA. OSPITALERATZE PSIKIATRIKOAREN SISTEMA EUSKAL AUTONOMI KOMUNITATEAN .....	35
4.1. DESKRIBAPENA .....	37
4.2. ASISTENTZIA PSIKIATRIKOA ETA BURU-OSASUNARI BURUZKO 1983KO PLANA ETA BERAU BETETZEA .....	41
V. ATALA. AZTERLAN HONEN BURUTZAPENEAN JARRAITUTAKO HELBURUA ETA METODOLOGIA .....	43
5.1. HELBURUA .....	45
5.2. METODOLOGIA .....	45

<b>VI. ATALA. ZENTROEN EGOERAREN DESKRIBAPENA .....</b>	<b>47</b>
6.1. BISITATUTAKO ZENTROETAN BARNERATUTAKOEN EGOERAREN DESKRIBAPENA .....	49
6.2. ARKITEKTURA ETA BARNE DISEINU ETA INSTALA- ZIOAK .....	52
6.2.1. Erizpide orokorrak .....	52
6.2.2. EAK-ko zentro psikiatrikoen egoera .....	53
6.2.3. Gomendio orokorrak .....	57
6.3. EZ-BORONDATEZKO BARNERATZEAK ETA GAITASUNIK EZA .....	58
<b>VII. ATALA. ASISTENTZIAREN ALDERDI KUALITATI- BOAK .....</b>	<b>63</b>
7.1. METODOA .....	65
7.2. TRESNAK .....	65
7.3. EMAITZAK .....	66
7.3.1. Giro terapeutikoa .....	66
7.3.2. Asistentzi-langileen lan poztasuna: «errearen» sindro- mea .....	68
7.3.3. Gaisoei ezarritako murrizketak .....	70
7.3.4. Erabiltzaileen poztasuna .....	71
<b>VIII. ATALA. ARAZO BEREZIAK .....</b>	<b>79</b>
8.1. PSIKOGERIATRIA .....	81
8.2. ADIMEN ATZERAPENA .....	82
8.3. DIAGNOSTIKO BIKOITZEKO GAISO TOXIKOMANOAK ....	82
8.4. BURU KOLPEAREN ONDORIOZ GAITASUNA KALTE- TZEN DUTEN SINDROME PSIKIATRIKOAK .....	83
8.5. LARRIALDI PSIKIATRIKOEN ARAZOA .....	83
8.6. OSPITALERATZE EZ-BORONDATEZKOAK .....	84
<b>IX. ATALA. ERREGIMEN JURIDIKOA .....</b>	<b>87</b>
9.1. SARRERA .....	89
9.2. OSASUN-PRESTAZIO PSIKIATRIKOAREN ESKUMEN-ES- PARRUA EUSKAL HERRIKO AUTONOMI KOMUNITA- TEAN .....	89
9.2.1. Estatua eta Euskal Herriko Autonomi Komunitatearen arteko eskumenen mugapena .....	89
9.2.2. Eskumenen mugapena Euskal Herriko Autonomi Ko- munitate barruan .....	91

9.2.3. Ondorioa: harrera psikiatrikoaren erantzukizuna Euskal Herriko Autonomi Komunitatean .....	92
9.3. BURU-OSASUNARI BURUZKO OINARRIZKO ARAUA: SANITATEAREN LEGE OROKORRAREN 20. ARTIKULUA .....	93
9.3.1. Legearen sorkuntzari buruzko aipamen laburra .....	93
9.3.2. Buru-osasunaren sendabideari buruzko aginduen edukina eta eragin eremua .....	94
9.3.3. Asistentzia sozialaren premiazko egitura eta disfuntzioak Euskal Herriko Autonomi Komunitatean .....	95
9.4. LEGERIAK GAISOEI AITORTZEN DIZKIEN ESKUBIDEEI BURUZKO AIPAMENA .....	96
9.4.1. Sanitatearen Lege Orokorraren 10 art. ....	96
9.4.2. Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 18ko 175/1989 Dekretua, Osakidetzaren Gaisoen eta Erabiltaileen Eskubide eta Betebeharren Gutuna onesteari buruzkoa ....	97
9.4.3. Gaiso psikiatrikoei egokitzea .....	97
9.5. BURU-GAISOEN BARNERAMENDUAREN ERREGIMEN JURIDIKOA .....	98
9.5.1. Barneramenduen gutxieneko bermeei buruzkoa, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren aipamen berezia eginetan .....	98
9.5.2. Buru-gaisoen barneramenduari egokigarri zaion legearia .....	107
9.5.3. Oharrak .....	118
<b>X. ATALA. ONDORIO OROKORRAK ETA GOMENDIOAK ..</b>	121
10.1. ONDORIO OROKORRAK .....	123
10.2. GOMENDIOAK .....	129
10.2.1. Gomendio mediko-antolamenduzkoak .....	129
10.2.2. Gomendio mediko-antolamenduzkoak .....	130
<b>ERANSKINAK</b>	
I. Osakidetzaren sarearen ospitaleetan gaiso psikiatrikoak onartzeako arauak .....	133
II. Eusko Jaurlaritzaren 1983ko «Adimen Osasun eta Asistentzia Psikiatrikorako Plana»ren helburuen ebaluazioa, EAKren Buru-Osasuneko Zerbitzuen Erreformarako Batzordearen eskutik ....	139
IIa. 1989ko azaroan egindako helburuen ebaluazioa .....	141
IIb. 1991ko urtarrilean egindako helburuen ebaluazioa .....	147
III. «Eskizofrenia-substantzien gehiegikeria» diagnostiko bikoitzaren aipamenik eza .....	151
IV. Buru kolpearen ondorioz gaitasuna kaltetzen duten sindrome psikiatrickoak .....	157

V. Larrialdi psikiatrikoak .....	161
VI. Barneratze psikiatriko ez-borondatezkoak .....	171
VII. Euskal Autonomi Komunitateko gaiso psikiatriko judizial eta gatazkatsuei arreta eskaintzeko zentroaren sorrera .....	177
<b>BIBLIOGRAFIA .....</b>	<b>181</b>

I. ATALA

## **ARARTEKOAREN AURKEZPENA**

*Omnia vincit amor*  
(Virgilio, *Eglogak*, X, 69)

Ararteko honek Eusko Legebiltzarrari aurkezten dion bigarren txosten monografiko honek, ale berezi gisa bideratuz, 1991. urtean ofiziozko ekin-tzaz burutu den liburukia osatzen du.

Beronekin, talde babesgabetuei buruz ekin genionari jarraipena ematen diogu, igaz Ertzaintzaren eta udalen atxiloketa egoitzak aztertu genituen bezala, Txosten arruntaren eranskin bezala Legebiltzarrari aurkeztu genionaren era berean zuzenduz.

Erakunde honetatik ohartzen naiz, herri Administraritzak premiazko diren laguntza eragingarriak sortarazi behar dituela, lagunkide eta bateratzai-le diren irizpideak jarraituz; horrez gainera, herritarrek elkarren arteko lan-kidetza tinkoa jarrai behar luketela iruditzen zait, etika eta moralaren alderditik begiraturik, gizarte oreka zuzena lortzeko. Maitasunak guztia gain-ditzen bait du, Virgiliok egloga sailez osatu zuen *Bukolikak* deritzan libu-ruan ongi zioenez.

Asmo horren bultzadaz, Arartekotza lanaren lehen urtean bisitatu nuen Santa María de las Nieves Ospitale Psikiatrikoa. Leku hartako egoera ikus-teak goibeltasun sakona eragin zidan eta zenbait gau lokartu ezinik. Egia esan, ni ez nengoen hainbeste desbabestasun ikustera ohitua. Orduantxe hartu nuen Autonomi Komunitate honetan ditugun ospitale psikiatrikoetan dauden gaisoen egoera zehatz-mehatz aztertzeko erabakia.

Bisitaldi hartan ohartu nintzan egoitzak ez zuela aukerako baldintzarik betetzen. Gainera, patologia oso desberdinezko gaisoak nahasirik nabari zi-ren, eskizofreniko eta paranoikoetatik hasi eta zahartzaroz buru-elbarrituak eta oligofrenikoetaraino. Gehientsuenei tristura, depresioa eta zorigaitza ze-rien. Alabaina, ontasuna nabari zen kasik denen artean, are gehiago, auke-rarik eskainiz gero, ahalmen neurriaren arabera laguntzeko borondatea era-kusten zuten. Hark ekarri zidan gogora, denbora joanaren oroitzapenetan, gaztaroan euskarara itzuli nuen Tomas Meaberren *Paraboletako «Ez dagoe-naren ereilea»*, non esaten zen: «Dohatsuak beren eroaldian baketsu ager-tzen diren haiiek!».

Ikerkuntza lan honekin lortu nahi izan dugun helburua, EAK-n harrera psikiatrikorako dauden ospitale eta gainerako etxeetan, zein publiko zein pribatu, Osakidetzarekin oheak kontzertaturik dituztenetan, gaisoen egoera aztertzuz, etxe horiek egiazko eritegi izatea nola betetzen duten edo zenbait-tan barneratuen sendakuntzarako terapeutika funtziaok noraino betetzen

dituzten. Azken batean, barneratuek dituzten eskubideen murrizte edo bor-txatzearen posibilitateetan nolako jokaerak erabiltzen diren ezagutzea eta era horiei zein neurritan eusten dien ala murriztasunezko hutsuneak nabari diren medikuntzaren aginduetan; egoera hau aztertu ondoren premiazko gomendioak bideratu nahi izan ditugu, psikiatrikoetan barneratutakoei behar bezalako tratamendua emateko, eta gainerako hiritarren antzera, beraiet dituzten eskubideak erabili ahal ditzaten.

Azterlana egin aurretiko ikerkuntzan, Ararteko naizen honek, zenbait profesionalen laguntzaz, gure Autonomi Komunitate honetan dauden hamika unitateak eta ospitale psikiatriko guztiak pertsonalki ikustatu ditut. Gaiso barneratuen eskubideak beteko badira ospitale eta beraien laguntza egituren egokitasuna, material zein osasun mailan, jendearekiko tratua eta harreman gizatsua, adeitsua eta ulerkorra izan behar duela.

Psikiatrikoetan gure gizarte barrunbearen zati bat ikusi ahal izan dugu: zahartzaroak eraginik buruz elbarrituak gurpil-aulkietan mugitu ezinik, oligofrenikoak ohiz zoro deritzagunekin nahastaturik... Hau ikusteak zalantzat sorta razi dit, komenigarri ote da gaiso barneratua era honetan talde-katurik egotea?, izan ere, psikiatrikian adituak diren fakultatiboek behin eta berriz adierazi eta gomendatu bait dute, erizpide zientifikoei jarraiki, patologia desberdinek osabide desberdintsua behar dutela.

Esan beharría dago, bi urte igaro ondoren, Santa María de las Nieves Ospitale Psikiatrikoa, zorionez, zertxobait hobetu dela, eta espero dezagun, eraikitzen ari diren eritegi berria prestatu ondoren, gaisoak duintasun handiagoz bereganatzeko moduan egotea. Hala eta guztiz ere, bihoakie nire erregua osasun publikoaren arduradunei, ospitalez kanpo gaisoak edukitzeko etxe edo ostateuz arreta handiagoa jar dezaten, Bilboko ostattu batean ikusi genuen lotsagarrikera berriz gerta ez dadin, bertan hogeitabost lagun ikusi bait genituen gizakiari ez dagozkion baldintzetan bizi izaten; utzikeria, noski. Bestalde ordea, Basurtoko Ospitalean Jado deritzan pabilioian, ustez buru-elbarrituaren ondorioz gaizkiletzat barneratuek, hilabeteak ematen dituzte bakardade osoan, laguntza egokirik gabe, lehendik sano dena ere, benetan gaisotzeko eran epaiaren zai. Zuzentasuna bete nahi gehiegikeria bi-hurtuz.

Nere eskerrik beroena luzatu nahi diet txosten hau lantza posible egin duten lagun eta erakunde guztiei, beraien lankidetzagatik: Osasun Sailburu den Inaki Azkuna jaunari, berak eta bere taldeak erakutsi duten jarrera onagatik, eritegien ikuskapena eta behar izan diren xehetasun eta galde guztiak erraztu bait dizkigute; Jose Guimon doktoreari, gure Erakunde honi alderdi mediku-psikiatrikoei buruz eman dizkion aholkuegatik; EHuko irakasle den Edorta Cobrerosi, alderdi juridikoetako aholkularitzagatik; OMIE (Osasun Mentalaren Ikerketarako Erakundea) psikiatria lantaldeari, bereziki Eduardo Sota eta Cesar San Juan doktoreei; bisitatu ditugun eritegietako arduradunei; eta azkenik, modu batera zein bestera parte hartu duten edo kontsulta bila hurbildu gatzaizkien guztiei, eta nola ez, nire lantaldeari.

Bukatzeko, esan dezadan, txosten honetako gomendioek behar bezalako eraginā izango duten ustetan, eta ospitale psikiatria arloan erabakiak hartzeko erantzukizuna dutenengan ondoriorik izango dutelakoan, opa dut, guztion artean gaiso barneratuak jasaten ari diren orbaina eta bazterkeria ezabatzerik izan dezagun, gaisoet garapen gizartiar aske eta betea izaten lagun diezaiegun, hiritar guztiona den talde-bizitzaren partaide eginez.

Gogozko barne aginduari jaramon eginez, jarrai diezaiogun eta errepi-ka dezagun Meaberekia: «Dohatsuak, eroaldiak hartu ondoren zindo ager-tzen diren haiiek!». *Omnia vincit amor.*

ARARTEKOA

Juan San Martin

II. ATALA

**SARRERA**

Ararteko Erakunde sortu eta araupetzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeak, irudi honi ematen dizkion ahalmenen aranean Euskal Administrazio publikoaren edozein zerbitzu edo egoitza ikuskatzeko edo ofizioz ikertzeko ahalmena dugu, horrela hiritarron legezko interesen defentsan irtenbiderik egokienak ezarri edo proposatu ahal izateko. Legeak ezartzen duenaren arabera, Arartekoak egindako ikerketen emaitzen berri emanez aparteko txosten bat luza dakioke, edozein unetan, Eusko Legebiltzarrari Arartekoaren beraren ekimenez.

Esku artean dugun dokumentu hau Ararteko Erakundeak EAK-ko ospitale psikiatrikoetan barneraturik dauden eskubideei eta egoerari buruz landu duen txostena da, bukaerako zatian ospitale psikiatrikoaren sisteman zenbait hobekuntza egiteko proposamenak, gomendio erara, jasotzen direlarik, honek gaisoen egoeran eragina izango duenaren itxaropenaz.

Txostena landu eta ikerketa burutzeko nahia ez da Erakundeari aurkeztutako kexu zehatzen ondorio izan, baizik eta Arartekoaren beraren ekimenez hartutako erabakiaren ondorio, beti ere, bere agintaldiaren urte bakoitzeko babes bereziaren premian dagoen jende multzo desberdin baten eskubideak eta egoera aztertzeko irizpideari jarraipena eman nahian, eta 1991n zehar, ospitale psikiatrikoetan barneraturik dauden gaisoei egokituz ziaie txanda.

Garrantzitsua da, lehenik eta behin, txostenaren helburua zein izan den zehaztea: Euskal Autonomi Komunitatean dauden barneratu psikiatrikoen bizimodu baldintzak eta erregimena ezagutzea, beraien eskubideei beharrezkoa ez den murrizketaren bat, osabide terapeutikoak eskatutakoetik at, egiten ote zaien ikustea, asistentzi-baldintza duina eskaintzen ote zaien ziuratzea, eta azkenik, barneratuen bizimodu baldintzak hobe ditzaketen sistemaren hobekuntzak proposatzea.

Beraz txostenaren helburuetatik kanpo geratuko da asistentzia psikiatrikoaren sistema bere osotasunean aztertzea. Ez dugu ospitaleaz kanpoko asistentzia psikiatriko eta ospitale sistema aztertuko, gure elkartearen egun dauden ospitale egitura psikiatrikoak abiapuntu harturik, eta zeresanik ez, ez gara ospitale bakoitzean aplikatzen diren praktika terapeutikoak eta eredu medikoa baloratzen hasiko.

Txostenean zehar argi geratzen da ezin direla mugak ezarri barneratuen bizimodu baldintza eta eskubideak, eta, ospitale psikiatrikoen egitura eta antolamenduaren artean, beraz, alderdi honen zenbait puntu ere aztertuko dira. Norbanakoaren askatasuna edo intimitatea bezalako eskubide funtsezkoak, ospitale sistemak dituen baldintza egokien menpe egongo dira. Ospitale batek baliabide pertsonal edo material egokiak ez baditu beharturik egongo da praktika murriztailegiak erabiltzera barneratutakoekin, osabide terapeutiko egoki batek justifikatuko lukeen mugetatik kanpo.

Txosten hau lantzerakoan baliagarri suertatu zaigu 1991ko abenduan kaleratu zen *Estudio y recomendaciones del Defensor del Pueblo sobre situación jurídica y asistencial del enfermo mental en España*.

Alabaina, bi txostenetan metodo desberdina erabili da. Estatu osoan dauden 179 unitate eta ospitale psikiatrikoak ikuskatzea zaila zenez, Defensor del Pueblo-k laginketa sistema erabili zuen (49 leku bisitatu zituen). Gure kasua ordea, bestelakoa da, gure eremuan dagoen zentro kopurua txikia-goa denez, lan xehekatzat har daitekeen lana burutu ahal izan dugu, izan ere, dauden zentro psikiatriko guzti-guztiak ikuskatu ahal izan ditugu, eta honez gain, barneratuen bizimodu erregimena, gure ustez, ukitzen duten alderdi guztiak ere aztertu ditugu; honi esker txostenaren ondorioak adierazi eta gomendioak egiterakoan zehaztasunez aritu gara.

Azterlan hau burutu ahal izateko, lehen ere adierazi dugun bezala, dauden zentro psikiatriko guztiak bisitatu ditugu zentroaren zuzendaritzak lagundurik. Aldi berean, zenbait inkesta egin zaie nola gaisoei hala asistentsi-langileei, eta beste inkesta bat egin zaie konfidentzialtasun osoz eta izen gabetasuna bermaturik, zentroan izandako gaisoei ere, jasotako tratuari buruzko eritzia eta poztasun maila ezagutzeko, eta guzti honekin oso garantzitsutzat jotzen dugun informazio ugari eskuratu dugu. Lan eskerga honek bidea eman digu txostenean aztertutako informazioaren kalitatea eta diberititatea hobetzeko.

Bereziki interesgarriak iruditu zaizkigun gaien inguruan, azterlan osagarriak eginerazi dizkiegu horretan adituak diren lagunei, eta guk, literalatsuna errespetatuz eranskin gisa gaineratu dizkiogu honako lan honi, hemen luzatu ditugun zenbait gomendio lan horietan bait dute oinarria.

Txostenean azterlan juridiko bat ere aurki daiteke, eskuduntza eta era-kunde arloan aplika daitekeen araudia aztertu ezezik barneratze unean eta barneramenduan zehar jarraitu behar diren irizpideak ere aztertzen dituena alegia. Gaisoen eskubideekiko begirunearekin zerikusirik duten zenbait ospitale praktika ere aztertu da, beti ere irizpide bat nagusitz, edozein murrizketak premia terapeutikoetan izan behar duela azken justifikazioa.

Azkenik, esan disziplina anitzeko lana dela honako hau, eta ezinbestez izan dela horrelakoa lanaren helburuaren korapilotasunagatik. Ararteko Erakundeak hainbat aholku eta lankidetza jaso du alderdi mediko-psikiatriko eta psikologikotik talde desberdinei esker, besteak beste, OMIE fundazio psikiatrikoari (Osasun Mentalaren Ikerketarako Erakunde), Euskal Herriko Unibertsitatearen Zuzenbide Fakultateko jurista kreditatu bati, eta beste zenbait profesionali esker, arkitektu, soziologo, e.a.

### **III. ATALA**

## **OSPITALERATZE PSIKIATRIKOAREN SISTEMA**

Azken azterketa epidemiologikoen arabera, buru-gaisotasunak uste baino ugariagoak dira. Munduko biztanleriaren % 11,5ak du, gutxi gora behera, osabide egokia beharko lukeen gaisotasun psikiatrikoren bat, portzen-taia hau % 15,4ekoa da toxikomaniak eta ezaguerazko gaisotasun larriak barne hartzen baditugu. Lagun guzti hauetatik oso gutxi dira psikiatren-gana hurbiltzen direnak, are gutxiago oraindik ospitale psikiatrikoan sendatzen dituztenak.

Buru-gaisotasunek orbaindurik jarraitzen dute gaur egun, garai batean gaisotasun infekzioso larriak, batik bat, sexu bidez kutsatutakoak zeuden bezala. Biztanleriak erakutsi ohi duen jarrera negatiboa, ez ahaztu gure asabentzat zoratasuna Jainkoagandik zetorrela, leku guztieta hedatzen da, bai zoroei osabidea eskaintzen dieten lekuetara zein beraien ardura hartzen duten profesionalengana. Ez da harritzekoa beraz, mende honetako kultur mugimendu abangoardista zenbaitek, surrealismotik hasi eta antipsikiatria-rainokoak, zoratasunaren aurka borrokatu nahi izatea mezularia hilez, hau da, ospitale psikiatrikoak eta psikiatrak deskreditatz. Komunitate-psikiatriak sustatu nahi zuen gaiso psikiatrikoen desinstituzionalizazio prozesuan ere aurreritzi ideologiko hauek zetzaten. Edozein modutan ere, mugimendu antipsikiatrikoak izan zuen, bai, merezimendurik, izan ere, arreta jarrerazi zigun ospitale psikiatrikoetako baliabideen egokitasun eskasean.

Gaurko ikuspegi historikotik ez dugu zalantzan jartzen asistentzi-dispositiboren bat edukitzearren premia, gaiso psikiatrikoek, denboraldi labur edo luzerako, borondatez (eta salbuespen gisa, nahitaez) barneratzea izan deza-ten. Ospitaleratzeak dakarren etiketamendua ahalik eta gehien murriztea da helburua, eta honez gain, barneratze ez-borondatezkoak ahal den neurrian saihestea, egonaldien luzera moztea eta zentroei programa espezifikoak es-kaintzea baliabide terapeutiko eraginkorrik izan daitezen eta ez gaisoentza-ko lojamendu soilak.

Ararteko Erakundeak dituen erantzukizunen artean daude, besteak beste, zerbitzu publikoak ebaluatzea eta hiritarren eskubideak defendatzea Administrazioaren balizko gehiegikerien aurrean. Ospitale psikiatrikoak maiz izan dira mundu osoan kritika iturri beraien funtzionamendua dela eta ez dela, horregatik justifikatua dago, gure ustez, gure elkarteko ospitaleen ihar-duera ebaluatu nahi izatea. Gaiso psikiatrikoak bestalde, gaitasun urrikoak dira beraien eskubideak defendatzeko, buru-gaisotasunen bat izateak gizarte mailan dakarkien ahalmen urritasunagatik. Bidezko da horregatik Ararteko Erakundeak hiritar gisa gaiso hauek dituzten eskubideak ahalik eta ongien errespetatuak izan daitezen zaintza.

Honako ikerlan honetan Euskal Herriko ospitale psikiatrikoen funtzio-namendu kuantitatiboa, eta batik bat kualitatiboa, dugu aztergai. Antzeman-go diren akatsak Administrazioak egoki konponduko dituelakoan gaude.

### **3.1. OSPITALERATZE PSIKIATRIKOA KOMUNITATE-PSIKIATRIA-REN ESPARRUAN**

#### **3.1.1. Komunitate-Psikiatria kontzeptua**

Mende honen bigarren zatian asistentzia psikiatrikoak eraldaketa prozesu bizkorra jasan du, asistentzi-zamaren grabitate gunea ospitale psikiatrikotik komunitatera igaro izatea delarik bere ezaugaririk nagusiena. Bigarren Mundu Gerraren ostean, eta sektorizazio politika deritzagunaren bitartez, Europako hiri handienetako batzuk hainbat sektoretan zititu zituzten, batzuk handiak besteak txikiak, bertako biztanleriak zituen ezaugarrien araberakoak, eta sektore bakoitzari talde terapeutiko bat esleitu zioten. Ospitale psikiatriko tradizionalek barneratze zentro gisa balio zezaketen, sektore bat edo bat baino gehiagotan, baina tratamenduaren garrantzia ospitaleaz kanpoko asistentzian ezarri zuten.

Estatu Batuetan 1963an Kennedy lehendakariak sinatu zuen lege batzen bitartez 150.000 milioi dolarretako diru-esleipena baimendu zuen, hiru urteko denboraldirako, komunitaterako buru-osasun zentroak (Community Mental Health Centers) sortuko zituen edozein programa burutzeko beharko zen kostuaren bi herenak finantzatu xedez. Honen osagarri gisa, psikofarmako berrien laguntzarekin, gaiso larrientzako zerbitzu psikiatriko berriak ezarri zituzten ospitale orokorretan, eta ospitaleratze partzialeko zentro berriak ere bai. Familiak eta komunitateak gaisoarengan izan dezaketen eragina hobeto ezagutzen hasi ziren, komunitatea sentsibilizazio handiagoa erakusten hasi zen buru-osasun arazoen inguruan, eta azkenik, garrantzi gutxiago eman gabe, administratzileen jarrera ere aipatu behar dugu, hauek gaiso psikiatrikoak ospitaleratzeak zekarren kostua etengabe goraka zihoa konturatutu bait ziren, eta gauza guzti hauen ondorioz gobernu ame-rikarra interes gero eta handiagoa erakusten hasi zen arazo psikiatrikoak konpontzeko.

Desberdintasun bat baino gehiago aipa daiteke komunitate-psikiatria eta psikiatria tradizionalaren artean. Alde batetik psikiatraren erantzukizuna dugu, honen zeregina komunitatean ez bait dago gaisoetara murritzurik biztanleria osasuntsura ere iristen bait da, beronen buru-osasuna hobetzen saiatuko da eta gaisotasuna hurbil egon daitekeela erakus dezakeen edozein okerragotze-seinale antzemango du. Hau egin ahal izateak eredu eta metodo desberdinak erabili beharra dakar psikiatra klinikoeak erabiltzen zituzten metodoen osagarri, izugarrizko garrantzia izango duelarik komunitatearen funtzionamenduari atxekirik dauden gertakariekin espezialistak duen sentsibilizazioak. Ikerkuntza gaia ugariak izango dira, esaterako, buru-gaisotasunen eragina eta gailentasuna handiagotu edo murrizten duten indarrak aztertzea; komunitatean dagoen buru nahaste maila gutxitzeko metodoak eta zuzeneko nahiz zeharkako ekintza teknikoak aztertzea; komunitatean dagoen buru nahaste indizea ezartzera zuzendutako azterlanak... Bestalde, komunitate-psikiatriaren iharduketa, prebentzioa deritzagun horretan ardatzen da (lehen, bigarren eta hirugarren prebentzioan), baita krisialdi uneko interbentzioan ere. Lehen prebentzioko programen helburua komunitatean agertzen diren nahaste emozionalak murriztea da gizartearen estresagarri edo kaltegarri izan daitezkeen egoeren aurka ekinez. Bigarren

prebentzioaren xeda nahaste psikikoen identifikazio goiztiarra da, osabide goiztiarra aplikatu ahal izateko. Hirugarren prebentzioko programek bi egi-teko dituzte, buru-gaisotasunek eragindako funtzionamenduzko akatsak murriztea batetik, eta pertsona horren gaitasuna handiagotzea bestetik, komunitateko bizitza ökopazional eta sozialean parte har dezan eta egokitu dadin.

Komunitate-psikiatriaren ezaugarri berezietako bat krisialdi uneko interbentzioa da. Krisian sar daitezkeen pertsonak goiz antzematen saiatzen da eta beraien inguruan krisialditik ateratzeko lagungarri suerta dakiween gizatalde bat jartzen. Honetarako gaitasun handiko profesionalak behar dira arrisku psikiatricko handia duten pertsonengana (esaterako, erditzean psikosis puerperal deritzaguna izan zuen emakume hauduna; haurtzaro korapilotsua izan duen haurra, anai-arreba jaiotzear dagoenean) zuzenki ihardun dezaten. Iharduketaren mamia gaisoaren gertuko lagun edo senideekin harremanetan jartzean datza, lagungarri suerta dakioken «sare soziala» era-tzeko. Profesional hauen eginkizunak interbentzionismoa eskatzen du, batzutan oldarkorra, eta maiz bera onartzeko arrazoi gutxi duten inguru sozialetan (beti ere harreman estua izanik, maisu, abokatu, agintearren ajen-te eta abarrekin).

### 3.1.2. Komunitate-psikiatriaren mugak

Komunitate-psikiatriaren eredu garatzen hasi zenean itxaropenen handia piztu zen jendearengan adimen arazoak konpontzeko aukera ikusi zuelako. Psikiatrek ere, komunitatearen eguneroko zereginean izan behar zuen zeregina gainbaloratu egiten zuten batzutan.

Asistentzi planak praktikan jartzeko orduan zailtasun latzak sortu ziren.

Alde batetik, ospitale psikiatrikoak ixteko politikarekin batera ez ziren eratu behar ziren ospitaleaz kanpoko dispositiboak; era honetan, alta jaso eta gero kaleratutako gaisoei ezin izan zitzaien maiz arretarik eskaini eta inoiz lojamendurik ere ez.

Zenbait psikiatrek bestalde, desegoki eriti zioten geografia soilari loturiko biztanle-sektoreak ezartzeari. Komunikabideen hobekuntza etengabeari esker gaisoei urrutiko ingurutan asistentzia bilatzea erosoa (eta konfidenzialago) egiten bait zitzaien. Kolbek zioenez, aukera zutenak ospedun era-kunde bila urruti joan ohi ziren osabide medikoa eskatuz, balio gutxiago eman ohi zaien bertako erakundeetara joan ordez. Gaiso batzuentzat gainera komenigarri da osabidea etxetik urruti jasotzea, aztarna paranoideak edo ezaugarri antisozialak dituztenentzat kasu. Beste zenbait, beraien konfidentziak publikoki kaleratuko ote diren beldur dira; batzuen batzuk udale-rriko zentrora laguntha eske joatea saihestu egiten dute gaisotasuna auzo-koek ezagutuko duten beldurrez; gainera, jakina da, edozein sektoretan benetako etxea urruti duen eta harremanak urrutikoak dituen jende asko bizi dela.

Azkenik, asistentziaren aurreneko lekuetan lanean hasi ziren langileek, gainezkatua ikusi zuten beraien burua erantzun egokia ezin emanik; honen ondorioz atsekabea eta nekea azaleratzen hasi ziren, «errearen» sindromea deritzaguna.

### **3.1.3. Hurbilpen sistemiko deritzagunaren garaia**

Komunitate-psikiatriaren ereduak zituen hutsuneak bete asmoz, Men-debaldeko herririk aurreratuenetan garatzen ari da egun Talbot-ek «hurbilpen sistemiko» deritzan eredu.

Bide honek, asistentzi-sistemak zerbitzu hornitzaleei, ospitaleei batez ere, eskaintzen ohi zien arreta baztertu beharra dakar, zerbitzuok betidanik interes handiena erakartzen zutenak izanik. Honen ordez, pertsonak lehen-tasunez ase behar dituen premia individualak badituela onartzen da, eta horregatik zerbitzuak nolabait lotu eta gaisoarentzat erabilgarri egin behar diera. Ondorioz, gaisoak sistema manipulatzeko aukera izan behar du, bere premiak asetzeko, sistema izan beharrean gaisoak manipulatzen dituena. Sistema idealak honako hauek behar ditu:

1. Bereizte garbia plangintza eta gauzatzearen artean.
2. Biztanleria espezifikoa batekiko erantzukizuna, zerbitzu guztien ardura administratiboa izango duen pertsona batekin.
3. Integrazio klinikoa gobernu mailarik txikienean.
4. Sistemako asistentzi-elementuen artean gaiso «bikainenak» bereganatzeko norgehiagoka deuseztatzea eta gaiso «ez-gogokoak» alde batera ez uztea.
5. Zerbitzu bikoizketak eta etenaldiak ezabatzea.
6. Komunikaziorako oztopoak ezabatzea.
7. Finantzaketarako mekanismo bakarra.

## **3.2. EKIPOTERAPEUTIKOA KOMUNITATE-PSIKIATRIAN ETA DESBERDINKETA FUNTZIONALA**

Komunitate-psikiatriaren elementurik desberdintzaileena talde lana da. Lanerako modu hau ez da, profesioarteko kidetasuna lortzeko modu bat, izan ere, makina bat zaitasun tekniko, baina batez ere, pertsonen artekoak eragin ohi ditu praktikan, horregatik modu hau lantzen duenarentzat oso bide aberasgarria bada ere, oso mingarría ere bada. Lanerako modu honen inguruan kritika ugari jaso dira langileei dakarkien pertsonen arteko zama emozionala dela eta, eta lortzen diren emaitza eztabaidagarriak direla eta.

Psikiatria nahitaez, eredu biologiko, psikologiko eta sozialen artean mugitu behar denez, kasu partikularra da disziplina anitzeko izaera duelako. Eedu biologikoa nagusi den lekutan, ospitale psikiatrikoetan kasu, ekipo terapeutikoek egitura goitik beherakoa da izan ohi dute eta homogeneo sammarrak izan ohi dira. Barne hartzen dituzte, medikuak, erizainak, laguntzaileak, eta proportzio askoz ere txikiagoan, psikologoak eta gizarte laguntzaileak, berauen zeregina oso gaizki definiturik egon ohi delarik. Ikerkuntza laborategietan era berean, medikuaren zuzendaritzapean normalki, oinarrizko zientzia medikotan lizentziatu edo doktore diren langileak egon ohi dira.

Eedu medikoa nagusi den zentroetan lortu nahi dena zera da: gaitasun tekniko zehatzen sustapenean kideen arteko koordinazio ezin hobea lortzea; hau lortu daiteke pertsonen arteko harremanak txarrak badira ere.

Buru-gaisotasunaren eredu psikologikosoziala nagusi den lanlekuetan (komunitate terapeutikoak, eguneko ospitaleak, modulu psikosozialak), ekipoa egitura horizontalagoa du eta mediku ez diren profesionalak (psikologoak, soziologoak, gizarte laguntzaileak) ugariak dira, ahalmen gehiago ere izan ohi dutelarik erabakiak hartzerakoan. Gaisoak izan zituen eta dituen harremanen ondorioz jasaten duen kalte psikologikoa zuzentzeako esperientzia emozionalak eskaintzen saiatzen da komunitatearen harrera psikiatrikorako sistema, gaisoaren inguruko irudi eta sistema erabakiorrak erabiliz horretarako. Ekipo terapeutiko hau, gaisoaren «alter familia» da, eta alda-ketarako ajente terapeutikorik garrantzitsuena da. Kasu honetan ekipoko kideren artean dagoen komunikazioa oinarrizko elementu terapeutikoa izango da. Komunitate ereduko orientazioa duten lekuetan aldaketa lortzeko tresnarik nagusiena ez da ezagutza tekniko espezializatua izaten, ekipoaren talde dinamika aldiz funtsezkoa izaten da.

Zerbitzu psikiatricko tradizional batek bi oinarritan ezartzen du bere antolamendua, batetik, gaiso psikiatrickoa eri eta itxaropenik gabe dagoenaren uste nabarmena edo ez hain nabarmena, eta bestetik, gaiso hori ekipo ahaltsu, sendo eta urrutiko baten premian dagoenaren ustea. Balizko kasu hauetan oinarritzen diren rol eta jarrerek, menpekotasunezko jokabide gaiztoak eragin ohi dituzte gaisoengan, eta gainera, gaisoen eta ekipoaren arteko harreman estua lortzeko oztopo izaten dira, harreman hau prozesu psikoterapeutikorako bidea izan bait daiteke. Beraz, jarrera hauetan antipsikoterapeutikoak direnez, psikoterapia nabarmendu nahian komunitateko zerbitzu psikiatrickoak ezarri nahi direnean lan eskerga egin behar izaten da jarrera eta zeregin psikiatricko tradizionalak aldatu ahal izateko.

Komunitate terapeutikoari eta ospitaleratze partzialari buruzko programen helburua, gaisoen gaitasun sozialak hobetzea izaten da neurri handi batean. Honek, gaisoek urte luzetan zehar hurbilpen terapeutiko tradizionalagoen ondorioz bereganatu dituzten rolak aldatu beharra dakar. Gaisoen autonomia handiagotu eta estresari aurre egiteko gaitasuna indartu nahi da. Gaiso, senide eta komunitate-sistemekiko ekintza mota honi Auerswaldek «hurbilpen ekologiko» izena jarri dio. Ekintza hau aurrera eramateko oinarrizko da «alter familia»tzat hartu dugun ekipo terapeutikoaren era-gina.

Ekipo terapeutikoko kideek, edozein zerbitzu psikiatrickok betetzen duen ohizko funtziotan lagundi behar dute.

Diagnostikoari dagokionez, psikiatrak ikuspegি mediko-psikiatrickoa emango du; gizarte laguntzaileak, familia-historiatik ateratako ikuspegি soziala, eta psikologo klinikoak, test psikologikoen bidez lortutako datuak.

Ikerkuntzan zein hezkuntzan, ekipoko kideak nahiko independenteki egiten dute lan.

Beste profesionalekiko kontsultak egiterakoan, psikologoak jorratu ohi dituen arazoak hauexek izaten dira, maila intelektualeko arazoak, garapenaren gorabeherak, gaitasun berezietai dauden akatsak, e.a.; arazo sozialak aldziz gizarte laguntzailearen aztergai izan ohi dira, eta arazo psikiatricko, mediko eta psikosomatikoak psikiatraren esku geratzen dira.

Komunitatearekiko harremanak, ekipoko kide desberdinien bitartez egiaztu ohi dira independenteki. Psikoterapia arloan, gizarte laguntzaileak arazorik nagusiena soziala den kasuetan iharduten du; psikologoak arazoa

hezkuntza edo ikaskuntza arlokoa denean; eta psikiatruk arazorik nagusie- na psikosomatikoa denean.

Administrazio arloa psikiatrari dagokio, beste profesionalei baino lehenago, eta prebentzio lanean ekipoko kide bakoitzak egoki deritzon iharduerari ekiten dio.

Ekipoaren profesio desberdinak kide bakoitzak, era desberdin bat- tean laguntzen du aipatu ditugun zereginetan. Baina hiru dira profesio bat- ten eta ez besteen erantzukizun espezifikoa eskatzen dutenak. Terapia ar- loa, psikiatren esku egoten da, sendatze lana medikuen zeregina izan delako tradizionalki. Ikerkuntza mailan psikologoa izan da beti buru, psikologoek duten heziketari esker horretan gaituak egoten bait dira. Komunitateko ha- rremanak, sistema sozialari dagozkio. Hala ere, komunitate-ereduaren ara- bera egituratutako ekipoetan kideen funtziu desberdintasun hau desagertu egiten da.

### 3.3. OSPITALERATZE PSIKIATRIKOA

#### 3.3.1. Ospitale psikiatrickoa gaur egungo asistentzia psikiatrickoan

Arestian ikusi ahal izan dugun bezala, asistentzia psikiatrickoak Mende- baldeko herrietai duen joera berri horren ezaugarririk funtsezkoeneko bat, ospitale psikiatrickoak tradizionalki bete ohi duen zeregin nagusiaren eral- daketa da. Gaiso psikiatrickoaren aurreneko barneratzea ospitale orokorre- tako unitate psikiatricoetan egiteko joera dago, halaber, ospitale psikiatrickoetan urtetan barneraturik egon diren gaiso asko komunitateratu egiten dira, hain zaila eta eztabaidatua izan den «desinstituzionalizazio» prozesuan- ren bitartez. Gaisotasun psikiatrico faktore biologikoek duten garrantzia- jabetu izateak, gaisoak ospitale orokorrean sartzeko joera indartu du, ospi- tale psikiatrickoaren aldean hornidura mediko hobea bait du. Gaisoa ospita- le orokorrean sartzear gainera beste abantail bat du gaisoarentzat, gaur egun behintzat, izan ere, gaisoaren inguruko orbaina txikiagoa da zentro psikiatricko tradizional batean sartzen badute baino.

Azkenik esan behar da, ospitale orokorretan izaten diren ospitalera- tzeak askoz ere laburragoak izaten direla (aste batetik lauera bitartekoak) ospitale psikiatricko tradizionaletan baino (3 hilabetetik 4era), arreta esku- duen gaisoa zein motatakoia den kontutan izan gabe. Herzek duela gutxi egin duen azterlan batek, gai honen inguruan erakutsi du, barneramendu laburragoak egin dituzten gaisoak hobeto bilakatzen direla gero, ospitalean egonaldi luzeak egin dituztenak baino.

Hala eta guztiz ere, lehen aipatu ditugun muga horiek ikusita, litekeen- na da ospitale psikiatrickoak, behar bezalako eraldaketa izan ondoren, zere- ginkiz izatea oraindik ere gerora begira. Zeregin hau, lehenik eta behin, gai- soari babeska ematea izango litzateke, gaisoak bizitzeko dituen borroka mekanismoak gero eta gatazkatsuagoa den mundu honi egokitzen ez badi- ra ikusiz gero. Zeregin hori terapeutikoa ere izan daiteke zenbait gaisoren- tzat, izan ere, gaiso batzuk osabide bat baino gehiago eta, «giro» berezi bat ere behar izaten bait dute, eta hauek zenbait zentro psikiatricko espezializa- tuetan baino ezin dira aurkitu, nekez ospitale orokor batean.

Alabaina, ospitale psikiatrikoak zaintza zeregina izateaz gain beste zeregin batzuk ere bete behar dituela argi dagoenez, ezinbesteko da ospitaleak zenbait aldaketa jasatea tresna terapeutiko izan dadin. Aldaketa hauek burutzea oso zeregin latza da, eta bat baino gehiago dira dagoeneko aldaketa honi ez ekitea gomendatzen dutenak aldaketaren aurrean sistemak duen erresistentziagatik, horregatik beraien ustez erakunde berriak sortu beharko lirateke.

### **3.3.2. Inguru terapeutiko eraginkorren garapena**

Gundersonek dioskun bezala, Mennigerek eta Bettelheimek proposatu zituzten tratamendu programetan ageri zen ospitale psikiatriko batzutan da goen beste sendabide baten definizioa: ingurua hain desitxuratua izan ez dadin nolabaiteko «egitura» ematea zentroari, aldi berean, gaisoak dituen jarrera desegokituen aldaketa ere bideratuko duena. Egitura hau lortzeko iharduerak oso desberdinak izan daitezke, esaterako, sari eta pribilegio hierarkizatuak antolatzea, «kontratu»ak erabiltzea, noiz edo noiz bilerak egitea, eta, gaisoen bizi eta higiene ohiturak arautzea. Inguru terapeutikoan eraginkorrik izan daitezkeen beste faktore batzuk ere aipagai izaten dira, batik bat, bere pasibilitatea gainditzeko gaisoari osabide planean «barneratzea» erraztu egin behar zaiola azpimarratzen denean, eta bere patologiaren adierazpena onartu edo «validatu» behar duela azpimarratzen denean, era honetan, gaisoak bere indibidualtasuna sendotuko duelako.

Zenbaiten ustez, Van Putten eta Way bezala, ospitale psikiatrikoetan inguru hauek sortzearen erabilgarritasuna eztabaidagarria bada ere, ondoaren etorri zen literatur lan eskergak balore terapeutikoa argi eta garbi era-kutsi digu. Dena dela, badirudi zenbait faktore bereziki erabilgarri direla gaiso batzurentzat, eta beste zenbait faktore, diagnostiko desberdina dutenentzat. Horregatik inguru terapeutikoen tipologia egin da, inguruak desberdintzeako tresna zehatzak erabiliz. Beraz, ospitale psikiatrikoek izango duten zeregina, burua ez-gaitua duten gaisoentzako egoitza izateaz gain, psikosi organiko larriak jota daudenentzako kasu, zailtasun edo minusbalia desberdinak gaisoei osabide desberdindua emateko programetan erabilgarri izaten diren inguru terapeutiko bereziak eskaintza izango dela esan dezakegu. Eta guzti hau, zeregina burutzeko zehazki behar den denboratik gorakoak izango ez diren barneramenduen bidez.

### **3.3.3. Ospitaleratze psikiatrikoa Estatuan, eta Espainiako Erreforma Psikiatrikorako Ministrari Batzordearen txostena**

Ospitale psikiatrikoek Spainian dauden ospitale guztietatik % 12a osatzen dute, eta ohe psikiatrikoetatik % 90a baino gehiago aurki daiteke bertan, guztira 25.661 ohe 1991n egindako estimazioari jarraiki (23.282 ohe, ospitale psikiatrikoetan, eta 2.379 ospitale orokoretako unitate psikiatrikoetan) Beraz 66 ohe ditugu 10.000 biztanleko, eta guztira hartuta oso irregularki daude geografia nazional zabalean banaturik.

Hala ere, ohe kopurua ez da ospitale asistentziaren ahalmena neurteko balio digun indizea. Beharrezkoa bait zaigu ohe hauen funtzionalitatea ere aipatzea.

Espainiako ospitale psikiatrikoek, egonaldi ertain eta luzetarako giza baliabide eta baliabide material urriak dituztenez, zentroan denboraldi laburrerako barneratzen diren gaisoetako bakar batzuri baino ezin die baliabide terapeutikoak eskaini, profesionalen ahaleginagatik ere. Gaisorik gehienak kronikoki daude ospitaleratuta, eta ospitaletik, euskarria eta egitura-maila al-dakorra baino ez dute jasotzen. Egitura hau laborterapia programen bitartez lortzen da gehien bat.

Espainiako ospitale askotan ahalegin handiak egin badira ere gaisoen desinstitucionalizazioa lortu eta komunitateratzeko, lortu diren emaitzak oso desberdinak izan dira eta okupatutako ohe kopuruaren jaitsiera ez da hain ikaragarria izan. Edonola ere, nabaria da ohe hauetako asko eperik gabe betetzen dituztela gaisotasun psikiatrikoak dituztenek baino minusbaliasun sozialak jasaten dituztenek. Honako gaiso hauek egoitzetan bizi izan beharko lukete gerora begira, behar bezala asistitu eta finantzatutako egoitzetan baina asistentzia sozialaren kargura eta ez sanitatearen kargura. Hala ere, psikosi funtzional kronikoak, mugako sindromeak eta neurosi larriak jota dauden gaisoen kopurua handia da, eta gaiso hauek luze egon beharko dira barneraturik iharduera terapeutiko eraginkorrik eskaintzeko behar bezala berregokituko diren ospitale psikiatriko hauetako ohetan. Hau horrela ez balitz, funtzi hauek betetzeko erakunde berriak sortu beharko lirateke.

Ospitale psikiatriko tradizionalak aldatzeko aukera ez da erraza, era-kunde hauek izaten dituzten antolamenduzko ezaugarriak ikusita.

Estatuan erreforma prozesua abiarazteko «Erreforma Psikiatrickorako Ministrari Batzordea» eratu zen 1983ko uztailaren 27ko Aginduz, batzorde hau izango zelarik buru-osasun eta asistentzia psikiatriko arloan plangintza, aholkularitza eta azterlana burutzeaz arduratuko zen organoa.

«Erreforma Psikiatrickorako Ministrari Batzordea»k Osasun eta Kontsumo ministrariari aurkeztu zion txostenak bi zati ditu, gero hark bere egingo zuen txostenak 1985eko apirilean eta Ministeritzaren iharduketen gida gisa proposatu. Lehenengo zatian, zenbait adierazpen orokor egiteaz gain, asistentzia psikiatrikoaren eredu integratua lortzeko erizpideak zehazten ditu, era berean, 36 printzipio agertzen dira erreforma plan gisa. Bigarren zatiak, Batzordeak Osasun eta Kontsumo ministrariari honen inguruan luzatu zizkion 29 proposamenak biltzen ditu. Dokumentuan zehar zenbait aipamen egiten dira ospitaleratzeari buruz, besteak beste, tresna tekniko garrantzitsua dela prozesu terapeutiko osoan (XVI. printzipioa), baina ez dela erabilteza komeni gaisoaren familia giroan eta inguru sozialean egin daitezkeen beste interbentzioen onura terapeutikoa baino handiagoa ez badakar (XVIII. printzipioa). Ospitaleratzearen iraupenari dagokionez, erizpide terapeutikoak agindutara egongo da (XIX. printzipioa). Barneratzeak gero eta mai-zago egin behar dira ospitale orokorretan (XXVIII. printzipioa), hala ere, ospitale psikiatrikoetan ere egin daiteke barneratzerik baldintza zehatz batzutan. Ospitale psikiatrikoetan dagoen ohe kopuruaren murrizpena ere aipatzen du dokumentuak (XXVIII. printzipioa) baina ez oheen desagerpen utopikoa. Bilakaera luzeko patologiak jota egonik, ospitale psikiatriko bat-ean barneratzea behar ez duten gaisoiei arreta eskaini eta errehabilitatzeko

baliabide humano nahiz tekniko egokiak dituzten egoitzen premia ere ai-  
patzen du dokumentuak.

«Txosten» hau, hala ere, Osasun eta Kontsumo Ministeritzaren konpro-  
misuz arreta eskainiko dion printzipio eta gomendio sorta bat baino ez da.  
Kritiko batek baino gehiagok uste du administrazioak «hipokrita» gisa ihar-  
dungo duela, aipaturikoak burutzeko behar diren baliabideak erabiltzeari  
uko eginez. Gobernuak kontrakoa frogatuko duelakoan gaude.

#### **IV. ATALA**

## **OSPITALERATZE PSIKIATRIKOAREN SISTEMA EAK-N**

#### **4.1. DESKRIBAPENA**

Euskal Autonomi Komunitatearen ospitaleratze psikiatrikoaren sistematikoa, hamaika zentro ditu guztira. Zentro hauetako zazpi, ospitale psikiatriko espezifikoak dira, eta beste laurak, ospitale orokorretan kokaturik dauden unitate psikiatrikoak, hala nola, Arabako Santiago Apostolen dagoena, Bizkaiko Basurto eta Galdakaoko ospitaletan daudenak, eta Donostiako Gipuzkoako Ospitalean dagoena.

Zentroen titulartasunari dagokionez, zortziren kasuan titulartasuna SVS-Osakidetzarena da, eta beste hiru kasutan, titulartasuna erakunde pribatuena da, hauetako bi izaera erlijiosodunak. Hala ere, titulartasun pribatuko hiru zentro hauetan Osakidetzak ospitale bakoitzaren ohe guztiak ditu kontzertaturik.

Euskal Autonomi Komunitatean ez dago zigor ospitale psikiatrikorik, beraz gaiso judizialak gure Autonomi Komunitatetik kanpoko zentroetan betetzen ari dira zigorra.

Ondoren lurralte historikoetan sailkaturik ageri dira zentro psikiatriko desberdinak:

#### **ARABA**

- Santiago Apostol Ospitale Orokorraren Unitate Psikiatrikoa (Gasteiz).
- Santa María de las Nieves Ospitale Psikiatrikoa (Gasteiz).

#### **BIZKAIA**

- Basurtoko Ospitale Orokorraren Unitate Psikiatrikoa (Bilbao).
- Galdakaoko Ospitale Orokorraren Unitate Psikiatrikoa.
- Bermeoko Ospitale Psikiatrikoa.
- Zaldibarko Ospitale Psikiatrikoa.
- Zamudioko Ospitale Psikiatrikoa.

#### **GIPUZKOA**

- Gipuzkoako Ospitale Orokorraren Unitate Psikiatrikoa (Donostia).
- Aita Menni Ospitale Psikiatrikoa (Arrasate emakumezkoena).

– Hermanos de San Juan de Dios Sendategi Psikiatrickoa (Arrasate gi-zonezkoena).

– Usurbil Sendategia.

Ospitale psikiatricko bakoitzaren ezaugarriak xehekatuago ezagutu as-moz, zenbait datu adieraziko ditugu ondoren, esaterako, ohe kopurua (egonaldi labur, ertain edo luzerakoak diren), langile kopurua eta zentroaren ti-tulartasuna.

### **SANTIAGO APOSTOL OSPITALE OROKORRAREN ZERBITZU PSI-KIATRIKOKO OSPITALERATZE LABURREKO UNITATEA**

Ohe kop.: 32; egonaldi laburrekoak: 32 (larriak 20 eta toxikomanoak 12).

Sarrera kop./urte: 638.

Langile kop.: 32.

Titulartasuna: Osakidetzak.

### **SANTA MARIA DE LAS NIEVES OSPITALE PSIKIATRIKOA**

Ohe kop.: 288; egonaldi luzekoak: 268 (psikogeriatria 88); egonaldi er-tainekoak: 20.

Sarrera kop./urte: 339.

Langile kop.: 294.

Titulartasuna: Osakidetzak.

### **BASURTOKO OSPITALE OROKORRAREN ZERBITZU PSIKIATRI-KOKO OSPITALERATZE LABURREKO UNITATEA**

Ohe kop.: 32, Egonaldi laburrekoak: 32; zigor etxeko ohe kop.: alda-garia (gehienez 6).

Sarrera kop./urte: 426 (gehi 198, 48 ordutik beherakoak).

Langile kop.: 35.

Titulartasuna: Osakidetzak.

### **GALDAKAOKO OSPITALE OROKORRAREN ZERBITZU PSIKIATRI-KOKO OSPITALERATZE LABURREKO UNITATEA**

Ohe kop.: 37; egonaldi laburrekoak: 37 (larriak 30, toxikomanoak 7).

Sarrera kop./urte: 443.

Langile kop.: 40.

Titulartasuna: Osakidetzak.

## **BERMEOKO OSPITALE PSIKIATRIKOA**

Ohe kop.: 227; egonaldi luzekoak: 203; egonaldi ertainekoak: 24.  
Sarrera kop./urte: 54.  
Langile kop.: 212.  
Titulartasuna: Osakidetzak.

## **ZALDIBARKO OSPITALE PSIKIATRIKOA**

Ohe kop.: 218; egonaldi luzekoak: 186; egonaldi ertainekoak: 6; ego-naldi laburrekoak: 26.  
Sarrera kop./urte: 384 (350+34).  
Langile kop.: 192.  
Titulartasuna: Osakidetzak.

## **ZAMUDIOKO OSPITALE PSIKIATRIKOA**

Ohe kop.: 159; egonaldi ertainekoak: 48; egonaldi laburrekoak: 111.  
Sarrera kop./urte: 1.053 (962+91).  
Langile kop.: 195.  
Titulartasuna: Osakidetzak.

## **GIPUZKOAKO OSPITALE OROKORREKO UNITATE PSIKIATRIKOA**

Ohe kop.: 65; egonaldi laburrekoak: 54.  
Sarrera kop./urte: 875.  
Langile kop.: 53.  
Titulartasuna: Osakidetzak.

## **AITA MENNI OSPITALE PSIKIATRIKOA**

Ohe kop.: 499; egonaldi luzekoak: 469 (psikogeriatría 120); egonaldi ertainekoak: 30.  
Sarrera kop./urte: 43.  
Langile kop.: 145.  
Titulartasuna: Hermanas Hospitalarias del Sagrado Corazon Kongregazioak.

## **HERMANOS DE SAN JUAN DE DIOS SENDATEGI PSIKIATRIKOA**

Ohe kop.: 366; egonaldi luzekoak: 336; egonaldi ertainekoak: 30.  
Sarrera kop./urte: 86.

Langile kop.: 140.

Titularitasuna: Hermanos de San Juan de Dios Ordenak.

## USURBILGO SENDATEGIA

Ohe kop.: 54; egonaldi ertainekoak: 54.

Sarrera kop./urte: 64.

Langile kop.: 40.

Titularitasuna: Usurbilgo Sendategia, SAk.

Euskal Autonomi Komunitatea lau osasun areatan dago banaturik asistentzi-eginkizunetarako, honen arabera hiritar bakoitzari, bizi den areari dagozkion zerbitzu eta egitura psikiatrikoetan egindo zaio harrera. Gipuzkoa eta Araban, area hauek bat datozeren herrialde historikoaren mugakin. Bizkaian aldiz, bi area daude eta adimen osasuneko lau distrito, ondoren ikus daitekeen bezala:

Distritoak	Larrialdiak	Egon.labur	Egon.ertain eta errehab.
Ibar ezker. Bilbo A (Ibar ezker., Deusto, San Inazio)	Basurto Basurto	Zamudio Basurto	Zamudio Bermeo
Bilbo B (Ibar eskum.)	Basurto	Zaldibar	Zaldibar
Uribe Barnekaldea	Basurto Galdakao	Zamudio Galdakao	Zamudio Bermeo

Ospitale sistema publikoak, Osakidetzarekin oheak kontzertaturik dituzten zentro pribatuak barne, 1977 ohe zituen eskaintzeko moduan 1990eko abenduaren 31n, ohe psikiatrikoen orotariko eskaintza 1994 ohetakoa zelarik. Beraz ospitale pribatuak eskaintza hutsaren hurrengotzat jo daiteke, % 2koa bait da.

Zentro pribatu kontzertatuek 919 ohe dituzte guztira, eta Osakidetzaren ospitale zentroek 1.058 ohe. Honek zera esan nahi du, Osakidetzak, zuzenki edo zeharka, dituen 1.977 ohetatik % 46a kontzertu erregimenean dagoen titularitasun pribatukoa dela. Horrela beraz, ospitale psikiatriko pribatuak kualitatiboki ugariak ez badira ere, ohe kopuruari dagokionez ugariak direla esan behar da, izan ere, Aita Menni ospitale psikiatrikoak 499 ohe bait ditu eta San Juan de Dios ospitale psikiatrikoak 366, berauek izañik ohe kopuruari dagokionez Euskal Autonomi Komunitatean dauden ospitalerik handienak.

Ohe bakoitzeko okupazio indizea % 96,4ekoa da, portzena hau % 100ekotzat har daitekeelarik. 1.000 biztanleko dagoen barneratze indizea % 0,9koa da, oso kantitate txikia da hau.

Ondoren lurralte historikoaren arabera banatu ditugun hainbat datu era-kutsiko ditugu (EUSTAT iturri), ospitale psikiatrikoen sistema zehatzago deskribatzeko baliagarri izan daitezkeenak. Aipagarria da langilego indizerik txikiena eta okupatutako ohe bakoitzeko kostu-indizerik txikiena ematen den

herrialdean, ospitaleratze zerbitzu hau, Osakidetzarekin kontzertu erregimenean dauden titulartasun pribatuko zentroek eskaintzen dutela.

	EAK	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
<b>Okupatutako ohe bakoitzeko langilegoa:</b>				
Guztira	0,7	0,9	1,1	0,3
Osasun langil.	0,5	0,6	0,7	0,2
Ez osasun	0,2	0,3	0,4	0,1
Errotazio indizea: (sarrera kop./ohe kop.)	1	1,1	2	0,3
Okupatutako ohe bakoitzeko batez besteko kostua:	2.975	4.717	4.364	1.489
Langilego kostua/orotariko kostua:	73	79	82	50

Terapia psikiatrikoaren zatitxo bat baino ez da ospitale zentroetan egiten. Gero eta garrantzi handiagoa dute eta indar handiagoa ematen zaie ospitalez kanpoko zerbitzuei, hala nola, anbulategi, buru-osasun zentro, eguneko zentro, egoitza lagunduei eta abar. Horregatik, ospitaletako ohe kopuruaren eskaintza, partzialki aldagarria da komunitateko edo ospitalez kanpoko zerbitzu psikiatrikoek eskaintzen duten kopuruaren eta kalitatearen arabera, esan nahi bait da, ospitale psikiatrikoetan, buru-osasuna eta osabide medikoa kontuan harturik, premiazko duten gaisoak baino ez direla sartuko, eta osabide hori jasotzeko nahitaezko denboran baino ez direla bertan egongo.

Ospitale psikiatrikoetan ohe eskaintza oso handia izateak, premia edo behar txikiagoa eragiten du ospitalez kanpoko zerbitzu psikiatrikoak sortzea, eta hauek kasu askotan oso komenigarriak dira ikuspuntu terapeutikotik.

#### 4.2. ASISTENTZIA PSIKIATRIKO ETA BURU-OSASUNARI BURUZKO 1983KO PLANA, ETA BERAU BETETZEA

Euskal Kontseilu Nagusiaren Osasun Sailak, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko aldundiekin adostasunean, aipatu herrialde hauetan zeuden baliabide asistentzi-psikiatrikoei eta berauen berregiturapenari buruzko azterlana egiteko erabakia hartzuen 1978ko abenduan, aipatu azterlana honako psikiatrek osatutako ekipoari eginerazi ziolarik: Arabatik Arzamendi doktoreak, Gipuzkoatik Cristobal doktoreak eta Bizkaitik Guimon doktoreak, ekipo buru Ajuriaguerra doktorea zelarik. Azterlan hau egitea premiazko zela ikusi zen, foru aldundiek, psikiatria arloan diru inbertsio handiak egin behar zituztela plazaratu zenean eta biztanleriak zituen premien eta asistentzi-baliabideen informazio egokirik ezagutzen ez zela ikusi zutenean, izan ere, honek zaildu egingo bait zuen aipatu baliabideak behar den moduan erabiltea, eta inbertsioak egin ondorengo emaitzak ebaluatu ahal izatea.

1983an orotariko txostenetan argitaratu zen, Osasun Sailak bere egin zuena, eta bertan zenbait helburu aipatzen ziren, epe laburrera batzuk eta epe ertainera beste batzuk, baina denak honako gai hauen ingurukoak:

asistentzi-egituraren eskualdeketa lortzea; adimen osasunaren dispositiboak osasun sisteman barneratzea; asistentzi-programa espezifikoak lantza eta abiaraztea; ikerkuntza eta irakaskuntza garatzea, etab...

Plana nola bete zen jakiteko eta buru-osasunean jarraitutako politika orokorra eztabaideatu ahal izateko, Euskal Autonomi Komunitatearen Buru-Osasuneko Zerbitzuen Erreformarako Batzordea eratu zen, aholkularitza izaeraarekin, Osasun eta Kontsumo Sailaren 1987ko urriaren 1eko Aginduz (abuztuaren 8ko EHAA, 189 zk.).

Euskal Autonomi Komunitatearen Buru-Osasuneko Zerbitzuen Erreformarako Batzordeak, helburu hauek zein neurritan bete ziren ebaluatu zuen 1989ko azaroan (2A eranskina) eta 1992ko urtarilean (2B eranskina).

1989an zehar zenbait buru-osasun zentro, eguneko ospitale eta unitate psikiatriko sortu ziren herri desberdinako ospitale orokorretan. Birmoldatzen ari ziren zenbait ospitale psikiatriko eta bi basetxe sortu ziren toxikomoen errehabilitaziorako. Erakunde desberdinen menpe zeuden anbulategiak eta ospitale zerbitzuak integratua egin ziren, nahiz eta Uribe-Kosta Kontsortzioa eta Komunitateanzenbaiten ekimenez sortuz joan ziren modulu psikosozialak oraindik integratzeko egin. DAK zenaren zerbitzuak Osakidetzan integratza lortu zen. Baino, ez zen tailer babesturik sortu, ez zi-tzaia egonaldi luzeko gaisoak zerbitzu sozialen sarean integratzaeari ekin, eta ez ziren psikogeriatría programak martxan jarri izan. Asistentzia eta larrialdi zerbitzuen arteko koordinazioa kaskarra izaten jarraitzen zuen, eta Araban beste inon ez zen kronikoen errehabilitazioarekin hasi.

1992rako garaturik zegoen anbulategietako kontsulta sarea. Zaldibar eta Bermeoko ospitale psikiatrikoetako egonaldi labur eta ertainen unitateak mistoak ziren. INSALUDeko baliabide iraunkorrik Osakidetzan integratu zitzuten, honekin buru-osasunaren integrazioa ia erabatekoa izango zelarik, 1990etik aurrera ia modulu psikosozial guztiak eta Uribe-Kosta Kontsortzioa integratuz joan bait ziren. Ordurako eratuta zeuden distritoko batzordeak osasun eskualde guztiak eta ezarrik zeuden ospitale zerbitzuetako eta buru-osasun zentroetako buruzagitzak, bai eta eskualdeetako zuzendaritza kolegiatura ere. Gaiso kronikoak zerbitzu sozialen sarean integratu gabe jarraitzen dute eta oligofrenikoentzako zerbitzu espezifikoak desberdindu gabe jarraitzen dute. Gaiso larrientzako arretaren arazorik nagusienek, larrialdi psikiatrikoetan jarraitzen dute. Egonaldi laburrak dituen zaitasunak ia erabat konponduta daude baina zaitasunekin jarraitzen dute egonaldi luzeek. Gaiso judizialen arazoa konpondu gabe jarraitzen du. Galdakaoko Ospitalean Toxikomanien Unitatea sortuz gerotzik gaiso mota hauen desintoxicazio prozesuan asistentziak hobera egin badu ere, arazoak daude oraindik ere toxikomoen larriadietan eta osabide luzeko programetan, eta batik bat, diagnostiko bikoitza duten gaisoekin. Bestalde, arazo zehatzak daude garezurreko traumatismoaren ondorioz jokabide nahastua duten gaisoei arreta eskaintzeko.

Orohar hartuta, aipatu planak proposatzen zituen helburuak uste baino polikiago bete dira, hala ere, nahikoa ona izan da ikuspuntu kuantitatibotik begira.

V. ATALA

**AZTERLAN HONEN  
BURUTZAPENEAN  
JARRAITUTAKO HELBURUAK  
ETA METODOLOGIA**

## **5.1. HELBURUAK**

Arartekoak, babes berezia behar duen talde baten eskubideak aztertu asmo ditu azterlan honen bidez, Euskal Autonomi Komunitateko zentro psikiatrikoetan dauden buru-gaisoena, alegia. Horretarako, ondoko helburu zehatzet osatuak dauden hainbat alderdi aztertza proposatu zen:

1. Euskal Autonomi Komunitateko ospitaleratze zentro psikiatriko bakoitzean dauden gaiso psikiatrikoen egoeraren azterketa, euren eskubide eta askatasunarekiko errespetu maila kontuan hartuz.
2. Euskal Autonomi Komunitateko ospitale-asistentzia psikiatrikoaren sistemaren ebaluaketa.
3. Euskal Autonomi Komunitateko ospitaleetan dagoen asistentzia psikiatrikoaren alderdi kualitatiboen azterlana: arkitektura, giro terapeutikoa, gaisoei ezartzen zaizkien murriketak, errehabilitazio programak, asistentzi-langileen lan poztasuna eta asistentzi-sistemaren erabiltzaileen poztasuna.
4. Arazo berezien analisia: larrialdi psikiatrikoak, Psikogeriatria, buru kolpearen ondorioz arazo psikiatrikoak dituzten gaisoak eta diagnostiko bikoitzeko gaiso toxikomanoak.
5. Arautegiaren analisi juridikoa, eta Euskal Autonomi Komunitateko ospitaleetako buru-gaisoei nola aplikatzen zaien.

## **5.2. METODOLOGIA**

Arestian azaldu diren helburuak betetzeko, buru-osasunaren sisteman errelitate psikiatrikoari buruzko azterlan enpirikoa egin da. Subjektibismoak eta ikuspegi partzialak ekiditearren, iturri desberdinako informazioa jaso da: Osakidetzako eta aztertu den zentro bakoitzeko arduradunena (zuzendari medikoa, zuzendari gerentea, eritegiko zuzendaria, langileen ordezkarriak, e.a.), eta halaber bertako asistentzi-langileena, eta bertan dauden eta alta emanda dauden gaisoena. Informazio guzti hau Arartekoak eta disiplina anitzeko ekipo batek —batipat jurista, pedagogo eta psikologo sozialez osatua— zentro bakoitzean in situ egindako behaketa batekin burutu da.

Informazio hau erregistratzeko, tresna sorta bat erabili da; hauetako batzuk ospitaletan erabiliak izan dira eta baliagarritasun frogatua eta fida-

garritasun estatistikoa dute. Beste tresna batzuk gai honetan adituak diren zenbaitek burutu dituzte espreski azterlan honetarako. Honako hauek dira:

— Azpiegitura eta legeari buruzko galde sorta. Arartekoaren zerbitzu juridikoek azterlan honetarako ad hoc egina da, eta zentroko arduradunei egindako bisiteten aplikatu zitzaien. Jasotzen zen informazioaren barruan gaitasun-gabetze, tutela eta inspekzio judiziala sartzen ziren batetik, eta arkitektura, segurtasun neurriak eta bertako gaisoen bizimodua, bestetik.

— Asistentzi-langileen lan poztasunari buruzko galde sorta. E. Sota doktoreak egina da azterlan honetarako, eta asistentzi-langileen lan poztasun maila neurten du. Zentro bakoitzeko asistentzi-langileei izenik eman beharrik gabe aplikatu zaie.

— Salako giroari buruzko galde sorta. M. Sunger doktoreak egina da eta sala psikiatrikoetako giroaren hainbat alderdi neurten ditu. Bertako gaisoei eta asistentzi-langileei aplikatu zaie.

— Murrizketen galde sorta. Bertako gaiso psikiatrikoei ezartzen zaizkien murritzeta desberdinak neurten ditu. Ordutegiak, askatasuna, baimendu eta debekatzen zaizkien eguneroko iharduerak e.a. azertzen ditu. Zentro bakoitzeko eritegiko arduradunak erantzun die galderai, bera bait da gaisoek bizi duten eguneroko errealtitatea hobekien ezagutzen duena.

— Gaiso izandakoena eritzia. Antzoko zenbait azterlanetan era biliak izan diren inkestak, Euskal Autonomi Komunitateko ospitale ratze zentro psikiatrikoetatik azken hilabete hauetan alta emanda zeuden gaisoen helbideetara bidali ziren. Lortu den informazioak, gaiso izandakoena edo euren familiartekoena eritzia jasotzen du ospitalearen hainbat arlori eta eskaini zitzaien arretari buruz.

Aipatu tresnak bete zirenean, berauen prozesamendu eta analisiari ekin zitzaison; ikerketaren fase hau G.O.C. (Gestio-Organitzazio-Comunicazio) enpresak burutu zuen. Datuen esplotaziorako erabili zen estatistika deskriptiboa izan zen batipat, eta beronen emaitzak azterlan honetan azalduko dira estatuko beste ospitale psikiatrikoetan jaso diren datuekin konparatzu.

Azkenik, egin diren ikuskapen psikiatrikoen bidez lortutako datu eta argibideetan oinarriturik, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakasle titularra den Edorta Cobreros irakasleak txosten bat prestatu zuen lejeri arautemaileaz eta beronen aplikazio praktikoaz buru-gaisoen kasan. Txosten juridikoa landu baino lehen eta baita ondoren ere, hainbat bilera burutu ziren, Ararteko Erakundearen Lege Aholkularitzak parte hartu eta koordinaturik; beroietan, lortutako informazioa elkartrukatzeaz gain, beste zenbait gai ere jorratu ziren, eta azkenik, txosten honi erantsi zaizkion lege-antolamenduzko konklusioak zehaztu ziren.

VI. ATALA

**ZENTROEN EGOERAREN  
DESKRIBAPENA**

## **6.1. BISITATUTAKO ZENTROETAN BARNERATUTAKOEN EGOE-RAREN DESKRIBAPENA.**

Buru-gaisotasunen tratamenduan batzuetan hartu behar izaten diren neurriak eragin terapeutiko positiboa izan dezaketenak baina gaiso psikiatrickoen askatasuna, intimitatea eta beste zenbait oinarrizko eskubide murritzen dituztenak izaten dira. Sendakuntza portzentaia baxua duten gaisotasunez ari garenez, askatasun indibiduala murritzen duten neurri horien eraginkortasuna, egokitasuna eta mugak ezbaian jartzea komeni da.

Egindako ikusketan barneratu ospitale-bizimodu zein den ezagutu nahi izan dugu, ospitale psikiatriko bakoitzak zer ihardunbide daraman, eta ihardunbide horiek gaur egungo mediku eta hiritarren pentsamoldeak onar garri erizten dionetik kango irtetzen ote diren bilatu.

Barneratu psikiatrickoen bizitza-erritmoa, beste edozein ospitaletan bezala, oso baldintzapeturik dagokie, egonaldi luzeko zentroetan batez ere, janorduei; hori da, behintzat, gaisoen ikuspegি subjektiboa.

Zentro psikiatriko bateko egun arrunt bat goizeko zortziak aldera gaisoak jaikitzen direnean hasten da. Bederatzietan gosariak zerbitzen dira, eta ondoren geratzen den goizpartea terapia okupazionalean eta eskulan-terapian edo paseiatzen ematen dute gaisoek.

Ordubatean zerbitzen da eguneko otordu nagusia, eta arratsaldeko lau t'erdietan askaria zerbitzen den arte areto amankomunetan biltzen dira indarrak, telebista ikusten gehien-gehienetan.

Horren ondoren hainbat denbora izaten da bisitentzat. Bisitarik izaten ez duten gaisoak, eta berauek dira gehiengoa, paseiatu egiten dute edo gela amankomunetan geratzen dira beste barneratu batzuekin batera.

Iluntzeko 7etan edo 8etan zerbitzen dira afariak eta ondoren gaisoek telebista-gela eta areto amankomunetan egon ahal izaten dute gaueko 12ak arte, une horretan logeletara abiatu eta oheratu behar izaten dutelarik.

Zentrorki gehienetan debekaturik dago egunez logeletan geratzea, eta gainera norbere garbitasuna egitera behartzen dituzte beren kabuz egiten ez badute.

Janordu hauetan ikusten dena da goizeko 9etatik arratsaldeko 7etara edo 8etara bitartean, hau da, 11 edo 12 ordutan, lau otordu zerbitzen direla, gainontzeko 13 edo 14 ordutan bat bakarra ere zerbitzen ez den bitartean. Janorduen banaketa hori, agian egokiena ez dena, otordu garaiek zentroko langileen txandekin bat etorri beharrak eragindakoa da.

Barneratuaren bizitza-arauen deskripzio honi zenbait zehaztapen egin behar zaio larrien ospitaleak edo egonaldi erdikoak eta luzekoak diren kon-tutan hartuta. Azken zentro hauetan sarri askotan gaisoak denborarekin es-

timuloak eta ekimena galtzen ditu eta ospitaleko ohikerian murgiltzen da barneratuen arteko apatiari bide emanez.

Ihardunbide murritzaleei dagokienez, esango dugu indar-atorrak arrotz bihurturik direla eta ez direla inongo ospitale psikiatrikotan erabiltzen. Horren ordez segurtasun edo euskarritarako uhalak erabiltzen dira, normalean iman-sistema batez ixten direnak izaki erraz aska daitezkeenak eta asaldaturik dagoen gaisoa momentuz ohean mugigabetzeko balio dutenak.

Krisialdiak dituzten gaisoentzat badira zentro gehienetan segurtasun gelak, propio horretarako diseinatuak batzuetan eta beste kasu batzuetan gutxi edo asko egokitutako gela indibidualak izaten dira. Denek behar-beharreko altzariak besterik ez izatea dute ezaugarri, eta kasuren batzuetan telebista zirkuito itxia ere badute erizaindegitik gaisoari etengabe errepara dakoileen moduan.

Ez da egiaztatu ospitale psikiatrikoetan tratu txarrengatik denuntziarik dagoenik, kasu bakan bat ezik, zeinaren espedientea, bidezko ikerketaren ondoren, largetsi egin bait zen.

Inongo ospitale barrutan ardo edo edari alkoholezkorik saltzea edo kontsumitzea ez dago libre, San Juan de Dios ospitalean ezik, non gaiso jakin batzuei baso bat ardo zerbitzen bait zaie kafetegian askari garaian. Sarriagotan gertatzen dena, ordea, zera da: zenbait gaisok edari alkoholezkoak hartzen dituela inguruko herrietara egiten dituzten irtenaldieta. Pasadizo gisara esango dugu behin harrapatu eta eragotzi izan dela zentro psikiatrikoaren barruan izkutuko alkohol salmenta kasu bat.

Ez da uzten kanpotik janaririk sartzen, Zaldibargo kasua salbuespen bada ere. Are gehiago, ahaleginak ere egiten dira familiartekoek euren bisiteten gaisoiei janaririk ekar ez diezaieten.

Erretzeko ohiturari dagokionean, erizpide bateraturik ez den arren, jarrera baimenkorragoa izaten da, nahiz eta gehienetan barneratuen geletan erretzea debekaturik egon.

Adierazpen sexualik ez da baimentzen jendaurrean inongo kasutan, nahiz eta pribatuan praktika heterosexualak nahiz homosexualak ematen direla jakin.

Gaisoek, preskripzio fakultatiboak kontrakorik ez diola, telefonoa era-biltzeko askatasuna dute, eta gainera, zentro askotan, badute telefono publikoa.

Familiartekoek libre dute bisitak egitea horretarako ordutegiaren barruan, arratsaldez gehienetan, eta kasu batzuetan bakarrik mugatzen dira medikuaren aginduz, murriketa gehiago delarik larrien pabilioietan, lojikoa den bezala.

Alderdi garrantzitsu bat objektu baliotsu eta diruaren zaintza eta era-bileraren erregimenarena da. Objektu baliotsuak pabiloiko erizaindegian entregatzen dira eta bertan geratzen dira gordeta, normalean xede horretarako bestetarako ez dagoen segurtasun-kutxa batean, edo zenbaitetan ospitaleko segurtasun-kutxan bertan.

Galdakaoko Ospitale Orokorean soilik ematen zaio gaisoari gordailuarren ziurtagiri bat, eta, kasuren batean, Aita Menni Ospitale Psikiatrikoan bezala, anotazio bat egiten da errolda-liburu berezi batean. Iruditzen zaigu objektu baliotsuen gordailuagatik ziurtagiri bat egiteko ohitura zentro guztietaera zabaldu behar litzatekeela gaisoarentzako gardentasun eta garantziaren mesedetan, gaisoek ez badute ere horren kezkarik inon agertu.

Larrien ospitaletan dirua gordetzeko jarraitzen den ihardunbidea orohar ospitaleko segurtasun-kutxan bertan gordetzekoa izaten da, kontutan izanik barneratuen egonaldia oso laburra izaten dela. Gainontzeko zentroetan kasu batzuetan ospitalearen jabetesuneko kontu korronte amankomun batean sartzen da, eta beste batzuetan barneratu bakoitzak bere kontu korrонtea izaten du, bai kasu batean eta bai bestean laguntzaile sozialek eta erizainek kudeatzen dutelarik. Kontutan izan behar da gaiso askok eta askok gutxieneko sarreren garantiarako subsidioa edo bestelako pentsioren bat jasotzen duela eta, osasun zerbitzua dohainikoa izaki, kontsumorik edo gasturik apena egiten dutelako, urteen buruan kapital txiki bat osatzera iristen direla.

Basurtoko Ospitalera egindako bisitan Jado Pabilioian dagoen «presondegi unitatea» deritzaiona ere ikusi zen, arazo psikiatrikoak dituzten prebentzioko presoak juizioa egiten zaien arte, eta batzuetan baita kondena betetzen dutenak ere, giltzaperatuta daudena.

Presondegi unitatea osatzen duen eremua, ez oso handia, pabilioiaren beste zatitik isolaturik dago korridorea eteten duen segurtasun ate baten bidez. Sei gela ditu presoak giltzaperatzeko, hiru korridorearen alde banatan, eta beste gela bat, funtzionari poliziek zaintza-lanerako erabiltzen duten erdiguneko espazio batez gainera.

Gelek ate blindatuak dituzte, eta leihoeak burdinezko barroteak eta aurrez-aurreko eraikina paisaitzat. 15 m inguruko gela hauetan pasatzen dituzte egunak gaiso presoek ezertara irten ezin direla, eta paseiatzeko edo soinketa egiteko patiorik ez dutela. Isolamendu osoko egoeran daude, familiartekekin bakarrik izan bait ditzakete harremanak bisitan datozienean.

Behin-behineko egoera honetan igarotzen dituzte zenbait hilabete, harik eta autoak instruitzen direnean juizioa egin eta epaia ematen den arte. Hain zuzen, bisita egunean, Arartekoak zortzi hilabete gelatik irten gabe zeramatzen preso bat aurkitu zuen eta egoera berean lau hilabete zeramatzen beste bat.

Ikuspegi terapeutiko batetik egoera hori egokia ez baino, kaltetarakoa da. Isolamenduak okerragotu egiten dio gaisotasuna eta egoera psikikoa txartzen joatean, gero eta medikamentu dosi handiagoa behar izatera iristen da.

Gaisoaren eskubideen eta duintasunaren ikuspegitik, iruditzen zaigu eskubide horiek ez direla behar bezala garantizatzen. Buru-gaisotasun bat duela eta, prebentzioko presoari sendabide egoki bat izateko eskubidea ukatu bakarrik ez, baizik eta kartzelako erregimenean zigor bat betetzearekin parekatuko litzatekeen isolamendua ezartzen zaio gainera, eta hori guztia Euskal Osasun Zerbitzua-Osakidetzarena den Ospitale Orokorr batean gertatzen da, nahiz eta Zerbitzu Psikiatrikoaren Buruzagitzak eta Ospitaleko Zuzendaritzak behin eta berriz egoera hori salatu duten.

Donostiako Arantzazuko Ama María Ospitalera egindako bisitan «presondegi eremu» bat bazegoela konprobatu genuen presoentzat izendatutako bi gelarekin. Bisita egunean geletako batean ustez gaitz kutsakor bat zeukan bat zegoen, —geroago halakorik ez zela egiaztatu zen—, eta leihoeak barroterik ez zeukanez, gaisoa eskumuturretatik oheari loturik zegoen ihes egin ahal izan ez zezan.

Bi kasuetan Arartekoak gertakari hauek jakinerazi zizkien lurrarde entzutegietako presidenteei eta fiskal-buruei, gobernu-poliziarekin batera pre-

soen zaintzaren arduradun diren aldetik, eta eskatu zien egin zitzatela behar diren gestioak honelako egoerarik berriz gerta ez dadin.

Estudioaren xeda Osakidetzarenak diren edo Osakidetzak kontzertatuak dituen ospitale psikiatrikoetan barneratuen bizi-baldintzen egoera ezagutzea izanagatik, egin ziren, hala ere, zenbait bisita ospitalez kanpoko beste zerbitzu psikiatriko batzuetara, batipat efektu terapeutiko eta medikoetarako ospitale psikiatrikoen menpekotasuna zutenetara.

Ostatu batera egindako bisitan, ostatu horrekin Osakidetzak 21 ohe kontzertaturik bait zituen gaiso psikiatrikoentzat, ikusi ahal izan zen gaiso horiek egoera material lotsagarri eta infrahumanoetan bizi zirela.

Hitzarmena indarrean egon zen urteetan, gaisoak solairu batetik bestera lekutuak izan ziren, azkenean, batere osasun kondiziorik betetzen ez zuen ez bizigarritasunik zuen goiko solairuan bukatu zutelarik. Gela batzuetan argi-indarrak ez zuen funtzionatzen eta gaisoak negu partean asteak eta asteak eman zituzten ilunpetan ilunabarretik egunsentiraino. Beste batzuetan bi lagumentzako gelan hiru ohe ere bazeudenez, gelaren alde batetik bestera joateko ia-ia ohe gainetik zegoen pasatu beharra. Gela batzuetako ateei atalak falta zitzaizkien, edo armairuei ateak, eta gainera gela batean kanpoalderako leihoak ez zuen kristalik eta esparadrapoz erantsitako periodiko-paperez «estalia» zegoen, bertatik kanpoko haize hotza sartzen zela.

Errealitate onartezin honen aurrean, Arartekoak urgentziaz gai horren berri eman zien Osasun Sailburuari eta buru-osasun eta Osakidetza saileko arduradunei.

Osakidetzaren erantzuna luzarogabe heldu zen, eta hilabeteren buruan, ostalaritza zentroarekiko kontzertuaren mugaegunean, ez zen kontzertua luzatu eta gaisoak asistentzia psikiatriko sareko ospitalez kanpoko beste zerbitzu batzuetara eraman ziren.

## 6.2. ARKITEKTURA, BARNE DISEINU ETA INSTALAZIOAK

### 6.2.1. Erizpide orokorrak

Ospitale psikiatrikoetako arkitektura eta barne-diseinua duten helbruak eta xedeak baldintzapetzen ditu: buru-gaisoak zaindu eta tratamendu psikiatrikoa izateko moduko giro egokian hartzeak.

Egiaztatuta dago gaisoaren tratamendu psikiatrikoaren prozesuan ingurune fisikoak eta espazioak garantzi handia dutela. Are gehiago, diseinu desegokiaren eta egitura arkitektonikoaren gabeziengandik ondorioz sortzen dira edo larriagotzen dira zenbait arazo, direla antolamenduari dagozkionak edo klinikoak.

Horrela, nortasunik gabeko gelek edo espazio amankomunen zehazgabetasunak eta bizitasunik ezak ez die gaisoei laguntzen ez gogorik pizten sendabiderako egoki zaien jokabidea jarraitzen. Sarritan ez dute norberarentzako espaziorik eta taldean biltzera edo jende gehiegirekin erlazionatzea beharturik daude. Edo beste batzuetan eraikinaren elementu materialek beraiek, pinturaren koloreak, gainazalen akaberaren egiturak edo espazioen formak sensazio nortasungabetzaile, urrun, desatsegina eta sendabiderako desegokia sortzen laguntzen dute.

Oso garrantzitsua da barneratuei naturarekin kontaktua izateko aukera emango dien ingurune natural edo jardinarekiko bat izatea. Baita iharduera fisikoak egin ahal izateko, ibiltzeo kasu, kanpoan eta barruan, gure klimak dituen ezaugarriengatik, lekuak edukitzea ere. Zahar eroen kasuan ikusita dago soinketa gehiago egiteko aukerak on egiten diela ezagutza, komunikazio eta erlaxazio mailan.

Fatxaden egitura eta antolamenduari dagokionean, araubide gisara, arrazoi estetikoak ez dira jarri behar egitura eta elementuen erabilgarritasun eta funtzionaltasunaren gainetik.

Egitura alda-errazak eta espazio polibalenteak, aurrerantzean egin litezen keen aldaketa eta birrantonlaketak baldintzapetuko ez dituztenak sortzen saiatu behar da. Premia izanez gero ospitaleratze eremua erraz handitzeko aukera emango duten barne espazioak diseinatu behar dira.

Eraikinaren egituraren ezaugarrietan oso kontutan hartu beharrekoak dira alderdi funtzionalak, hala nola suteen prebentzioa (materiale erregaitzak, beroa erresistitzen dutenak, isolagarriak, su-oztopabide diren atea, detekzio sistemak...), gaisoen segurtasuna, psikomotrizitatearen disfuntzioengatik autolesioak eta erorketak ekidinez (gau orduetan tokitzeko argiak, baranda euskarria korridorean zehar, barra euskarriak eta gainazal labain-gaitzak bainugela eta lababoetan, dutxa-aska kentzea ...).

Barne diseinuak, berriz, eremu bakoitzeko kolektiboa izan behar du kontutan. Hala, psikogeriatriako gaisoentzat diseinatutako proiektua baliteke gaiso eskizofrekikoentzat onena ez izatea eta hauentzakoa, berriz, kaltegarria gerta dakiene desordena depresiboak dituzten gaisoentzat.

## 6.2.2. Euskal Autonomi Komunitateko zentro psikiatrikoen egoera

Egindako bisitetan arreta berezia eskaintzen zitzaien ospitale-eraikinei beraiei, kontserbazio egoerari, barrengo banaketa eta diseinuari, segurtasun neurriei, e.a., lehen aipatutako ikuspegitik, hau da, ospitale zerbitzu psikiatriko egoki batek gaisoei asistentzi-kondizio duinak eta osabide terapeutikoa bultzatuko dutenak eskaini behar dizkiela kontuan izanik.

Euskal Autonomi Komunitateko ospitale psikiatrikoek arkitektura, egitura, ingurune eta baita kontserbazio aldetik begiratuta, ezaugarri aski heterogeneoak erakusten dituzte, eta hori dela eta, azalpena errazteagatik, ezaugarrien antzekotasunaren arabera multzokatuko ditugu honako sailkapen honen bidez:

1. Ospitale orokorretako unitate psikiatrikoak.
2. Ospitale psikiatriko espezifikoak.

### 1. Ospitale orokorretako unitate psikiatrikoak

Badira unitate psikiatrikoak honako ospitale orokorretako Zerbitzu Psikiatrikoetan: Santiago Apostolukoan Araban, Basurto eta Galdakaokoan Bizkaian eta Gipuzkoakoan lurralte berean.

Egonaldi laburreko sarrera psikiatrikoentzako unitateek erakusten dituzten ezaugarri arkitektonikoak eta kontserbaziozkoak dauden ospitale orokorreko beste unitate guztien antzekoak dira, eta ondorioz, eraikin eta instalazioen kalitatea Autonomi Elkartean diren gainerako ospitaletako osasun zerbitzuekin pareka daiteke.

Unitate hauetako ohe kopurua txikia da eta Basurtoko eta Santiago Apostoleko 32etatik Gipuzkoako Ospitaleko 65en artean dabil, Galdakaoko 37ak tartean direla. Zifra horien barne daude toxikomanoen sendabiderako destinatutako hamabi ohe Santiago Apostol Ospitalekoak eta zazpi Galda kaoko Ospitalekoak.

Unitate hauek larrialdiak eta batipat larrialdietatik datozen gaiso larriak atenditzen dituze. Egonaldiak bataz beste 11 egunetik 23ra bitartean irauten duenez, horrek gaiso asko mugitzeko aukera ematen du.

Unitate psikiatrikoek ospitale orokor osorako diren sukalde, ikustegi, e.a. zerbitzu erabiltzen dituztelarik, egitura simpleagoa dute eta alderdi terapeutikoak gaina hartzen dio ostalaritzarenari. Sarritan gaisoek paseiatu edo soinketa egin ahal izateko espazio irekien falta dute, baina nolanahi ere gabezia hori erlatibizatu beharra dago unitate psikiatrikoko egonaldiak irauten duen denbora laburra kontutan hartuz gero.

Arrazoi berauengatik, ohe kopurua txikia denez eta zerbitzu orokorrak ospitale orokorrarekin amankomunean dituenez, tamaina txikiko eraikin edo espazioak dira, eskala irudigarriagokoak, espazio eta gelen banaketak gaisoari orientazio eta identifikazio arazorik sortzen ez diola.

Galdakao eta Santiago Apostoleko unitate psikiatrikoak berriak dira, 1987 eta 1984koak hurrenez hurren, eta, beraz, oso kontserbazio egoera onean daude, eta ospitale eraikinaren bigarren eta zazpigarren solairuan kokatuak, hurrenez hurren.

Aitzitik, Basurtoko (Escuza pabiloia) eta Gipuzkoako Ospitale Orokorreko unitate pasikiatrikoak eraikin independenteetan daude, eta horien kontserbazio egoera ere oso ona da, izan ere, duela gutxi goitik beheraino berrituak izan bait dira.

Den-denek dute larrialdietarako argia eta aparatu elektrogenoa. Argitasuna orohar ona da eta argi natural asko aprobetxa daiteke. Basurtoko Ospitale Orokorrrean aire giroturik ez egoteak, segurtasun leihoa irekitzera behartzen du, udan batez ere, eta horrek barneratuei ihesbidea errazteko arriskua suposatzen du.

Unitate psikiatriko guztietan dago gela bat lan terapian iharduteko, barneratuek aisia dutenean sarrera libre dutelarik. Orohar ez dira batere erakargarriak eta eskaintzen diren eskulanak gutxi dira, eta ondorioz gutxi erabiltzen dira. Gipuzkoako Ospitale Orokorreko unitate psikiatrikoa aipa daiteke bisitatuen artean osatuena bezala. Iharduera horiek sustatu behar liratekeela iradokitzen da, terapeutikarako gomendagarriak direlako eta, gainera, gaisoari egonaldia atseginagoa egiten laguntzen diotelako.

Eraikuntzan erabilitako materialek eta dekorazioa egokiak dira, nahiz eta kasuren batean koloreak monotonoegiak gertatu.

Gehienetan badaude gela eta espazioen erabilera adierazteko behar diren seinaleak. Honetan Santiago Apostolua unitate psikiatrikoa nabarmen-tzen da bisitatutako guztien artean seinalizazio onena duena bezala.

Suteen aurkako neurriak egokitzat jo daitezke. Unitate guztiek dituzte estintoreak eta ur-mahukak, eta zenbaitek ke detekttagailuak gela guztietan,

sua oztopatzeko atea edo materiale erregaitzak. Gipuzkoa eta Galdakaoko unitate psikiatrikoetan sute kasuan ebakuaziorako eskailerak badituzte, Santiago Apostoleko unitateak ez dauka horrelako eskailerarik, bai, ordea, bi eskailerabide igogailu banarekin, eta azkenik, Basurtokoaren behesolairuan altuera bat baino ez denez, ez da beharrezkoa, eta lehen solairuan badago eskailer, baina ez osotoro erabilgarria.

Unitate guztiak dituzte segurtasun neurriak lesioak eta autolesioak eragozteko. Hala, leihoa eta kristalak bereziak dira, eta Galdaka eta Santiago Apostoluan, solairuaren altueragatik, leihoa muga jakin bateraino irekitzen direla daude. Atal honetan aipatu beharrekoak lirateke Galdakaoko unitatean diren segurtasun neurri bereziak.

Unitate psikiatriko hauetan dagokion lurralte historikoko larrialdi psikiatrikoak ere zaintzen dira, honetan nabarmenzen delarik Basurtoko Ospitalea, ospitale guztirako larrialdi eremu amankomunean bi «boxes» bait daude larrialdi psikiatrikoetarako, ospitale guztikoekin partaidetzan bada ere.

## 2. Ospitale psikiatriko espezifikoak

Arkitektura eta kontserbazioa ikuspegitzat hartuta, ospitale psikitrikoak, batzuk eraikiberrieta sailka genitzake, hala nola Zamudioko (1968ko da, egonaldi ertaineko pabiloia kenduta, 1987an inauguratua berau), Arrasateko Aita Menni (1984ko, bertan zen psikiatriko zaharra botata gero eraikia), eta eraikuntza aski zaharragoa dutenetan gainontzekoak. Hauetatik, Bermeoko Ospitalea, Arrasateko San Juan de Dios eta Zaldibarkoa lehen balneario izandako eraikuntzak dira, aurreko mendearen azkenaldekoak eta oraingoaren hasierakoak, orain ospitale psikiatriko bihurtuta; Usurbilgo Sendategia egurrezko egitura duen XVII. mendeko baseria da.

Eraikin hauen kontserbazio egoerak errealtitate ezberdinak azaltzen ditu eraikuntza-dataren kariaz. Aita Menni eta Zamudioko psikiatrikoak, eraikiberriak direnez, kontserbazio egoera onean daude, hobean lehenengo bi-garrena baino, nahiz eta Zamudioko larrien pabiloia ageri dituen kanpo-kaldean erdoildurak lehoetan eta akatsak fatxadan, 1968an inauguratu zenetik ez delako berriz ukitu. Aitzitik, egonaldi ertainetako pabiloia, 1988ean inauguratua, oso kontserbazio egoera onean dago.

Santa Agedako (Arrasaten) Aita Menni emakumeentzako Ospitale Psikiatrikoa da Euskal Autonomi Komunitate osoan ohe kopuru handiena duena, guztira 500 ohe dituelarik, eta bere lehen fasean 1984ean inauguratu zen eta bigarren fasean 1988an. Hau da Autonomi Komunitate osoan kondizio onenetan dagoena arkitektura eta kontserbazio aldetik eta ziurrenera Estatu guztiko modernoenetariko bat izango da.

Bermeoko Ospitale Psikiatrikoak birmoldaketa sakona jasan du, nahiz eta oraindik Izaro pabiloia berritu faltan eta zerbitzu orokorretako pabiloia birmoldaketa lanetan egon. Aipatzeko da osasun Administrazioak egindako ahalegina egitura eta instalazioak egoera tamalgarrian zituen psikiatrikoa eguneratzeko. Eraikin hori itsasotik hurbil egoteak fatxada eta kanpo-kaldeko instalazioen zaharkitzea azkarragotzen du.

Zaldibarko Ospitale Psikiatrikoak 1990ean inauguratutako larrien pabiloi bat du, Zamudioko egonaldi ertainerakoaren bizkia, eta kontserbazio

egoera onean, beraz. Gainerako pabilioiak aldez soilik daude berrituak, nahiz eta egun burutzen ari diren kronikoen bigarren solairua birmoldatzeko lanak. Hala eta guztiz ere, gainerako eremuak eraberritzeari ekitea beharrakoa da, bigarren mailako errehabilitazio unitatea bereziki, kontserbazio egoera nahiko txarrean egonik, gaisoentzako asistentzi-kondizio egokien falta bait dago. Horregatik, Osakidetzaren aldetik berehalako ekintzaren premia handiena duen eraikin psikiatriko da.

Santa Agedako (Arrasaten) San Juan de Dios gizonezkoentzako Ospitale Psikiatrikoak oso itxura interesgarria eta antigualekoa du kanpokaldetik. Murugain mendiaren oinean dago kokatua eta jardin politak ditu, eraikuntza dataren kariaz. Jakingarria da hemengo pabilioietako batean, lehen balneario izandakoan, eraiki zuela Gobernuko Presidentea izandako Canovas del Castillo Angiolillo anarkista italiarrak. Baino barrukaldeari, ondo zainduta dagoen arren, ageri zaizkio denboraren igaragaiteak ekarritako an-deamendu seinaleak; hori dela eta, eraberritzeko ekintza sakon bat komeni litzateke. Horretaz gainera, ohe kopuru handiena duen psikiatrikoa denez gelako, gelan oheak gutxitxa aholkatzen da gaisoen intimitatearen eta asistentziaren kalitatearen mesederako. Inmaculadaren eta San Rafaelen pabilioietako zenbait solairu dira ekintza bizkorrenaren premia dutenak. Une hauetan San Juan de Diosen ordena, ospitalea birmoldatzeko proiektu bat ikertzen ari da, pabiloi batzuk bota eta ordezkatzea aurreikusten duena eta mila milioi inguruko aurrekontua lukeena.

Usurbilgo Ospitale Psikiatriko XVII. mendeko baserri handi bat da, egurrezko egituraduna, eta zaharra izanagatik, kontserbazio egoera onean dago bai barrutik eta bai kanpotik. Geriatriako eta Kitzikatuen unitateak dira salbuespena, eraberritzeko birmoldaketa orokor eta berehalakoa behar bait dute, geriatriako unitatean aldez burutzen ari den bezala.

Santa María de las Nieves Ospitale Psikiatriko da, inongo zalantzarik gabe, Euskal Autonomi Komunitate osoan kondiziorik txarrenetan dagoena. Zorionez, hasi dira dagoeneko ordezkatuko duen Arabako Ospitale Psikiatriko berriaren eraikuntza lanak; nahi litzateke, beraz, eraikitze lanak erritmo onean joan daitezela eta gaisoak eraikin berrira lehenbailehen pasa dai-tezela.

Ospitale bakoitzean dagoen ohe kopurua Usurbilgo 54en, psikiatriko espezifiko txikiena berau, eta Aita Menni eta San Jaun de Dios ospitaletan 499 eta 366en artean dabil; bitartekoak dira Zamudioko Ospitalea (159), Zaldibargoa (217), Bermeokoa (227) eta Santa María de la Nieves (288).

Zehaztu beharra dago ohe-ocupazio portzentaia ospitale guztietan % 95 eta % 100aren artekoa dela; praktikan beraz, ohe bakoitzari beti gaiso bat dagokio.

San Juan de Dios Ospitale Psikiatriko da eskulan terapiarako instalaziorik onenak dituena. Moduluetan zatituta daude, egin beharreko lanaren zaitasunaren arabera, gaiso bakoitza bere gaitasun eta eskulanerako trebezziaren arabera horietakoren batean sartu eta lan egin dezan. Pabilioi aparte batean makina-erremineta astuna dute barneratuek eskura, segurtasun neurri bereziekin, eta hor enkarguzko lan ordainduak egiten dituzte Fagor kooreratiba taldearentzat.

Era berean, egiten dira eskulan terapiako lanak, Fagor taldearentzat hauek ere, horretarako instalazio onak dituen Aita Menni ospitalean ere.

Zaldibarren desinfekzio lanak egiten dira Gurutzeta eta Basurtoko ospitaleentzat, ordainsari gaberik, horretarako leku txikia duten arren; hori dela eta, instalazioak handitzeko asmoa dute ikustegia okupatuz. Bermeo eta Zamudioko ospitaleek badituzte lan terapia aurrera eramateko lekuak. Eta azkenik esan, desegokiak eta eskasak direla Usurbil eta Santa María de las Nieves zentroetan horretara eskainitako espazioak. Nolanahi dela ere, eskulan terapiako iharduerak sustatzea gomendatzen da, terapiarako mese-degarriak izateaz gain, gaisoak lan munduan integratzen laguntzen duela-ko.

Suteei aurre egiteko neurri gisa, ospitale guztiek dituzte estintoreak eta ur-mahukak. Ospitale gehienek dituzte ke detektoreak, kasu batzuetan gela guztietañ jarriak eta beste batzuetan korridoreetan, gela amankomunetan eta arrisku-eremuetan bakarrik. Usurbil da salbuespen, nahiz eta zentro honen tamaina txikiak ez duen hain beharrezkoa egiten.

Ospitale guztiek ere ez dute sute kasuan ebakuaziorako eskailerarik. Edozein moduz, neurri hau ez da hain beharrezkoa behesolairua eta altuera bat besterik ez duten tamaina txikiko pabilioietan, eta eskailerabide bat baino gehiago dutenetan eta eraikuntza materialeak erregaitzak direnetan. Zentzu honetan, agerian jarri nahi dugu kezkagarria gertatzen dela San Juan de Dios ospitaleko eta batez ere Santa María de las Nieves ospitaleko pabiloi batzuen egoera.

Lesioak eta autolesioak eragoztekoe neurri bereziak larrien unitateak dituzten ospitaletan dituzte, hala nola Zaldibarren eta Zamudion. Horietan kristalak segurtasunezkoak dira eta leihoak muga jakin bateraino irekitzen dira, nahiz eta Zamudiokoan kristal guztiak ez diren segurtasunezkoak, mai-laka-mailaka aldatzen badoaz ere.

Argitasuna orohar zuzena da eta argi naturala erabiltzeko aukera ematen du. Pabilioietan larrialditarako argiak eta aparatu elektrogenoak badira beharrizanetarako. Santa María de las Nieves eta Usurbilgoa aipatuko genuzke, argitasun egoera okerragoagatik lehena eta aparatu elektrogenorik ez delako bigarrena.

Eraikuntzan eta dekorazioan erabilitako materialak eta koloreen tonuak orohar monotonoak gertatzen dira, baldin eta alde hau hobetu bada ere pabilioietako azken birmoldaketa lanetan. Usurbilgo zentroa, egur landuzko egitura eta dekorazioa duena, aipatuko genuke.

Egonleku bakoitzaren funtzioa erakusteko seinale onenak dituzten zentroak Zamudio eta Aita Menni dira. Beste kasu batzuetan, gaisoak moduluetañ gaisotasunaren arabera banatzeak berak laguntzen die gaisoei orientazio ona izaten eta espazioak ezagutzen. Aitzitik, Santa María de las Nievesen desorientazio sentzazioa da nagusitzen dena.

Esparru zabal eta jardinekoikoak eta ingurune egokia elementu beharrezko eta positiboak dira ospitale psikiatrikoetan, gaisoak paseiatu, soinketak egin eta naturarekin kontaktuan egon daitezen. Arlo honetan kondizio onenak eskaintzen dituzten zentroak Usurbil, Zaldibar eta San Juan de Dioskoak dira.

### 6.2.3. Gomendio orokorrak

Eman ditugun zentro bakoitzeko xehetasunen ondoan, jarraian zappi puntu aipatuko ditugu espazioen bereziketa, kolorea, egitura eta argitasu-

naren inguruan, ingurune fisikoarekin harreman zuzena dutenak eta Euskal Autonomi Komunitatean ospitale berriak eraikitzerakoan edo daudenak bir-moldatzerakoan hobetu daitezkeenak:

1. Eremu edo gela bakoitzak tzango duen erabilera garbi adieraztea. Gaisoak bizi diren ingurunea etxeko girokoaren antzekoa izatea komeni da.
2. Eraikinaren atal ezberdinaren artean bereizketa bisual garbia eskaintzea. Ate, horma, sapai eta zoluetan islada sortzen duten gainazal dizdiratsuak baztertzea eta atal horiek pintura kolore eta akabera ezberdinezkoz bereiztea, anbiguitatea eta nahasmena baztertzeko.
3. Elkarbide soziala bultzatuko duten tokia edukitzea, espazioen, altzarien, e.a.en banaketa kontutan hartuz.
4. Iharduera eta *espaio* desberdinetarako kolore diferenteak erabiltea, orientabideari ere on egiten diolako. Gorria eta laranja bezalako kolore beroak iharduera dinamikoekin elkarkidetzen dira, eta urdina eta berdea bezalako kolore lasaigarriak iharduera gutxiagoko eremuetarako dira ego-kiek.
5. Ikusmen eta ukimen esperientzia ezberdinak eragingo dituen materiale aukera erabiltzea.
6. Espazioak zehazteko argiak erabiltzea, kontutan izanik pertsona zaharren eremuek argi indartsuagoa behar izaten dutela. Esate baterako, argi horizta eta epelak giro lasaia sortzeko eta elkarritzetarako lagunagariak dira.
7. Gaisoek intimitatea edo familiartekoekin kontaktua izan dezaten lekuak eskaintza, eta baita talde iharduerak antolatzeko *espaio* zabala-goak ere.

### 6.3. BARNERATZE EZ-BORONDATEZKOAK ETA EZ-GAITASUNAK

Zentro psikiatrikoetan izaten diren ez-borondatezko barneratzeen zenbatekoa zentro bakoitzean izaten diren ospitaleratze berrien kopuruari atxikia dagokio, eta hau, berriz, ospitale bakoitzean egonaldi laburrerako edo larrientzako dauden ohe kopuruari.

Horrela, bada, estatistika eta erkaketa ondoriogetarako erreferentziatzat hartu den 1990ko urriaren 1etik 1991ko irailaren 30erako denbora-bitartean, ez-borondatezko barneratze gehien izan ziren ospitale psikiatrikoa Zamudiokoa izan zen 141 sarrerarekin, eta Gipuzkoako Ospitalea hurrena 122rekin. Horiek dira, berriz, egonaldi laburrerako ohe kopuru handiena duten bi zentroak Euskal Autonomi Komunitatean (111 Zamudion eta 65 Gipuzkoan), eta gainera, egonaldi laburrerako oheek gaiso gehiago mugitzen dutelako, urtean ospitaleratze kopuru handiena dutenak dira aldi berean.

Egonaldi ertainetarako oheak dituzten zentroak dira ez-borondatezko barneratze gutxienak izaten dituztenak. Azkenik, oherik gehienak egonaldi luzerako diren zentroetan apena izaten dira ospitaleratze berriak eta ezta, beraz, ez-borondatezko sarrerarik ere (Aita Mennik 37 ez-borondatezko sarrera, Zaldibarrek 24 eta Bermeok 5).

Ez-borondatezko sarreren kopuruan eragina duen beste faktoreetako bat sarrera noiz den ez-borondatezko eta noiz borondatezko interpreta-

tzeko ospitale bakoitzean jarraitzen den erizpide estuagoan edo zabalagoan datza. Gaisoek euren gaisotasunagatik gehienetan erasanda izaten dute borondate ahalmena, eta ondorioz psikiatrei beraiei gaitza gertatzen zaie antzematea noiz sartzen den gaisoa bere gogoz eta noiz ez. Horregatik, eta zuhurtasun neurri bezala, ospitale askotan, ia sistematikoki, ez-borondatezko bezala izapidetzen dituzte sarrerak eta hogeitalau ordutako epean epaileari eskatzen diote dagokion baimena.

Ez da sarritan gertatzen borondatez sartutako gaisoek zentroa uztea eskatzea eta ospitaleak epaileari Kode Zibileko 211. art.aren ez-borondatezko sarrera baimen bat eskatu behar izatea. Hala ere, Santa María de las Nieves Ospitalean 39 alditan gertatu da hori urtean zehar. Horren arrazoia hau da: erregulatzen ari direla ustezko gaiso ez gain, urte asko barneraturik eraman eta oraindik ez gai zibil deklaratu gabe daudenengo egoera. Helburu horrekin, ez-borondatezko barneramendu expediente bat izapidetze prozesua aurrera daramate, ondoren Epaileak, ofizikoak, ezgai deklaratzeko autoa has dezan. Aitzitik, gainerako ospitale psikiatrikoetan 7 edo 8 alditan bakarrik eman da suposamendu hori.

Aldizkakoak dira halaber agindu judizialeko sarrerak, hau da, gaisoak ustez edo epai judiziak irmo baten arabera delitu bat egin duenean. Suposamendu hori sarrien ematen den tokia Basurtoko Ospitale Orokorreko Jado Pabilioiko «presondegia» da, urtean zehar 21 kasu eman direlarik. Beste zentroetan eman den ez-borondatezko barneratzeko kopurua adierazgarritasun gutxikoa da, bat ere ezetik 4ra bitarteko sarrerak urtean.

1991ko urriaren 1ean ez-borondatez barneratu gehien zegoen ospitale psikiatrikoa Santa María de las Nieveskoa zen 69 barneraturekin, ondoren jarraitzen diotelerik Zamudiok 48rekin eta Aita Mennik 25ekin, gainerako zentroetan ez-borondatez barneratuak apena hamarrera iristen ziren bitartean.

Ikuskapen psikiatrikoan aztertu den beste alderdietako bat buru-gaisoen barneramendu ez-borondatezko eta urgentziazkaren procedura nola betetzen den ikustea izan da, Kode Zibileko 211. artikuluan ezarritakoari lotzen zaion jakiteko. Honela bait dio artikuluak:

«Ustezko ezgaitu baten barneramenduak aurretiko epaile-baimena beharko du, halako neurri bat berehala hartzea beharrezko egingo lukeen larrialdizko arrazoiaik daudenean salbu, zeinetan neurrien berri emango zaion Epaileari lehenbailehen, eta edozein kasutan hogeitalau orduko epearen barruan.

Epaileak, pertsona aztertu eta berak izendatutako mediku batzen erizpenea entzun ondoren, eman ala uka egingo du baimena, eta egiteak Ministraritza Fiskalaren jakintzaapean jarriko ditu, 203 artikuluan aurreikusitako eraginetarako.

269-4. artikuluan aurreikusitakoaren galerarik gabe, Epaileak, ofizioz, hala erizten dionean, barneramendua jarraitzeko beharrari buruzko informazioa bilduko du, eta edozein kasutan sei hilabetero, aurreko lerroaldean aurreikusitako modu berean, eta barneramendua jarraitu edo ez jarraitzeari buruz egokiena erabakiko du».

Behatutako zentroen arduradunengandik eskuratutako informazioaren arabera, ospitaleko zuzendaritzak kasu guztieta betetzen zuen ez-borondateko berneramendu urgentziazkoen berri hogeitalau orduren barruan epaitegiari emateko obligazio legala. Kasu batean bakarrik jakinerazi dute bereziemate hori batzuetan berrogeitazortzi ordutara atzeratzen dela.

Beren barrutian zentro psikiatrikoak dituzten Euskal Autonomi Komunitateko epaitegi ezberdinek barneramenduari buruz daramaten praktika judizialari dagokionean, baiezta daiteke aipatu zentroetako arduradunek emandako informazioagatik, bai ospitale orokorretako unitate psikiatrikoetan, bai Zamudioko ospitalean, zeinetan ohe gehienak larrienak bait dira eta, beraz, gaisoien egonaldia 10 egunetik 33ra artekoa izaten bait da, epaileak ez duela betetzen ez-borondatezko barneratua aztertzeo obligazioa, eta praktika judiziala zentroko zuzendaritzak barneramendu eskariarekin batera ekartzen dituen txosten medikoak aztertzean datzala, eta beste tramiterik gabe erabakitzetan duela ihardunbidea.

Praktika judiziala zorrotzago eta legeari begirune handiagoz eramatzen da Zaldibarren eta Santa María de las Nieves. Psikiatriko hauetan Durangoko eta Gasteizko epaileak, eskaera jaso eta gutxira, ospitalera bertaratzen dira eta gaisoa aztertzen dute, gehienetan mediku forenseak lagunduta.

Beste zentro batzuetan, Aita Mennin eta San Juan de Diosen esate baterako, dagozkien Bergarako Epaitegiko titularra aldika bertaratzen da, bi edo hiru astez behin, Santa Agedara (Arrasaten), forensearekin beti, eta ez-borondatez barneratua aztertzen dute. Gauza bera gertatzen da Zaldibarren Gernikako Epailearekin, berau aldika bertaratzen bait da, eta zentroko zuzendariekin eta, barneratuarekin elkarrizketatzen bait da.

Azkenik, eta guztiz bestelako kasu bezala, Usurbilgo zentroa aipatuko dugu, konpetentziadun epailea ez bait da bertaratzen ohi ez-borondatez barneratua aztertzera.

Zentro psikiatrikoetako zuzendariengandik eskuratutako informazioaren arabera, urriaren 24ko 13/83 Legea, lehen aipatu Kode Zibileko 211. artikuluan jasotzen den terminoetan buru-gaisoien barneramendua arautzen duena aprobatu zenean, beren barrutietan ospitale psikiatriko espezifikoak dituzten epaitegi asko araua zehatz-mehatz betetzen hasi ziren. Denborarekin, ordea, halako zabartze bat gertatu da praktika judizialean, epaileek ikuusi dutenean zentroetako zuzendaritzek osabideak hala eskatzen duen pertsonak barneratzeko epaitegiari baimena eskatzea besterik ez zutela egiten, eta ondorioz konfiantza giro batera iristea epaileen psikiatrikoetara bisitak bakantzea ekarri du.

Ez-borondatez barneratuen kontrol edo segimendu judiziala idatzien bidez egiten dute epaileek. Epaitegietatik ofizioa bidaltzen zaio zentro psikiatrikoari, gaisoaren egoeraren berri eman dezan aldika-alika, hilabetetik sei hilabetetara doazen epeetan.

Unitate psikiatrikoetan gertatzen dena da, barneratuen egonaldi laburratik, epaileak barneramendu baimena luzatu eta gaisoaren egoeraren berri aldika eman dakiola eskatzen duen unean, gaisoa dagoeneko alta medikoa emanda izaten dela.

Adingutxikoen ez-gaituen ezgaitasuna, tutela, kuratela eta zaintzaren erreforma ahalbidetu zuen urriaren 24ko 13/83 Legea atera zenean, zentro psikiatrikoetako zuzendari eta kudeatzaileei, beren karguagatik ustezko

ezgaia euren zainpean duten aldetik, ezarri zitzaien, Kode Zibileko 213 artikuluaren bitartez, gaitasungabetze prozedurari hasera emateko eskaera juzdiala egiteko obligazioa. Horrela egin zen egonaldi luzeko ospitaletan (Aita Menni, Bermeo, San Juan de Dios, Santa María de las Nieves eta Zaldibar). Alabaina, autoak epaitegi ezberdinetan geldirik aurkitzen dira, familiarteko hurbilenen utzikeria eta kolaborazio faltaren aurrean, ez gaituen ardura hartuko duen tute bat aurkitzeak suposatzen duen arazoagatik.

Irtenbiderik aurkitu gabeko arazo judizial honek mila barneratu inguru osatzen duen kolektiboarengan izan dezake eragina. Hala ere, praktikan ez du dirudien adinako garrantzirik, erizainak eta lagunzaile sozialak izaten bait dira egunero-egunero, familiartekorik ezean, subsidiarioki, ustezko ezgaien izenean ondasunak administratu eta erabakiak hartzen dituztenak, gaur arte irregulartasunengatiko denuntziarik ezagutzen ez delarik.

Tutoretzari buruz esango dugu batzuetan epaileak lagunzaile soziala edo sendagile zuzendaria izendatzen duela ez gaituaren tute. Hori, orohar, gaitasungabetzea ospitale psikiatrikoak berak eskatzen duenean gertatzen da, nahiz eta ez zaion sistema egokia erizten zentroko enplegatuak barneratuen tute ere izateari.

Tutoreen jokabidea ez da beti berdina; zentro batzuetan desegokitzat daukate eta zentroetako batean iritsi ere egin dira tutoreak epaitegiaren aurrean zabarkeriaz denuntziatzera. Esan daiteke ospitalearekin ez kolaboratzeaz gainera, barneratua zabartu egiten dutela eta gaisoak gasturik egin ez dezan bakarrik arduratzentzirela, horrela kontu korronteko saldoa gehitzen joan dadin jasotzen duen pentsioarekin, normalean gutxiengo sarreren garantiaren subsidioa, hilean 24.935 pezetatakoa izaten dena. Baino, batez ere, egonaldi luzeko unitateetako gaisoen arazo handiena hau da: denbora igaro ahala mailaka-mailaka harremana galtzen dutela euren familiekin, eta hauek bertanbehera uzten dutela senide barneratuarekiko duten erantzukizuna, kontutan izanik unitate hauetako bataz besteko egonaldiak 15tik 34 urterako iraupena izaten duela.

VII. ATALA

**ASISTENTZIAREN ALDERDI  
KUALITATIBOAK**

## **7.1. METODOA**

Lagina, azterlan honen hitzaurrean aipatu ditugun Ospitale eta unitate psikiatrikoetan burutu zen, hau da, Bermeo, Zamudio, Zaldibar, Santa María de las Nieves, Usurbil, San Juan de Dios eta Aita Menni ospitale psikiatrikoetan eta Galdakao, Santiago Apostol, Basurto eta Gipuzkoako ospitale orokorretako unitate psikiatrikoetan.

Lagina egiteko ospitale bakoitzak unitate bereiztutzat hartu zen. Zentro bakoitzeko langileei egindako inuesta kopurua asistentzi-langileen kopuruarekiko proportzionala da. Aukeratu diren gaisoen kopurua, era berean, galde sorta banatu aurretikohiruhilabetekoan zeuden alta emandako kopuruarekiko proportzionala da.

## **7.2. TRESNAK**

Honako inuesta hauek banatu eta bete arazi zaizkie Euskal Autonomi Komunitateko ospitale-zentro psikiatrikoetako gaiso eta langileei:

— Ward Atmosphere Scale (salako giroa). Eskala honek ospitale-asistentzi psikiatrikorako zentroetan dauden saletako giroaren alderdi desberdinak neurten ditu.

— W.E.S. (lan giroa). Moosek egindako galde sorta hau 90 galderaz osatzen da eta izaera autoaplikagarria eta 20 minutuko iraupena ditu. Lan giroa neurten du hiru azpieskalen bidez: Harremanak (Inplifikazioa, Kohesioa eta Laguntza), Autoerrealizazio (Autonomia, Antolaketa eta Presioa) eta Estabilitate/Aldaketa (Ulermena, Kontrola, Berrikuntza eta Erosotasuna). Asistentzi-langileei banatzan zaie.

— Burn out-aren galde sorta (errearen sindromea). 18 galdera dituen galde sorta honek asistentzi-langileek «errearen sindrome» delakoa zenbaterraino jasaten duten neurten du eta egoera honek asistentziaren kalitatean eragiten du. Azpieskala hauek ditu: zaitasun emozional, laneko frustrazio, nekeza eta harremanak txartzea.

— Erabiltzaileen poztasuna. Galde sorta heteroaplikatua da hau, eta erabiltzaileek (gaisoek, familiartekoek) ospitale-zentro psikiatrikoetan eskaini zaien arretarekiko duten poztasun maila neurten du. Gaisoiei eta familiar-tekoei beren etxeetan egin zaie inuesta posta bidez.

Aipatu galde sortak langile espezializatu eta aldez aurretik arituek burutu dituzte.

## 7.3. EMAITZAK

### 7.3.1. Giro terapeutikoa

Saletako giroari buruzko galde sortaren erantzunen bidez lortu ditugun datuak interpretatzeko, Suynerik gai honen gainean egindako tesiak hartu dugu abiapuntutzat. Ospitale orokor (% 20,6), ospitale psikiatriko (% 75,3), ospitale kliniko-unibertsitario (% 2,1) eta klinika pribatuetako (% 2,1) 97 sala psikiatrikotako lagina hartu zuen: hauetako 59 gaiso larrientzako salak ziren eta 39 errehabilitaziokoenak. Lagin honen ezaugarriak ikusirik, espainiar Estatu osoaren adierazgarri direnak, egokia iruditu zaigu giroaren ebaluaketako azpieskala bakoitzeko puntuazioa aipatzea, batez besteko puntu konparativo gisa.

Galdesortak honako azpieskalak ditu:

- Lotura edo konpromezua.
- Lagunza.
- Berezkotasuna.
- Autonomia.
- Eguneroako arazoak konpontzea.
- Arazo pertsonalen orientazioa.
- Tolerantzia agresibilitatearekiko.
- Ordenaketa eta Antolaketa.
- Programarekiko ulermena.
- Langileen kontrola.

Jaso diren erantzunen proportzioa neurri zkoa da: gaisoen % 38,6ak eta langilegoaren % 34,7ak erantzun zuen; honek, egiaz adierazgarri diren alde estatistikoak adierazgarritasun gutxikotzat jotzen behartzen gaitu. Galdesorta hau bai gaisoei eta bai asistentzi-langileei banatu zitzaien.

Datuak hobeto ulertzeko, eman diren puntuazioak normalizatuak direla esatea komeni da; «T» zeinuarekin adierazten dira eta batez besteko gisa 50 hartzen da zentesimazko eskala batean.

#### A) Gaisoak

Galdesorta bete duten gaisoen artean ikusten den lotura edo konpromezu maila abiapuntutzat hartutakoa baino txikiagoa da, nola gaiso larrientzako saletan (T Puntuazioa berdin 42) hala psikiatriko orokorretan (T Puntuazioa berdin 48,5).

Gaisoek aurkitzen duten lagunza maila batez bestekoa baino askoz handiagoa da gaiso larrientzako ospitaleetan (T Puntuazioa berdin 73) eta zertxobait handiagoa psikiatriko orokorretan (T Puntuazioa berdin 52).

Gaiso larrientzako ospitaleetan sartuta dauden gaisoek diotenez, zerbait adierazteko duten berezkotasuna batez bestekoa baino txikiagoa da (T Puntuazioa berdin 42,5) eta handixeagoa psikiatriko orokorretan (T Puntuazioa berdin 50,5).

Gaiso larrientzako ospitaleetan sartuta dauden gaisoek duten autonomia batez bestekoa baino txikiagoa da (T Puntuazioa berdin 45,5) eta ia berdina psikiatriko orokorretan (T Puntuazioa berdin 49,5).

Eguneroko arazoak konpontzeko duten gaitasuna batez bestekoa baino txikiagoa da, nola larrientzako ospitaleetan (T Puntuazioa berdin 47) hala psikiatriko orokorretan (T Puntuazioa berdin 44).

Gaiso larrientzako ospitaleetan sartuta dauden gaisoek euren arazo pertsonalak orientatzeko duten gaitasuna batez bestekoa baino handiagoa da (T Puntuazioa berdin 55,5) eta txikiagoa psikiatriko orokorretan (T Puntuazioa berdin 39,5).

Gaiso larrientzako ospitaleetan sartuta dauden gaisoek agresibitatearekiko tolerantzia batez bestekoa baino txikixeagoa da (T Puntuazioa berdin 48,5) eta berdin-berdina psikiatriko orokorretan (T Puntuazioa berdin 50).

Inkesta bete duten gaisoek ikusi duten ordenaketa eta antolaketa maila batez bestekoa baino handiagoa da, bai larrientzako ospitaleetan (T Puntuazioa berdin 58) eta bai psikiatriko orokorretan (T Puntuazioa berdin 55,5).

Inkesta bete duten gaisoek asistentzi-programarekiko duten ulermenaren larrientzako ospitaleetan batez bestekoa baino txikiagoa da (T Puntuazioa berdin 44) eta oso antzekoa psikiatriko orokorretan (T Puntuazioa berdin 49,5).

Galdesorta bete duten gaisoek jasaten duten staffaren kontrola batez bestekoa baino txikiagoa da, bai larrientzako ospitaleetan (T Puntuazioa berdin 45,5) eta bai psikiatriko orokorretan (T Puntuazioa berdin 47,5).

Orohar, aipatzeko da barneramenduaren iraupenak ez duela zerikusi handirik gaisoek bizi duten giroari buruz aztertu diren azpieskalekin; nahiko adierazgarri den alderantzikozko korrelazioa aurkitu dugu barneramenduaren iraupena, eta eguneroko arazoak konpontzeko (-10) eta euren arazo pertsonalak orientatzeko (-12) gaitasunaren artean. Bestalde, aipatzekoak dira halaber, ordenaketa eta antolaketa, eta programarekiko ulermenaren azpieskalak eta laguntzaren azpieskalaren arteko korrelazioa (53. eta 42. hurrenez hurren). (Ikus 1 diagrama 000 orrialdean).

## B) Langileak

Galdesorta bete duten langileen artean ikusten den lotura edo konpromezua maila batez bestekoa baino handixeagoa da (T Puntuazioa berdin 51). Asistentzi-langileen artean, lotuago sentitzen direnak psikologoak dira, eta aldiz, eritegiko langileak (laguntzaileak eta Erizaintzan diplomatuak) gutxiexago ( $p = 0.0007$ ).

Galdesorta bete duten langileen artean ikusten den laguntza maila batez bestekoa baino handixeagoa da (T Puntuazioa berdin 55,5). Asistentzi-langileen artean, MIRak dira laguntza handiagoa jasotzen dutela sentitzen dutenak, eta gizarte langileak gutxiexago jasotzen dutenak ( $p = 0.0861$ ).

Galdesorta bete duten langileek diotenez, zerbait adierazteko duten berezkotasun maila batez bestekoa baino handiagoa da (T Puntuazioa berdin 58,5). Asistentzi-langileen artean, MIRak berezkotasun handiagoarekin espresatzen dira eta aldiz, begiraleak gutxiagorekin ( $p = 0,621$ ).

Galdesorta bete duten langileek duten autonomia batez bestekoa baino txikiagoa da (T Puntuazioa berdin 42,5). Asistentzi-langileen artean MIR eta psikologoak dira autonomoenak, eta aldiz, eritegiko langileak (laguntzaileak) gutxiexago jasotzen dutenak ( $p = 0.0007$ ).

le et E.D.ak) eta gizarte langileak dira autonomia gutxiago dutela diotenak ( $p = 0,0123$ ).

Galdesorta bete duten langileek euren eguneroko arazoak konpontze-ko duten gaitasuna batez bestekoa baino handixeagoa da (T Puntuazioa berdin 51,5). Asistentzi-langileen artean MIRak eta psikologoak dira gaita-sun handiagoa erakusten dutenak eta eritegiko langileek, berriz, (lagunzaile eta E.D.) gaitasun gutxiago dutela diote ( $p = 0,0376$ ).

Galdesorta bete duten langileek euren arazo pertsonalak orientatzeko duten gaitasuna batez bestekoa baino handiagoa da (T Puntuazioa berdin 60,5). Asistentzi-langileen artean MIRak eta mediku lagunzaileak dirà gai-tasun handiagoa erakusten dutenak eta gizarte langileak eta klinikako la-gunzaileek, berriz, gaitasun gutxiago dutela diote ( $p = 0,25$ ).

Galdesorta bete duten langileek agresibitatearekiko duten tolerantzia batez bestekoa baino handiagoa da (T Puntuazioa berdin 59,5). Asistentzi-langileen artean MIRak dira tolerantzia handiagoa erakusten dutenak eta gizarte langileak eta psikologoak, berriz, ez dira hain toleranteak ( $p = 0,28$ ).

Inkesta bete duten langileek ikusten duten ordenaketa eta antolaketa maila batez bestekoa baino handixeagoa da (T Puntuazioa berdin 52,5). Asistentzi-langileen artean, psikologo, MIR, gizarte langileek ikusten du-ten ordenaketa handiagoa eta aldz, klinikako lagunzaileak eta mediku la-gunzaileak dira gutxiago ikusten dutenak ( $p = 0,0002$ ).

Inkesta bete duten langileek asistentzi-programarekiko duten ulermena batez bestekoa baino txikiagoa da (T Puntuazioa berdin 49,5). Asistentzi-langileen artean, MIR, gizarte langile eta psikologoek garbiago ikusten dute klinikako lagunzaileek baino. ( $p = 0,0018$ ).

Galdesorta bete duten langileek jasaten duten staffaren kontrola batez bestekoa baino txikiagoa da (T Puntuazioa berdin 45,5). Asistentzi-langileen artean, Erizaintzan diplomatuak eta klinikako lagunzaileak kontrol handia-goa sumatzen dute eta psikilogo eta MIRek gutxiago ( $p = 0,356$ ).

Orohar, aipamena merezi du lagunza, autonomia, eguneroko arazoak eta arazo pertsonalak konpontzea, ordenaketa eta antolaketa eta progra-marekiko ulermena azpieskalak eta laguntzaren azpieskalaren arteko korre-lazioak. (Ikus 2 diagrama 000 orrialdean).

### 7.3.2. Asistentzi langileen lan poztasuna: Errearen sindromea.

#### Tresnak

Aldagai hau neurtzeko 18 galdera dituen galdesorta labur bat egin zen; asistentzi-langileek «Burn out Syndrom» delakoa (errearen sindromea) zen-bateraino jasaten duten neurten du, sindrome honek asistentziaren kalita-tean eragin zuzena bait du. Oharretan galdesorta honek dituen eskala ba-kotza azaltzen da eta beti asistentzi-langileen ikuspegi subjektiboa adierazten dute.

## **Oharrak**

Saletako giroari buruzko galde sortaren antzeratsu, «errearen» sindromeari buruzko galde sortak ospitale bakoitzean oso erantzun desberdinak jaso ditu. Saletako giroari buruz egindako oharrak hemen ere balio du, lakin-frakzio txikia duten ospitaleei dagozkien oharrak erlatibizatzeari dago-kionez.

## **Ospitaleen arteko konparaketa**

Asistentzi-langile guztien neke maila neurten duen orotariko eskalaren bidez 11 zentroak ordenatu ahal izan dira egoera onenetik txarrenera, zentro bakoitzean jaso diren galde sorta kopuruarentzat kalkulatu den batez bestekoaren arabera. Balore teoriko handiena 52 puntu tan dago eta txikiena 13 puntu tan. Aldiz, gutxi gora behera onar daitekeen muga 27 puntu tan ezar daiteke, ospitale bakar batek gainditzen ez duen balorea delarik.

Zailtasun emozionalaren azpieskalak (lerrune teorikoa 4tik 16ra eta muga 9an) 6,51ko batez besteko balorea du (ospitale guztietan). Eskala honen gaisoekiko enpatia gaizkiagotzea adierazten du.

Gaisoari eska intzen zaion arreta eta bere hobekuntzaren arteko kontinjentzia erlaziorik ezari dagokion laneko frustrazioaren azpireskalak (lerrune teorikoa 4tik 16ra eta muga 9an) 7,69ko batez besteko balorea du (ospitale guztietan).

Nekearen azpireskalak (lerrune teorikoa 3tik 12ra eta muga 7an) 5,72ko batez besteko balorea du (ospitale guztietan).

Harreman personalak txartzearen azpireskalak (lerrune teorikoa 2tik 8ra eta muga 5an) 2,72ko batez besteko balorea du (ospitale guztietan). (Ikus 3 diagrama 000 orrialdean).

## **Zentro motaren arabera**

Gaiso larriekiko arretaz soilik arduratzen diren zentroek erakusten duten orotariko eskalaren balorea psikiatriko orokorrekin erakusten dutena baino handiagoa da, nahiz eta bi balore horietan ez den alde estatistiko nabarmenik ikusten ( $p = 0,357$ ); alde hau azpireskala guztietan mantentzen da, nekearen maila neurten duen azpireskalan salbu; azken honetan erlazioa alderantzikoa da: psikiatriko orokorretan balore handiagoa ikusten da gaiso larrientzako zentroetan baino; hala ere, kasu honetan ere, alde estatistikoak ez dira adierazgarriak. Zailtasun emozionalaren mailan besterik ez dugu adierazgarritasun estatistikorik aurkitu ( $p = 0,000$ ). (Estatistikian,  $p < 0,05$  baino txikiagoa baldin bada, kasu honetan bezala, bi aldagaien arteko erlazioa ez duela azareak eragiten esaten da).

## **Oharrak galdera irekiei**

Zentro desberdinak banan-banan komentatzea egokia iruditu zaigu, erantzunen artean ikusten diren desberdintasunak direla medio; bi gaietan, halere, erantzuna sistematikoki berbera izan da: balore positiboa lanaren izaera bera izaten da beti; eta, estamentu profesional jakin batzuetan baina ospitale guztieta, txanden sistema oso balore negatibotzat hartzen da beti.

### **7.3.3. Gaisoei ezarritako murrizketak**

#### **Murrizketen perfila (galdesorta)**

Erabili dugun erresidentzi eta ospitaleetako ihardueren perfila T. Wykes, E. Sturt eta C. Creerek erabili dutenaren itzulpena da (1982), ospitaleratze zentro eta/edo saletako arduradunei zuzendutako galdesorta batean oinarritua.

Galdesorta 55 «dummy»z (1,0) osatua dago, hau da, 55 aldagai diktomiko daude egiazko ala gezurrezko den erantzuteko. 55 item hauek es-kala bakarra osatzen dute eta beronen lerrunea 0tik 55era bitarteko da, balore txikienak gutxien murrizten diren iharduerei dagozkielarik.

Perfilak 6 azpieskala ditu:

- Norberaren iharduerak.
- Norberaren edukiak.
- Otorduak.
- Gaisoen higiene eta osasuna.
- Gelak.
- Komunak.

## **Oharrak**

Zentro guztiekin erantzun diote bertako gaisoei aplikatzen zaizkien iharduerei buruzko galdesortari.

Gaisoek behar adina erropa duten ospitaleetan bizarra mozteko makinak eta metxeroak edukitzenten uzten zaie eta asistentzi-langileek kontrolatzen dituzte ematen zaizkien botikak. La denetan (10/11) gaisoek edukiak begiratzen dituzte aldiro eta zentro gehienetan (8/11) gaisoek ez dute euren edukiez arduratu beharrik, konprobatu eta katalogatu egiten dira. Ospitale bakoitzean item desberdineneak hauek dira: gauzak begi bistan edukitza (4/11) eta gauzak gordetza (3/11).

Ospitale guztiak bat datozen honako hauetan: sarrerako atea itxita edukitzenten dute (gaisoek ez dute giltzarik), zentrotik ateratzeko txartela exijitzen zaie gaisoei, ez zaie gauez irteten uzten, baimenarekin astebukaera osorako ateratzen direnean non pasatzen duten jakin erazi behar dute, jaiegunetan jeikitza eta egunero oheratzera behartzen dituzte eta bi arau hauek behar bezala betetzen dituztela konprobatzenten dute; Basurtoko zentroan ezik beste guztieta, gauerdia pasata telebista ikustea debekatzen zaie; Galdakaon ezik,

baimenarekin ateratzen direnean gaueko hamarrak baino lehen itzultzea exijitzen zaie; zentro gehienetan (9/11) 10etan isten dute ospitaleko atea eta ordu jakinetan jeiki eta oheratzera behartzen dituzte jaiegunetan; zentroetatik erditan (5/11) bisita orduak mugatuta daude eta ezin dute bere kasa ospitaletik lartera; lau zentrotan gauerdian oheratzera behartzen dituzte.

Ospitaleak ez datoz bat azpieskala honetako item guztietan. Arrasatekoan ezik (gizonezkoak), ospitale guztietan langileek gaisoen geletan sartzeko aukera dute; bi zentrotan bakarrik dute egunez euren gelan egoteko eta geletan erretzeko baimena; hiru zentrotan bakarrik dute euren geletan bes-te sexuko norbaiten bisita hartzeko baimena; eta bi zentrotan baino ez dituzte oheak egin gabe uzten.

Gaisoek ez dute inongo zentrotan erropa garbitzen eta zentro guztietan egiten zaie azterketa klinikoa sartzerakoan. Zentro bakar batean (Usurbil) ez da azterketa klinikoa aldiro errepikatzen; aitzitik, Gipuzkoako Ospitale Orokorean ez dira gaisoen bainugelak begiratzen; bi zentrotan bakarrik itsi dezakete bainugela eta komuneko atea; bi zentrotan salbu, egokien iruditzen zaien erropa erabil dezakete; eta lau ospitaletan erabakitzent dute noiz hartu nahi duten bainua.

Ospitale guztietan dago alkohola debekatua eta gaisoek ezin dute kafea prestatu nahi badute; bi zentrotan bakarrik aukera ditzakete janari eta edariak. Bost zentrotan uzten zaie otorduz kanpo jaten eta lau zentrotan gaisoek atsegin dutena kontuan hartzen da menuak egiterakoan.

Ospitaleak ez dato bat azpieskala honen atal guztietan. 9/11etan ile-paintzaileak aldiro egiten die bisita; 6/11etan zaintzen dituen langileekin bilerak egiten dituzte aldiro, eta 5/11etan gaisoek baimena eskatu behar dute mediku orokorra ikustera joan aurretik.

Orokorean, larrientzako ospitaleak orientazio orokorreko zentroak baino murritztaileagoak dira gaisoen edukiekin; osasun eta higiene eta eskaintzen dituzten zerbitzuekin berdin gertatzen da. Gaisoen iharduerei dagokienan neurri berdinean murrizten dituzte. Eta janari eta gelen arauet dagokienean, orientazio orokorreko zentroak murritztaileagoak dira. (Ikus 4 diagrama 000 orrialdean).

### 7.3.4. Erabiltzaileen poztasuna

Erabili dugun inuesta guk geuk egokitut dugu Bartzelonako Udaleko PAMEMek (Asistentzia Medikoaren Prestazioak Udal Enplegatuei) erabil-tzen duen inesta abiapuntutzat hartuta.

Erabili dugun inestak 7 aldagai independente ditu (bere eritzia adierazten duen pertsona, gaisoaren adin eta sexua, zein zentrotan egon zen sartua, barneramenduaren iraupena eta arrazoia, eta berriro zentro berera itzuliko litzatekeen behar izanez gero) eta poztasun globalaren eskala osatzen duen 26 atal; eskala honen lerrunea 26tik 98 puntuera bitarteko da eta beronen graduazioa postasun handienetik txikienera aldatzen da. Era berean, item bakoitzak 4 baloretako lerrunea erdikualitatiboa du, 1etik 4ra puntuatzen da eta poztasun handiago edo txikiagoa adierazten du.

Poztasun orokorraren lerrunea 4 osagai edo azpieskala tan banatzen da:

- *Tratua*
- *Zerbitzuen antolaketa*
- *Ostalaritza eta erosotasuna*
- *Asistentzi arreta.*

## Oharrak

Bidali diren galde sortetatik 143 erantzun jaso dira, 102 gaisoengandik (% 71); horietatik 5 barneratuta zeuden erantzun zutenean. 39 inkesta (% 27) gaisoen familiartekoek edo lagunek erantzun dituzte; gainerako bietan item hau ez da erantzun.

Inkesta honen emaitzak ondo ulertzeko esan beharra dago lagin hau ez dela inolaz ere gaisoen eritziaren adierazgarri estatistikoki. Euskadiko zerbitzu psikiatrikoak erabili dituzten talde jakin baten eritzia jasotzea besterik ez da.

## Ospitale berera itzultzeko asmoa

Berriro ospitaleratzeko beharra izanez gero, % 8ak bakarrik dio ez litzatekeela zentro berean sartuko: larrien ospitale eta ospitale orokorretako 6 zentrotan banatzen diren gaizonezkoen % 10,8 eta emakumezkoen % 5,1; % 34ak zalantzan jartzen du eta gehiengoak (% 58) baietz erantzuten du. Badirudi erantzun hau ez duela barneramenduaren iraupenak baldintzatzen, baina bai borondatez kontra barneratua izanak.

## Ospitale bakoitzeko azpieskalak

Orohar, ospitale bat baino gehiagotan egon diren gaisoak dira eritzi okerrena adierazi dutenak orokorrean eta azpieskala guztietan; larrien zentroetatik pasa diren gaisoak zerbitzuak hobeto antolatuak daudela diote eta psikiatriko orokorretan sartu ziren gaisoek baino ostalaritza hobea eta erosogoa izan dutela. Alderantziz, azken haurek tratu hobea eta asistentzi-arreta hobea izan dutela diote larrientzako ospitaletakoak baino.

## Tratu txarrak


13 gaisok (% 9,4) tratu txarrak jasan dituztela uste dute, beti edo maiz, ospitalean zeuden bitartean. % 18,8ak (26 gaiso) inoiz edo behin gaizki tratatuak izan direla diote; eta gehiengoak 71,7 (99 gaiso) inoiz ez duela tratu txarrik jasan esan du. (Ikus 5 diagrama 000 orrialdean).

## Gaisoen oharrak

Erantzun irekietan desberdintasun handia ikusten da, logikoa bestalde; orohar, erantzun positiboak jaso dira gehienbat, normalean aipamen berezia egiten zaiolarik mediku eta langile lagunzaileengandik jasotako tratuari edo osabidearen ondorioz hobekuntzaren poztasunari.

Alderdi negatiboei dagokionez, kexu zehatzak jaso ditugu eta beraz ezin ditugu ikuspegi estatistiko baten arabera eta aztertu diren zentro psikiatrickoentzako adierazpen gisa jaso. Nolanahi ere, badago zentro batzuetan halako ezadostasun bat erabiltzaileen artean, sexu, adin edo patologia desberdinak gaisoak nahasten direlako, eta ez zaie ondo iruditzen zentroren batean toxikomanoak gainerako gaiso psikiatrickoekin nahastuta egotea. Jarniaren kalitateari buruzko zenbait kexa ere jaso dira.


Saletako giroa  
(Gaisoak)



1 DIAGRAMA


Saletako Giroa

(Langilegoa)




2 DIAGRAMA

Errearen sindromea  
(Langilegoa)




3 DIAGRAMA

## Iharduera Murriztaileak



4 DIAGRAMA

Gaisoen iritzia



5 DIAGRAMA

VIII. ATALA

**ARAZO BEREZIAK**

## 8.1. PSIKOGERIATRIA

Baieztatu da 65 urte baino gehiagoko gaisoek ez dutela jotzen Euskal Autonomi Komunitateko anbulategi-zerbitzu psikiatrikoetako konsultara populazioaren banaketak erakusten duenagatik espero litzatekeen bezain sarritan. Halaber, psikiatrak eskaintzen dien batazbesteko denbora beste adineko gaisoei eskainia baino laburragoa izan da. Bi datu horiek anbulategien aldetikoa arreta falta bat erakusten dute gaiso horienganako, gaiso horiek izaten dituzten sentimen eta adimen zaitasunengatik iraupen luzeagoko elkarrizketak behar lituzketenean.

Gaiso psikogeriatrikoen epe luzerako zainketak denboraldi luzeetan eman beharreko zerbitzu formal eta informal sorta bat eskatzen du, gaisotasun kroniko bat edo gehiago elkartzen direlako euren funtzionamendu bitalean: bihotzko gaisotasunak, tronbosia, artritisa, eta buru-gaisotasunak. Hain zuzen ere, esate baterako, nazioarteko datuen arabera, erresidentziatan bizi diren bost gaiso zaharretik hiruk ezagumen-nahasketa garrantzitsuak dituzte eta % 93k besteren beharra du eguneroako aktibitate batean gutxienez. Zainketa horiek gehienak famili-giroan egiten dira, asko erresidentzia geriatrikoetan eta portzenaia txikiago bat gaiso kronikoentzako ospitaletan edo ospitale psikiatrikoetan. Zainketa mota hori gizarte-babesa, zainketa pertsonala (etxe-garbiketa, bainua, jatea), erizaintza, medikuntza edo zerbitzu psikiatrikoen konbinaketa bat izaten da.

Gure Autonomi Komunitatean gaiso urtetsuak gutxiago ordezkatuak daude, ospital-arloan, biztanlegoan duten banaketagatik espero zitekeena baino, eta horrek erakusten du zaharrentzako egoitzetan edo euren etxean daudela atenditurik ez behar bezain egoki. Horregatik, susmatzekoa da (baina ad hoc egindako azterlanen bidez baieztatzea komeniko litzateke) gure Autonomi Komunitatean zahar-etxeetako biztanlegoaren nahasketa psikiatriko tasa, ezagumen-nariadura alde batera utzita, desiragarria litzatekeen baino askoz handiagoa izango dela. Aipatzekoa da, beste lurralde batzuetan gertatzen denaren alderantzira, premia psikiatriko horiei arreta eskaintzen dietenak ez direla talde espezializatuak izaten. Bestalde, Padiernaren estudioak erakusten duen bezala, beste ohe asko behar dira Komunitatean era horretako erresidentziatan, gaisoak familietan zaindu ahal izateko kondizioak eskasak bait dira.

Komunitateko ospitale psikiatrikoek ez dute, ororar, egiazko zerbitzu psikogeriatrikorik, ez eta azipieszialitate honetan trebaturiko behar adina psikiatra. 2.000. urtean gaiso psikiatriko barneratuen heren bat 65 urtetik

gorakoa izango da, eta nahitaezkoa da behar diren zerbitzuak sortzen eta lantaldeak prestatzen joatea.

## 8.2. ADIMEN ATZERAPENA

Azken 25 urteotan aldatu egin da psikiatren papera adimen atzerapenaren arloan, genetika, biokimika eta jokabidearen zientzietako garapenak disziplina baten baino gehiagoren partaidetza beharrezko egin bait du harren diagnostikorako. Aitorrtu da, bestalde, adimen atzerapena erakusten duten pertsonen nahasketa psikiatrikoek forma ezberdina agertzen dutela biztanlego normalaren aldean, baina mota bereko neurri terapeutikoen bidez onuratu daitezkeela. Hori dela eta, psikiatren papera aldatu egin da, adimen atzerapenaren diagnostikoaz eta erresidentzietan zaintzeko moduez arduratzetik gaiso atzeratuengan agertzen diren buru-gaisotasunen diagnostiko, osabide eta prebentziora dedikatzeko. Zoritzarrez, gure elkartearen adimen-atzeratuen egoera ospitale psikiatrikoetan dueia 25 urte bezalatsu izaten jarraitzen du zentzu horretan. Gaiso ugari bizimodu duin baterako egokiak ez diren zentroetan agindu psikiatriko berezirik gabe barneraturik.

Kontuan harturik adimen atzerapena, datu berrien arabera, % 1en inguruau gailentzen dela biztanlerian, beharrezko da psikiatrian behar duen arretarako programa bereziak praktikan jartzea. Kontutan hartu behar da dauden ikerketek adierazten dutela adimen-atzeratuen artean nahasketa psikiatrikoen gailentze handiagoa dagoela pertsona normalen artean baino eta % 30-60ren artean kokatzen da. Aitzitik, probabilitate gutxiagorekin diagnostikatuko da nahasketa psikiko bat, «diagnostiko itzaldua» (diagnostic overshadowing) delakoarenengatik pertsona adimen-atzeratua dela jakinez gero. Gaiso hauen diagnostikoen barnean sar daitezke adimen-atzeratuak ez diren gaiso psikiatrikoek agertzen dituzten guztiak, nahasketa afektiboe-tatik hasi eta eskizofreniara artekoak, anorexia nerbioso, e.a.etik igarota. Gaiso horietako batzuk izan dezakete, beraz, denboraldi laburrez edo luzez berneratu beharra. Batere justifikatu gabekoa da, ordea, beste guztiak instituzio psikiatrikoetan bizitza osorako egotea.

## 8.3. DIAGNOSTIKO BIKOITZEKO GAISO TOXIKOMANOAK

Txosten bat eginarazi zen (ikus 3. eraskina) gaiso psikiatrikoek sustantzia gehiegia hartzearen arazoa aztertzeko, Basurtoko Ospitalean barneratutako gaisoegan agertzen diren diagnostiko bikoitz horien azterlanaren bidez. 104 gaiso barneratuetatik, 33,7 urteko batazbesteko adina eta eskizofreniatik hurbileko diagnostikoa zutenetatik % 35,3ak sustantzia gehiegia hartzen zuen, eta % 4,8an bakarrik detektatu zen gehiegikeria hori diagnostikoan, beste zerbitzuetan emandako proportzio beretsuan. Sarrien gehiegiz erabiltzen ziren sustantziak alkohola (% 47), cannabis (% 38) eta anfetaminak (% 18) ziren.

Horrek guztiak adierazten du eskizofreniko droga kontsumitzaleek ezaugarri zehatzekiko azpitralde bat osatzen dutela gaisoaren artean. Gure

gaisoetan nabaritu den diagnostiko bikoitz falta eta gainerako zerbitzuetan iragarri ahal izatearen arrazoia baliteke eskizofreniaren diagnostikoan gehiegizko arreta jarri eta sustantzi-konsumoaren garrantzia, (alkoholarena batez ere, haren agerpenean eta bilakaeran duenagatik) baloratu ez izatean egotea.

Nolanahi ere, gaiso horiek ez dira egoki tratatzen, ez zerbitzu psikiatriko orokorretan, ez drogazaleak soilik zaintzen dituzten zerbitzuetan. Horregatik jarri dira martxan, EE.BB. etan batez ere, horientzako zerbitzu bereziak, bereziki diseinatutako programekin. Hauteman den arazoaren handiak beharrezko egiten du gure Euskal Autonomi Komunitatean horrelako programak ezartzea.

#### **8.4. BURU KOLPEAREN ONDORIOZ GAITASUNA KALTETZEN DUTEN SINDROME PSIKIATRIKOAK**

Ikusi denez buru kolpeak jasan dituzten gaisoek batzuetan agertzen dituzten jokabide arazoek buruhauste larriak sortzen dituztela familietan eta osasun zentroetan, azterlan bat eginarazi da Euskal Autonomi Komunitatean arazoa zenbaterainokoa den eta zer ezaugarri berezi dituen azterzeko (ikus 4. eraskina).

Basurto eta Crucesetan barneratutako 107 gaiso, batazbesteko adinez 43 urte zituztenak aztertu ziren. Gaisoek agertzen zituzten nortasun eta adimen desarauketak, neurri batera edo bestera familiaren edo zaintzaileen menpekotasuna sortzen zutenak ebaluatu ziren.

Gaisoen % 5,5ak nortasun eta jokabide desarauketa larriak agertzen zituen. Gaisoen % 4,5a ezgaitua zegoen, traumatismo ondoko jokabide-nahasketak eguneko 24 orduetan jasango zizkion familiartekoren baten laguntzaren beharrean.

Estatu espanyiarrean ez dago nahasketeta horien tratamendurako zentro berezirik, gainerako lurralte aurerratuetan dauden bezala. Estatu espanyarra bigarrena da Europako Ekonomi Elkarteko lurralteen artean trafiko istripuek eragindako heriotzetan, eta behar-beharrezko da, beraz, gaiso mota horrentzako unitateak sortzea.

#### **8.5. LARRIALDI PSIKIATRIKOEN ARAZOA**

Txosten bat egitea eskatu zen larrialdi psikiatrickoen arazoa azterzeko (ikus 5. eraskina), Basurtoko Ospitalean eskaintzen den zerbitzuaren azterketaren bidez, Ospitale hori delarik Euskal Autonomi Komunitatean larrialdi psikiatricoetarako den unitate nagusia, 1991n 2.984 larrialdi zaindu bait zituen urte horretan Osakidetzaren ospitaletan guztira gertatutako larrialdiak 4.317etatik; Deusto-San Inazio Modulu psikosozialean eta Deustoko Larrialditarako Anbulantzi Zerbitzukoak ere ikertu ziren.

Kontsultatuko gaisoen batazbesteko adina 28 urtekoa zen. % 38,6 langabetuak ziren. % 14,2 poliziak lagunduta etortzen ziren. % 44,3a ez zegoen tratamenduan zainduak izan ziren unean, anbulategi-zerbitzu sarearen

funtzionarioak urria erakusten duelarik horrek. Gaisoen % 70ak aurrekari psikiatrikoak zituen eta heren bat beste zentroren batean barneraturik egona zen. Gaisoen ia erdiak ondoko hiru arrazoi hauetan zituen, maiztasunari jarraiki ordenatuta, larrialdietara jotzeko: herstura, depresioa, eldarnioak eta aluzinazioak. % 15a alkohola edo drogekin erlazionatutako arazoengatik zetorren eta, beraz, hersturaren ondotik hori izan zen bigarren kontsulta-arrazoa. Familiarteko gehientsuenek ez zuten gaisoa barneratu nahi, agresibo edo eldarnioz zeudenak kasuak kenduta. Basurtoko Ospitalean jasotako datuetatik ateratzen dena da gaisoen % 27a barneratua izan zela (% 87a Basurton eta % 13a beste zentro batzuetan), barneramendu lekua eta izendatutako biztanlego-sektorea, orohar, ondo egokitzen zirelarik. Langabetua izatea, tratamendu psikiatrikoan egotea edo aurrekinak edukitzea, agresibitatea edo eldarnioak agertzea eta familia barneratzearen aldeko izatea ziren barneratua izateko probabilitatearekin zerikusia zuten gorabeherak. Barneratuak izan ez ziren gaisoen % 77ak medikazioa behar izan zuen eta % 89ak segimendu bat bere osasun-zentroan.

Ospitalez kanpoko larrialdi psikiatrikoak telefonoz konpondu ahal izan ziren. Kasuen % 73ak droga-kontsumoarekin zuen zerikusia. 22 kasuetatik batek ere ez zuen barneratu beharrik izan.

Larrialdietarako Anbulantzi-zerbitzu Berezia erabili zuten 34 gaisoetatik, kasuen erdiak «nerbio-atakeak» izan ziren, emakumezkoengen gehienak, kasuen % 12ak barneramendua behar izan zutelarik. Hurrena, zahartzaroko dementziak erasotakoena jokabide-arazoak izan ziren arazo garrantzisuenak.

Jasotako datuak kualitatiboki aztertuta ateratzen dena da larrialdietako eskuhartzeek arazoa momentuko bakarrik konpontzen dutela, gaisoaren krisialdiak bere buruari eta familiari sortzen dion herstura menean hartu ezin dutelarik. Komenigarria litzateke, beraz, ospitale orokorreko larrialdi zerbitzu horiek benetako unitate bihurtzea krisialdian eskuhartzeko. Beharrakoa da, nolanahi ere, larrialdietarako unitate bat sortzea Gurutzetako Ospitalean.

## 8.6. OSPITALERATZE EZ-BORONDATEZKOAK

Psikiatrikoratze ez-borondatezkoekin arazoak somatu zirenez, ikerketa lan bat egitea eskatu zen (ikus 6, eraskina) ez-borondatezko barneramenduei buruz indarrean dagoen legeriaren segimenduan sortzen diren zailtasunak aztertzeko eta, baita ere, Basurtoko Ospitale Orokorreko Larrien Unitatean eta «Presondegi» Unitatean izan ziren sarrera psikiatrikoen kopurua eta ezaugarriak ezagutzeko.

Psikiatriako Larrien Unitatean azken urtean izandako 488 sarrera aztertu ziren eta Presondegi Unitatean 21 gaiso.

Unitate Psikiatrikoan 36 ez-borondatezko sarrera egin ziren (sarrera guztien % 7,8a), horietatik % 16 hasieran borondatezkoak izan ziren eta ez-borondatezko bilakatu gero. Batazbesteko adina 36 urtekoa zen. 27 gaisok esquizofreniatik hurbileko diagnostikoak zituzten. 21 kasutan gaisoak aldez aurretik baimen judizialarekin etorri ziren eta 9 gabe. Azken kasu hauetako 2tan bakarrik aztertu zuen epaileak gaisoa.

Basurtoko Presondegi Unitate delakoan 18 sarrera izan ziren epailearen aginduz egindakoak eta gainerakoak Basauriko kartzelako medikuek bideratuak. Toxikomania eta eskizofrenia diagnostiko gehiago izan ziren beste unitatean baino. Batazbesteko egonaldia 31 egunekoa izan zen. Gaisoetako bat 250 egunez egon zen barneratua eta orduan 116 zeramtzan beste batek barneraturik jarraitzen zuen estudioa amaitzean.

6 ohe dituen unitate horretako langilegoak prestakuntza psikiatrikorik ez duelako (mota guztietako arazo mediko eta psikiatrickoak dituzten gaisoak sartzen dira bertan), eta lekua estua delako, guztiz desonuragarria geratzen da astebete baino egonaldi luzeagoetarako erabiltzeko, eta unitate honen egungo egoerak gaisoak oso modu desegokian tratatzea ekartzen du.

IX. ATALA

## **ERREGIMEN JURIDIKOA**

## **9.1. SARRERA**

Adierazi da lehenago —helburuei buruzko atalean hain zuzen— Txosten honetan Euskal Herriko Autonomi Komunitatean ospitaleratutako gaiso psikiatrikoen arazoa ikuspuntu bikoitz batetik aztertu nahi dela: dagokion osasun zerbitzu publikoaren ikuspegitik eta honen erabiltzaileen oinarrizko eskubideen ikuspegitik. Ezin zitekeen beste inola egin kontuan hartzen badugu Arartekoaren Erakundea (EKren 54 art., EHAERen 15. art. eta beronen Lege arautzailearen 1. art.) herritarren oinarrizko eskubideak bermatzeko dagoela, horretarako baliabide nagusia euskal administrazio publikoen ihardueraren ikuskaritza delarik. Gainera, Txosten honen kasuan bi alderdiok bereziki lotuta agertzen dira; osasun zerbitzuaren behar bezalako funtzionamendua nahitaezkoa gertatzen da bere erabiltzaileen oinarri eskubideekiko begiramena eraginkorra eta egiazkoa izan dadin; eta, beste ikuspegitik, oinarrizko eskubideak errespetatzeko baldintza horrek hainbat ondorio dakartzza berekin zerbitzugintzaren antolakuntza praktiko eta matrialean.

Bi alderdiok, beraz, estuki lotuta gertatzen dira eta aztergai izango dira atal honetan, beronen helburua, buru-gaisoen ospitale-osabiderako burututako iharduera arautu eta xedatzen duen lege eremua argitzea izanik.

## **9.2. OSASUN PRESTAZIO PSIKIATRIKOAREN ESKUMEN-ESPA-RRUA EUSKAL HERRIKO AUTONOMI KOMUNITATEAN**

### **9.2.1. Estatua eta Euskal Herriko Autonomi Komunitatearen arteko es-kumenen mugapena**

Egia esan, oso zabalak dira Euskal Herriko Autonomi Komunitateak osasun gaietan dituen eskumenak. Ezin da ahaztu, EHAERen 18. artikuluan jasotzen den bezala, Euskal Herriari dagokiola Estatuaren oinarrizko lege-riaren garapena eta exekuzioa barne-sanitate gaietan (1 zatia), halako moduan non Euskal Autonomi komunitateak, eragin horietarako, antolatu eta administratu ahal izango bait ditu, bere lurrardearen barruan, gai horri da-gozkion zerbitzu guztiak eta instituzio, erakunde eta fundazioei babesa eman osasun gaietan, artikulu honetan (4 zatia) bildutako funtzieta eta eskumenak betetzeko goi-mailako ikuskaritza Estatuak beretzetat gordetzen duelarik. Euskal aginte publikoetako dagokie, azkenik, gai honetan beren gain hartzen dituzten eskumenen gauzatzean, doakien guztien, eta baita langile sindikatuen

eta enpresari elkarteen partehartze demokratikozko erizpideetara egokitzea, legeak ezartzen dituen terminoetan (5 zatia).

Azter dezagun mantsoago eta nabardura gehiagoz hurrenez hurreneko eskudunza-esparruari dagokion arazo hau. Lehenik eta behin, azpimarratzeko da Osasun arloko eskudunza banaketan nagusitu den erizpidea; hots, kanpo-Sanitate eta barne-Sanitatearen arteko banaketarena —legeri tradizionalean klasikoa dena, baina egun, gero eta nekezagoa dena, bai edukina zehazteko bai erabilgarritasuna justifikatzeko orduan—. Autonomi estatutuetan kanpo-Sanitatea enbor amankomuneko «Sanitate» gaitik ate rako da, Estatuaren eskudunza esklusiborako erreserbatuta geratuz (ik. honi buruz Sanitatearen Lege Orokorraren 38 art. eta ekainaren 13ko 1418/1986 Errege Dekretua, kanpo-Sanitate alorreko Sanitate eta Kontsumo Ministerioaren funtziei buruzkoa). Beraz, «barne-Sanitate» titulua interesatzen zaigu orain gehienbat. Azken batean, Euskal Herriko Autonomi Komunitatearen eskudunza legeen garapenari eta gaiari buruz Estatuak ematen dituen oinarrien gauzatzeari dagokiena izango da. Alabaina, ezin da ahaztu Estatuak, barne-Sanitate alorreko oinarriez gain, badituela EKren 149.1.16 artikuluan aurrikusitako «Sanitatearen koordinaketa orokorra» eta EHAERen 18.4 artikuluan *in fine* sartu den alor horretako «goi-mailako ikuskaritza» eskudunza-tituluak ere.

Nahikoak bitez, beraz, adierazpenok Txosten honetan aurrikusitako eraginetarako, eta eskumen honen kontzeptu mugatzaileak hobeto ulertzeko, gai honi estuen lotuta dauden Konstituzio Epaitegiaren erabakietara jo daiteke, bereziki apirilaren 28ko 32/1983 Epaian aurkitzen direnetara. Hala eta guztiz ere, adierazi beharra dago estatu-oinarriak deritzon kontzeptuak konstituzio-jurisprudentzian izan duen bilakaera, zeren aipatu epaian oraindik osagarri «material» soila bait du, bost urte beranduago Konstituzio Epaitegiak berak osagarri «formal» bat erantsiko badio ere; eta ohartu beharreko da halaber koordinaketa egiten duen interpretazioa osatu eta ñabartu egiten duela geroko uztailaren 4eko 80/1985 Epaiaik, harik eta berriki, otsailaren 6ko 13/1992 Epaian, «sanitate koordinaketa» titulua delibera mendu osoz erabiltzen den arte. Zentzu honetan azaltzen dira urriaren 13ko 182/1988 eta azaroaren 29ko 192/1990 Epaiaik, eta hein txikiago batean, azkenik, ekainaren 20ko 136/1991 eta urriaren 31ko 208/1991 Epaiaik.

Beraz, Estatuak funtsean erabili egin ditu bere eskumenak 1986ko apirilaren 29ko Sanitatearen Lege Orokorra ematean (ik. honi buruz bere 2. art.). Baina Txosten honen eraginetarako 20. eta 10. artikuluak dira interesgarriak besteen gainetik, eta horien aipamena egingo da aurreraxeago.

Autonomi eskumenak, beren aldetik, jadanik autonomiaurrearen garaian hasi ziren benetan erabiltzen (irailaren 7ko 2209/1979 Errege Dekretuak alor horretako garrantzi handiko eskuduntzak transferitu zizkion Euskal Kontseilu Nagusiari), martxoaren 23ko 43/1981 Errege Dekretuarekin jarraitu zuten eta bukatu dira, oraingoz, azaroaren 6ko 1536/1987 Errege Dekretu garrantzitsuarekin, INSALUDen transferentzia bideratu zue narekin, hain zuzen. Nabarmendu beharrekoa da 1983an Euskal Legebiltzarrak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Legea landu zuela, eta Erakunde autonomo honetan, 1987aren amaierako aipatu den transferentziaren ondoren, Gizarte Segurantzaren osasun zerbitzuak integratu ziren (bestela ere Sanitatearen Lege Orokorraren seigarren, lehen xedapen gehi garrian aurrikusten zen bezalaxe).

Beraz, funtsean, honela geratzen da mugatuta Estatuaren eta Euskal Autonomi Komunitatearen eremu teorikoa, hurrenez hurren, eta Txosten honen xedea den iharduketa ikerlea kokatu beharreko osasun zerbitzua arautzen duen esparru normatiboa markatuta. Haatik, arazoak zehaztapen maila garaiagoa eskatzen du esparru intrakomunitarioari dagokionez, eta horrexeri ekingo diogu ondoren.

## 9.2.2. Eskumenen mugapena Euskal Herriko Autonomi komunitate berruan

Euskal Herriko Autonomi Komunitatean lurralte historikoena ezarpen estruktural nabarmenak, alde batetik, eta bestetik asistentzia psikiatriko publikoa neurri handi batean, tradizioz, probintzi aldundiak eskuetan egon izanak, Euskal Herriko Autonomi Komunitatearen baitan gai honi buruz geratu den banakuntza aipatzea gomendatzen dute.

Gutxi gainera daiteke hemen EHAERen 37. artikuluan aipatzen diren instituzioek jokatzen duten paperari buruz. Gogoratu beharko da bakarrik —Txosten honen eraginetarako— Euskal Legebiltzarreko «Lurralte Historikoena Legea» bezala ezagunagoa denak 1983an ezarri zuela (Osakidetza sortzeko Legea baino hilabete batzuk beranduago, hain zuzen) Euskal Autonomi Komunitateko Erakunde amankomunen eta lurralte historikoena foru erakundeen arteko eskuduntzen banaketa. Orduan, lurralte historikoena eskuduntza zerrendan ez da sanitatea agertzen, beraz, aipatu Legearren 6.1. artikuluan egiten den «hutsunezko» aurrikuspenaren arabera, eskuduntza hori Erakunde amankomunei dagokie. Agertzen da, ordea, lurralte historikoena eskuduntza gisa, autonomi legeriaren gauzatzearena «gizarte asistentzia gaietan, Erakunde amankomunen ekintza zuzenaren kaltetan izan gabe» (7.c.1 art.); aipamen hau egitearen arrazoia da gai honetan —osasun asistentzia eta gizarte asistentziaren arteko erlazioetan— Txosten honen helburuan eragin zuzena duten disfuntzioak somatu direla, disfuntzio horietara aurrerago itzuli beharko delarik. Nahikoa bekigu, oraingoz, adieraztea osasun asistentziarako zerbitzuak, barne-banaketaren arauetan jarraituz, Eusko Jaurlaritzaren eta honen Administrazioaren ardura direla, eta gizarte zerbitzuak, hasiera batean, foru aldundi bakoitzarenak.

Jadanik adierazi den bezala, usadioz probintzi aldundiak berezko bete-behartzat hartu zen asistentzia psikiatrikoa —1955ean sortu, ondoren (1972an) Osasun Nazionalerako Administrazio Instituzional zeritzen erakundean integratu eta azkenik, autonomi komunitateei egindako transferentzi prozesuaren ostean, 1988an, desagertuko zen Arreta Psikiatrikorako Patronato Nazionala (APPAN) delakoak burutzen zuen asistentzia kuantitatiboki haiena baino askoz xumeagoa bait zen—, eta guztি honek duela oso gutxi arte iraun du. Izan ere, asistentzia, psikiatriko, esklusiboki ospitaleen-antolakuntzan zehaztua, joan den mendean eratu zen onegintzaren esparruan Toki Administrazioaren berezko ihardueretako bat bezala. Osasun asistentzia centralizatzeko joera orokorrari eutsiz, 1944eko Sanitate Nazionalaren Oinarrien Legean probintzi aldundiak eskuetan jartzen zen asistentzia psikiatrikorako ospitale-zerbitzuen ezarketa (32. oinarria) eta ondoren 1955eko Erregimen Lokaleko Legeak probintzia bakoitzaren gutxieneko betebehar

gisa ezarriko zuen ospitale psikiatriko baten instalakuntza eta mantenimendua (245. art.).

Gauzak aldatu egin dira, begi bistakoa da, eta arau mailan ere arazoa oso bestelakoa da, indarrean dagoen 1985eko Erregimen Lokaleko Oinarrrien Lege Arautzaleak hautsi egin bait du eskema hori, beste antolakuntza-diseinu mota bat ahalbidetuz, iharduera hori aldundiek derrigorrez burutu beharrekoa bezala jasotzen ez delako, Estatuaren eta autonomi komunitateen legeri sektorialak xedatzen duenaren menpe geratuz (36.1 art.). Hala ere, ez da sobera geratuko hemen ondorio historiko bat aipatzea, prestazio psikiatrikoak praktikan izan duen ihardunbidean, errealean bere aztarna, eta ez oso positiboa, utzi duena. Gertatzen da urteetan zehar probintzi-erakundeei esleitutako asistentzia psikiatrikoak, alde batetik, zerbitzu lokalen aurrekontu-eskasia orokorrean murgiltzen zela; bestetik, eta aurrekoari estuki lotuta, probintzi-ospitaleek prestaturiko asistentzia psikiatrikoak probintziako behartsuei zuzentzen zitzaiela (ordainpeko sailetan izan ezik, haien bidez autofinantzaketa bilatzen bait zen), gainerakoek kontsulta edo zentro pribatuetara jotzen zutelarik, eta kostuak beren bizkar joan behar izaten zuen; azkenik, horrek ekarri zuen kasu gehientsuenetan halako osasun prestazioa kango geratu beharra Gizarte Segurantzari lotutako osasun asistentzia publikoak orohar jasan zuen eboluzio tekniko, material eta pertsonaletik. Guzti honi zor zaio hirurogeitamarren hamarkadan agertutako erabateko interesa —Administrazio Lokalak, asistentzia psikiatrikoa berritzeko asmoz, zerbitzu anbulatorio eta ospitaletik kanpokoak antolatzen hasi ziren garaian— prestazio mota hau (ospitaleratza barne, behar izanez gero) osasun sistema orokorrak bere gain hartutako eginkizunen artean egon zedin.

Ingurune normatibo honetan gertatu zen gure Autonomi Komunitatean Txosten honen hasieran aipatu den 1983ko Plan Psikiatrikoa; beraren gauzatzeko osoa Osakidetzaren eskuetan geratu zena, 1985eko martxoan herrialde historiko bakoitzak Erakunde amankomunei egindako alor horretako zerbitzuen eskualdaketen ostean, eta Osakidetzak 1990ean zehar titulartasun publikokoak ziren «modulo psikosozial» izeneko ia guztiak bereganatzeko joan ondoren; bereganatzeko horretan salbuespena izanik Bizkaiko batzuk, titulartasun pribatukoak izan arren (hala ere % 50eko finantzaketa publikoarekin, gutxi gora behera) erregimen kontzertatuan koordinatuki funtzionatzen dutenak.

### 9.2.3. Ondorioa: harrera psikiatrikoaren erantzukizuna Euskal Herriko Autonomi Komunitatean

Txosten honetan arestian agertu diren hausnarketak egitea ez zaio irrika sailkatzaile amorratu bati zor izan, ezta akademikokeria antzu bati ere, azken batean nahi zena osasun prestazio psikiatrikoaren ardura ahalik eta doitasun handienez mugatzea baizik ez bait zen. Zentzu honetan, argi geratzen da estatu-legegilearen (normalean Gorte Nagusiak; salbuespen izarez Gobernuak, Konstituzio Epaitegiaren interpretazio ezagunaren arabera) ardura gaiari aplika dakizkiokeen oinarrizko edo funtsezko arauen finkapeneran amaitzen dela —arauok funtsean Sanitatearen Lege Orokorrean (SLO)

jasotzen direlarik, zeinaren 20. artikulua (hain zuzen buru-osasunari buruzko) eta 10. artikulua (erabiltzaileen eskubideak jasotzen dituena) segituan aztertuko ditugun—, Gobernu zentralaren ardurak barne hartzen baditu ere sanitate koordinaketa (SLOren 70. artikuluak eta hurrengoek aztertzen dutena) eta goi-mailako ikuskaritza (SLOren 43. art.).

Gainerakoa, eta ez da gutxi, Euskal Autonomi Komunitatearen ardura izango da: Euskal Legebiltzarrarenak eta Eusko Jaurlaritzarenak bidezkoak gertatzen diren funtzio normatiboak (lege mailakoak eta araudi mailakoak, hurrenez hurren); Eusko Jaurlaritzarenak, era berean, ardura politiko generikoa euskal Administrazioaren zuzendaritza duenez; eta, azkenik, Osasun Sailarena eta Osakidetzarena (hartara adskribaturiko erakunde autonomoa, berezko nortasunaz hornitua), buru-gaisoen osabiderako izaera publikoko osasun zerbitzuen kudeaketaren ardura.

### **9.3. BURU-OSASUNARI BURUZKO OINARRIZKO ARAUA: SANITATEAREN LEGE OROKORRAREN 20. ARTIKULUA**

#### **9.3.1. Legearen legebiltzar sorkuntzari buruzko aipamen laburra**

Sanitatearen Lege Orokorraren artikulu bakar batek osatutako «Buru-osasunari buruz» ataleko aginduen edukina aztertu aurretik, komenigarria izango da legebiltzarretik pasatzean azaleratu ziren eta hobeto ulertzten lagunduko duten hainbat arazo gogoratzea.

Lehen-lehenik, azpimarratzeko da talde parlamentari guztien aho-batasuna Sanitatearen lege orokor batean, bereziki buru-osasunari buruzko atal bat sartzearen aukera edo egokitasunari zegokionez; desadostasunak ospitale-asistentziaren diseinuari zegokion alorrean sortuko ziren.

Diputatuen Kongresutik pasatzean, Gobernuak bidalitako proiektuaren testuak hainbat aldakuntza, ez funtsezkoak baina, jasan zituen. Interesgarriena, gure eraginetarako, izan zen lege proiektuaren defendatzailearen eta legebiltzar oposizioko ordezkariren baten artean gertatu zen eztabaidea, hondoan zegoen arazo nagusiari buruzkoa, hots, buru-gaisoen ospitaleratza bera eta ospitaleratza nola (edo, hobeto, non) egin.

Senatuan hainbat emendakin aurkeztu ziren, baina batek bakarrik segitu zuen aurrera (hain zuzen, euskal talde parlamentari batek aurkeztutako), haren helburua artikuluaren testuan haur psikiatriari eta psikogeriatriari (azken alderdi honek kezka espezifikoa bat sortu du Txosten hau lantzean) buruzko arazoen izaera berezia barnesartzea zelarik. Formula desberdinez, ospitale psikiatriko espezialduak nola edo hala mantentzera zuzendo ziren beste emendakin batzuek ez zuten aurrera jarraitu, baina horren antolakuntza-arazo garrantzitsu bati buruzko eztabaidea berrireki zuten.

Behin proiektua Diputatuen Kongresura bihurtu, honek onetsi egin zuen goi ganbaran sartutako aldaketa eta 20. artikuluaren behin-betiko testua ondoko hitzetan geratu zen:

«Buru-osasunari dagozkion iharduketak sanitate sistema orokorrean integrazio osoan eta buru-gaisoa sanitate eta gizarte zerbitzuak eskatzen dituen gainerako pertsonekin erabateko berdintasunean oinarrituz, Sanitate Administrazioek ondoko hastapenetara moldatuko dute beren iharduketa:

1. Biztanleriaren buru-osasuneko arazoaren asistentzia, komunitate esparruan burutuko da, anbulategi mailako asistentziarako baliabideak eta ospitaleratzearen premia ahal den gehienetan murrizten dituzten zatikoz ospitaleratzera eta etxeko arreta sistemak indartuz. Era berezian aztertuko dira haur psikiatriari eta psikogeriatriari dagozkion arazoak.
2. Gaisoen ospitaleratzea, beharrezko egiten duten prozesuengatik, ospitale orokoren unitate psikiatrikoetan burutuko da.
3. Buru-gaisoaren arazoaren arreta integral egoki baterako beharrezkoak diren errehabilitazio eta birgizarteratze zerbitzuak garatuko dira, gizarte zerbitzuekiko beharrezko koordinaketa bilatuz.
4. Osasun sistema orokorren buru-osasun eta arreta psikiatrikorako zerbitzuek, hauetako gizarte zerbitzuekin koordinaturik, lehen mailako asistentziaren alderdiak landuko dituzte, eta gaisoak jasaten duen osasun galearekin batera agertzen diren arazo psikosozialei arreta eskeiniko diete».

### 9.3.2. Buru-osasunaren sendabideari buruzko aginduen edukina eta eragin-eremua

Transkribatutako agindutik ondoreztatzen da Sanitatearen Lege Orokorean diseinatutako araudiak elkarren osagarri diren bi oinarritan duela funtsa: alde batetik, buru-osasunari dagozkion arazoak osasun orokorren alor zabalagoan osoki integratzea, eta bestetik buru-gaisoa, ororen gainetik, gaiso bezala aintzat hartzea. Honen bidez zera nahi da, buru-gaisotasuna —gaisotasuna den heinean— teknika eta helburu terapeutikoez tratatua izatea; horretara bereizi egiten da gizarte defentsako terminoetan definitua izatetik. Baina gainera, buru-gaisoa gaisotzat hartzeak ekartzen du, funtsean, arriskutsua izan daitekeen pertsonatzat eta, segurtasun arrazoiengatik baztertua eta alboratua izan behar duen (eta gainerako pertsonen tenutz ibili behar duten) pertsonatzat hartzeak daukan zamatik libratzea.

Oinarri hauetako ondorio garantzitsua dakarte: buru-gaisoa funtsean laguntza medikoa behar duen pertsonatzat hartzeak helburu terapeutikoa beste edozeinen gainetik jartzea inplikatzen duela. Beraz, buru-gaiso baten osabidean lehentasuna eman behar zaie alderdi terapeutikoei; gaisoa sendatzea da helburua (edo saiatzea behinik behin), ez isolatzea edo haren-gandik babestea. Bestela esanda, behin-betiko gainditu behar da pertsona arriskutsu edo ia delinkuentetzat hartua izatea; aitzitik, laguntza tekniko espezialdua eta osabide mediko egokiaren premia duen pertsonatzat hartu behar da. Honek ez du esan nahi, noski, buru-gaisoa arriskutsua izan ezin denik —besteentzat edo bere buruarentzat—, baizik eta, besterik gabe, horrek ez duela izan behar *a priori* elementu ezaugarri, definitzaile edo baldintzailea buru-gaisoak bere erkideekin dituen harremanetan.

Orain buru-gaisotasuna arautzen duten abiapuntuei erreparatzen badiegu, berehala ikusten dugu bat datozen Txosten honen hasierako komunitate-psikiatria delakoarekin, duela hamar urte Euskal Autonomi Komunitatean landutako Planaren aintzindaria zen marko teorikoarekin. Honela, lehenik eta behin arreta deitzen du ahalik eta ospitaleratze gehienetan deusztapena, halako moldez non ospitale-erregimeneko osabideak ez duen arau orokorra izan behar, salbuespena baizik. Eta bigarrenik, ospitalean sar-

tzea bidezkoa den salbuespenezko kasuetan, sarrera unitate berezietan buru beharko da, baina, hori bai, ospitale orokorretan.

Baina badira beste bi hastapen, aurreko lerroaldean aipatutako «komunitatean» egindako osabidea errealtitatean arrakastaz gauzatzeko orduan, garrantzi erabakiorrekoak direnak, eta laguntza behar duen buru-gaisoaren gizarte ingurunearekin zerikusia dutenak. Hauek errehabilitazio eta bergizarteratze zerbitzuez espreski egiten den aurrikuspenean dautza. Zerbitzu horien funtzionamendu egokirik ezean esan daiteke, zalantzarak gabe, asistentzia psikiatrikoa «komunitatean» porrotaldira doala, beste aldetik, beste herrialdeetako esperientziak frogatu duen bezala.

Puntu hau bereziki azpimarratu behar da Txosten honetan, somatu egin bait dira ospitaleratze psikiatrikozko kasu asko, utzikerian erori nahi ez bazen, barneramendu-erregimenpeko osabiderako behar mediko nahiz terapeutikorik ez izan arren, ospitaleratzea ezinbestekoa bilakatzen zutena. Arazoaren garrantziak eta Euskal Herriko Autonomi Komunitatearen antolakuntz berezitasunak hurrengo lerroaldea espezifikoki arazo honetara dedikatzea gomendatzen dute.

### 9.3.3. Asistentzia sozialaren premiazko egitura eta bere disfuntzioak Euskal Herriko Autonomi Komunitatean

Gizarte zerbitzuen behar bezalako funtzionamendua *sine qua non* gisako baldintza bilakatzen da buru-gaisoaren arreta «komunitatean» egiteko. Honekin ez gagozkie bakarrik osabide anbulatorioek ahalbidetzen dituzten eta dei genitzakeen ospitaletik kanpoko egitura terapeutikoei, baizik eta baita buru-gaisoen integrazio sozialaren aukera ematen duten beste arreta mota ugariei ere. Jadanik adierazi den bezala, proportzioan ugariak dira kasuak zeinetan gaisoa ospitaleratze erregimenpean mantentzea, ikuspegি terapeutikotik ikusita ere, kaltegarria izanik, (zeren eta, batzuetan, «ospitalismoaren sindromea» bezala ezagutzen dena agertzea bait dakar, eta honek zuzen-zuzenean ezinezkoa egiten dio berrintegratzea eta bere kabuz moldatzea), hala ere, laguntza minimoko egituren askiezak galerazi egiten duten pertsona jakin batzuk barneramendu zentroetatik kanpo bizi ahal izatea; pertsona hauei, batzuetan, ez zaie inolako osabide mediko egokirik —edo gutxienekorik (ahozko botika-hornidura simplea, adibidez)— eskaintzen, asistentzia hutsa baizik.

Behin gogoeta hau adierazirk, Txosten honetan kontsignatu beharra dago, jarraian, gaiso mota honentzako ospitale kanpoko laguntza egituren askieza begibistakoa dela, eta askieza horrek, gainera, elementu distortsionatziale gaineratu bat duela, alegia, hori konpondu beharko lukeen aginte publikoaren indefinizio erlatiboa edo, argiago esanda, ea zein Administrazioi dagokion, edo behartuta dagoen buru-gaiso mota honen laguntzarako bitarteko materialak martxan jartzera eta ondo funtziona dezaten arduratzea.

Adibidez, Txosten hau lantzeko buruturiko ikerketan somatu egin da osasun gaietan eskuduna zen Administrazioak gizarte asistentzia edo ekin-tza gaietan eskuduna zen Administrazioira bidaltzen gintuela —eta hauek ez dira bakarrik ihardutze-sail desberdinak, baizik eta, geroago ikusiko den be-

zala, erabat bereiziak—; eta beste aldetik, gizarte asistentzian eskudunza duten Administrazioek uste dute «sanitate asistentzia» arloan eskuduna den Administrazioari dagokiola aipatu egiturak ezartzea, kudeatzea eta, batez ere, finantzatzea. Gertatzen da, gainera, ez dela Administrazio bakar baten ihardutze-sailen arteko gatazka negatibozko arazo bat (zeina bion gainetik dagoen organo batek erabakitzent duenaren aurrean makurtzeko ohizko bi-detik konpon zitekeen), baizik eta, Euskal Herriko Autonomi Komunitateko esparru barruan gertatzen den aginte politikoaren eta administrazio —ekintzaren banaketa berezia kontuan hartuz, eskudunza (edo ardura) arlo honetako osasun—iharduketa Osakidetza Erakundeari dagokiola *in integrum* (eta honen Administrazio zentralari, hau da, Autonomi Komunitatearen Administrazio Orokorrari, Osasun Sailaren bidez), baina osasun—iharduketa publikoen eskudunza (edo ardura, esan dezagun berriz), foru aldundi bakoitziari dagokiola (beren hurrenez hurreneko departamentuen bidez), herrialde historikoien legetik ondoreztatzen den bezala (honen 7.c.1 artikuluak xedatzet du herrialde historikoei dagokiela Erakunde amankomunen legegintzaren exekuzioa gizarte-asistentziaren arloan, Euskal Herriko Erakunde amankomunen ekintza zuzenaren kaltetan izan gabe), eta udal mailaren zerikusia ahaztu gabe —Gizarte Zerbitzuei buruzko maiatzaren 20eko 6/1982 euskal Legeak berak hala jasotzen du espreski—, maila teorikoan behintzat, udal erakundeen finantz ahalbideak askoz apalagoak bait dira.

Ez da Txosten honen xeda eskudunza—eztabaidetan sartzea, baina bai euskal administrazioen ihardunean gertatzen diren disfuntzioak seinalatzea, oihartzuna bait du herritarrengan. Premiazkoa da, beraz, akordio bat lortzea implikaturiko bi subjektu nagusien artean —Eusko Jaurlaritza eta foru aldundiak—, buru-gaisoien laguntzarako beharrezko egitura periferikoak haien «ospitalismoa» eta marginazio soziala saihestea (edo behintzat gutxitza) ahalbidetuko duen benetako errealtitate bat izan daitezen.

## 9.4. LEGERIAK GAISOEI AITORTZEN DIZKIEN ESKUBIDEEI BURUZKO AIPAMENA

### 9.4.1. Sanitatearen Lege Orokorraren 10. artikulua

Bidezkoa da sanitate asistentziaren eremuuan espreski aitortzen diren eskubideen aipamena, laburra izanda ere, egitea. Honen funtsezko helburua da gogoraraztea arreta psikiatrikoaren beharra duen pertsona, beste edozeren gainetik, gaisoa dela, eta pertsona horrek agian adimen, borondate edo harreman-gaitasunak ukituak edukitzeak ez duela implikatu behar objektu soiltzat hartu behar denik; aitzitik —eta agian inoiz baino premia handiagoz—, pertsonatzat, eta beraz duintasun handienaren eramaletzat eta osabide psikiatrikoan ere (hainbat modulazioren premia badu ere) eskubide batzuen jabetzat hartua izan behar du.

Zentzu honetan, Sanitatearen Lege Orokorrak —beste herrialde batzuetan izandako esperientziari jarraituz, eta «Gaisoen Eskubideen Gutun» bat onestea aholkatzen zuen Europako Parlamentuaren 1984eko urtarriaren 19ko ebazpen batek markaturiko ildotik; eta lehen zaputzua gertatutako saioaren bat gaindituz (nola hala 2082/1978 Errege Dekretua, Epaitegi Go-

renak baliogabetzat joa, lanketa prozeduran ilegaltasun zehatz batengatik)—asmatu egin zuen bere 10. artikuluau sanitate prestazioei buruzko eskubide sorta bat gauzatzen. Ez da batere sobera egongo Txosten honetan gogoraztea, oso esanguratsua gertatzen delako, agindu honen barnesartza —ez bait zetorren aurrikusia hasiera batez Gobernuaren lege aurreproiektuan—Defensor del Puebloaren eskariz egin zela (eta halaxe aitortuko zen Diputatuuen Kongresuan bertan izandako izapidean).

Ez da egokia hemen SLOren 10 artikuluau aitortzen diren eskubideak eta haien hurrenez hurreneko iritsera sanitate-praxian banan-bana aztertzea; beharrezkoa da, ordea, ondoko berresatea, hots, hainbat kasutan —bereziki buru-gaisoen kasuan, noski— erabakitzeko gaitasunaren halako mugapen bat, edo are erabakiak hartu behar duen pertsonaren aldaketa bat ere, gertatu arren, subjektu buru-gaisoak eremu horretan eskubidedun izaten jarraitzen duela. Gaisotzat hartua izatea, lehen adierazi den bezala, garrantzitsuena bada, halako abiapuntuarekin gutxieneko koherentiak eremu honetan ere mantendua izatea (kasuari dagozkion abardurekin baina, batez ere onespenaren jabetzari dagokionez) eskatzen du.

#### **9.4.2. Eusko Jaurlartzaren uztailaren 18ko 175/1989 Dekretua, Osakidetzaren Gaisoen eta Erabiltzaileen Eskubide eta Betebeharren Gutuna onesteari buruzkoa**

SLOren 10. artikuluak zabaldutako ildotik, Eusko Jaurlartzak aipatu Dekretua onetsi zuen, gaisoen eskubideak jasotzen eta zehazten dituena; beraren 1.j) artikuluau aurkitzen dugu, gainera, aztertzen ari garen kasuan aipamenik, Osakidetzako gaiso eta erabiltzaileen eskubide gisa jasotzen bait da «osasun aginteeek babes diezazkienetan eskubide individual eta sozialak, eta buru-osasunezko arazoak dituzten gaisoen kasuan Espainiako Konstituzioak aurrikusten dituen terminoetan». Interesgarria da, beraz, (laburra izan arren) euskal dekretu honek jasotzen duen buru-gaisoek agertzen dituzten arazoen aipamena espreski, beren eskubide guztiak bermatzeko zentzuan, eta hori dela eta, kontuan hartu beharko da arazoa aztertzean.

#### **9.4.3. Gaiso psikiatrikoei egokitzea**

Argi dago hainbat kasutan justifikatuta egongo dela gaisoen osabideei dagozkien hainbat erabaki beren senitartekoek edo, areago, mediku arduradunek hartzea, doaktionaren ezgaitasun faktikoa gertatzen denean (SLOren 10. artikuluko 6. eta 9. zatietan espreski aurrikusitako baimenaren salbuespena). Baina horrek ez du esan nahi, lehenago adierazi den bezala, gaiso baten autodeterminazio pertsonalerako gutxieneko baldintzak falta diren agizko kasuetan ere honek gaiso bezala dituen gainerako eskubide guztiak galtzen dituenik, eta are gutxiago ospitale-langilegoaren eskuetan objektu soil bilakatzen denik.

Osasun-eskubidea sorospen-eskubide bat denez, lehenago aipatutako arauetan aitortutako eskubideek beren eraginkortasunik osoena hartuko

dute bakarrik materialki egokiak diren osasun zerbitzuen ezarpenarekin; baina beharrezko da ere ospitale-langilegoaren iharduketa egokia. Azken alderdi honi dagokionez, aski ezaguna da nolako garrantzia duten ospitale-langilego ez-medikoarekiko (gaisozainak, laguntzaileak, zelariak, etab...) harrimanek ospitaleratzetan kasuetan. Arrazoi honengatik gertatu da, Txosten honen aurrefiko ikerketan, asistentzia psikiatrikoaren prestazioan gertatzen diren alderdi material eta pertsonaletan jartzea interesa, honek baldintzatzen bait du, ez osabidearen erosotasuna edo eraginkortasuna bakarrik, bai zik eta baita gaisoen funtsezko eskubideen errespetoa ere.

Zentzu honetan, Txosten honetan insistitu beharra dago asistentzia psikiatrikoaren edozein erabiltzailek, edozein gaisok bezalaxe, dituen hiru eskubideetan, haien inguruan errutinan erori behar ez delarik. Lehenik eta behin, barnekotasun-eskubidea dugu. Egia da batzuetan gaiso psikiatrikoaren egoerak jagoletza eta arretazko hainbat neurri hartza gomendatuko duela, eta neurriok eskubide honen halako murriztapen bat ekar dezaketela, eta orobat egia da osasun zerbitzuaren prestazioaren eskakizunek eta baliabide ekonomiko eta materialen mugapenak eragotzi egiten dutela (gainerako osasun prestazioetan bezala, bestalde) ospitale-egonaldiak desiragarriak liratekeen erosotasun eta barnekotasun-eskubide maila izatea; era berean, ordea, ez da ahaztu behar ohe kopuru gehiegizkoa duten logelak ezartzeak, edo sintomatologia desberdinak dituzten gaisoak gela berean egoteak, errealtitatean eskubide honen haustea ekar dezaketela, eta hori kosta ahala kosta saihestu behar da.

Bigarrenik, konfidentialtasun-eskubidea aipatu beharra dago, honek barne hartzen duelarik bere prozesuarekin eta, SLOren 10.3 artikuluak espreski adierazten duen bezala, «sanitate instituzio publikoetan eta sistema publikoarekin lankidetzan dauden pribatuetan emandako egonaldiarekin» zerikusirik duen informazio guztia. Bere aldetik, lehen aipatutako euskal dekretuak azpimarratu egiten du bere 1.e) artikuluaren segurtatu egin behar dela «bere historia klinikoaren konfidentialtasuna, eta hura ezin izan dadila erabili, berarizko baimena salbu, sanitate-ikerketa anonimoa eta zerbitzuen kalitatearen ebaluaketa ez den beste ezein helburutarako». Kontuan hartuz gaur egun ere buru-gaisotasunak gure gizartearen duen erreputazioa, insistitu beharra dago asistentzia psikiatrikoaren esparruan —bereziki ospitale-sarrera gertatzen denean— diharduen langilego guztiak konfidentialtasuna zorrozk errespetatzearen beharrean.

Azkenik, terapia psikiatrikoa gertatzen deneko zirkunstantzia bereziek, askotan kontzientzi-aldaketekin edo ez-borondatezko erregimenpean, historia medikoa behar bezala osatzean insistitzea aholkatzen dute, bertan xehetasun guztiez sartuz erabili diren terapia guztiak. Oso beharrezko da prozesu guzti horren konstantzia idatzia geratzeko eskubidea (SLOren 10.11 artikuluak adierazten duen bezala) zorrozk errespetatua izatea buru-gaisoen kasuan, inolako gorabeherarik ezkutatu gabe eta osatzerakoan orokorkeria zehazgabearera jo gabe.

## 9.5. BURU-GAI SOEN BARNERAMENDUAREN ERREGIMEN JURI-DIKOA

### 9.5.1. Barneramenduen gutxieneko garantiei buruzkoa, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren aipamen berezia eginez

Konstituzioa indarrean zegoela, hainbat urtetan zehar 1931ko uztailaren 3ko errepublikar Dekretu ezagunak arautu zuen gai hau, ordurarte,

barneramendua medikuen edo gobernu agintearen eskuetan geratzen baitzen. Halako sistema, bere garaian aurrerapen handia ekarri bazuen ere, gaizki egokitzten zitzaien 1978ko Konstituzio testuaren garantietatik eratorritako eskakizunei, eta gainera hori aho batez aitortzen zen. Zentzu horretan, 1931ko Dekretuaren akats nabarmenena zen eskuhartze judizial era-ginkor baten gabezia buru-gaiso bati bere askatasun pertsonala kentzen zitzaion kasuetan.

Konstituzio testuan, ordea, badago aurrikuspen berezi bat funtsezko es-kubide eta askatasunen kasurako, eta komenigarria da berau aztertzea, legegileak ezarritako buru-gaisoen barneramenduaren erregimen juridikoaren ikerketa xehekatuari ekin aurretik: EKren 10.2 artikulua dugu, zeinak eskubide eta askatasun horiek Espainiak alor honetan berretsitako nazioarteko tratatu eta akordioen arabera interpretatu beharko direla adierazten duen. Bide horretatik, ordea, saihestezina da Giza Eskubideen Babeserako Europar Hitzarmenak horri buruz dioenari eta Estrasburgoko Auzitegi ospetsuak hari buruz egindako interpretazioari jarraitzea. Komenigarria da, alabaina, oso argi edukitzea —atal honen amaieran Europako Auzitegiaren Jurisprudentziaren beregaintze edo inzidentziaz egingo diren hausnarketen kaltetan izan gabe— aipatu hitzarmenak ezartzen duen babes mailak garantiazko gutxieneko izaera duela (gure kasuan, buru-gaiso baten barneramendu suposamendurako) eta, hortaz, ezertxok ere ez duela eskubide horien babes maila handiagoa bilduko duen legeri nazionala eragozten. Are gehiago, auzitegi garai honen jurisprudentziatik legeri nazionalekiko eta haren aplikazioan autoritate nazional bakoitzari dagokion erizpide-marjinarekiko errespeto argi bat ondoreztatzen da beti, eta hau ahaztea ez da komeni.

Beraz, Europako auzitegi garaiaren jurisprudentzi-praxia aztertzen hasi aurretik, adierazi beharra dago 1950eko europar Hitzarmenetik —Espainiak 1979ko irailaren 26an berretsi zuena— bere 5. artikuluak jasotzen duela aztertzen ari garen kasuari aplikatzeko zuzenena den agindua:

«1. Pertsona orok du askatasun eta segurtasunerako eskubidea. Ezin da inor bere askatasunaz gabetu, ondoko kasuetan izan ezik eta legeak ezarritako prozeduraren arabera:

(...)

e) Gaisotasun kutsakor bat heda dezakeen pertsona baten, zoro baten, alkoholiko baten, toxikomano baten edo arlo baten zuzenbidearen araberako barneramenduaz ari garenean.

(...)

4. Bere askatasunaz atxiloketa prebentiboaz edo barneramenduaz gabetzen den pertsona orok izango du organo judizial baten aurrean errekurtsoa aurkezteko eskubidea, honek epe laburrean ebatz dezan askatasun-gabetze honen legezkotasunaz eta legez kontrakoa izango balitz aske uztea agin dezan».

Europako Auzitegiak hainbat aldiz aplikatu behar izan du agindu hau, aurkezten zitzaizkion buru-gaisoen eskubide-bortxaketa kasuen salaketen aurrean. Haren doktrina ondoko epaietan aurkitzen da: 1979ko urriaren 24eko E., Winterwerp Kasua; 1981eko azaroaren 5eko E., X Erresuma Batuaren aurkako Kasua; 1984eko otsailaren 23ko E., Luberti Kasua;

1985eko maiatzaren 28ko E., Ashingdane Kasua; 1990eko otsailaren 21eko E., Van del Leer Kasua; 1990eko abuztuaren 29ko E., E. Norvegia-ren aurkako Kasua; 1990eko irailaren 27ko E., Wassink Kasua; 1990eko urriaren 25eko E., Koendjbiharie Kasua; 1990eko urriaren 25eko E., Keus Kasua; hauei gaineratu egin beharko litzainkieke 1971ko ekainaren 18ko E., Wilde, Ooms eta Versyp Kasua, buru-gaisoen barneramendua zehazki aztertzen ez zuena (arloteena baizik) baina beraren arauketak antzekotasun handia duena.

Epai hauen azterketatik ondorio aipagarri batzuk atera daitezke Estrasburgoko Auzitegiak Hitzarmenari buruz egiten duen interpretazioaz adimen-gaisoen barneramenduari dagokionez. Nolanahi ere, aldez aurretik berriro azpimarratu behar da Europako Auzitegiak kasu guztietan errespeto handia erakutsi duela barneramendua arautzen duten hurrenez hurreneko legeriekiko, eta aurkezten zitzaizkion kasuetan Hitzarmenean bildutako es-kubideak hautsiak gertatzen zirela baiezatzera mugatu dela; beste ikuspegi batetik, Auzitegiarentzat legeri nazionalaren hausketak aintzat hartzeko moduko gertatuko dira Hitzarmenaren 5. artikuluan aitorturiko eskubideen bortxaketa ekar lezaketen heinean, Hitzarmenak legera jotzen duenean («legeak ezarritako prozeduraren arabera, ikusi dugu dioela 5. artikuluak»).

Izaera oinarrizko edo nagusi ukaezina duen Estrasburgoko Auzitegiarentzat, pertsona batek bere borondatez askatasuna ken dakion prest da goenean ere, askatasun horrek garrantzi handiegia du —bere hitzak dira-pertsonak, horrelako kasuetan ere, Hitzarmenaren babesaren onura gal dezan. Baieztapen hau zuzenean egokitu dakioko aztertzen ari garen kasuari, eta zer esanik ez buru-gaiso baten barneramendua borondatezkoa izatetik ez-borondatezko bihurtzen den suposamenduetan.

Gainera, Hitzarmenaren 5.1 artikuluko askatasun-mugapenezko agizko kasuak modu hertsian interpretatu behar dira. Interpretazio-hastapen hau aztertzen ari garen kasuari aplikatuz, Auzitegiak adierazia dauka aipatu aginduko e) lerroaldeak ez duela pertsona baten barneramendua baimentzen bere ideiak edo portaera gizarte jakin baten gehiengoaren arauetatik aldentzen delako bakarrik.

Premisa hauetatik abiatuz, eta Hitzarmenak «zoro» kontzeptuaz zer ulertu behar den jasotzen ez duela baieztautu ondoren, kontzeptua aldaga-rria izanik, gutxieneko betebehar edo baldintza batzuk bete behar dira buru-gaiso baten barneramenduari ekiteko haren askatasuna gordetzeko ezarri-tako garantiak hautsi gabe. Betebehar hauek, Auzitegiarentzat, ondoko lauok dira: a) Urjentiazko suposamenduetan izan ezik, buru-besterrantza era komentzigarrian justifikatu edo frogatu behar du barneramenduari ekin aurretik, eta honek aginte eskudunaren aurrean erizpen aditu mediko objektiboa eskatzen du dekretatu ahal izateko; b) buru-nahasteak barneramen-du-neurria justifikatzeko moduko ezaugarriak eta hedadura izan behar du; c) barneramendua ezin da balioz luzatu aipatu nahasteak bere horretan ez badirau; eta d) buru-gaiso baten askatasunaz gabetzea «erregularra» izango da, Europar Hitzarmenaren arabera, ospitale, klinika edo horretarako aproposa den beste egoitzaren batean barneratzearen ondorioz gertatzen bada bakarrik.

Procedura honek inguruau izan behar dituen garantiei dagokienez, Auzitegiak bainbat alderdi interesgarri aipatu ditu. Adibidez, Hitzarmenaren 5.1

artikuluak ezarritako betebeharri dagokionez, alegia askatasunaz gabetzea «legeak ezarritako prozeduraren arabera» burutu behar dela, hurrenez hurrenko legeri nazional edo propialaz ari da, eta hori errespetatu egin beharko da. Halako barne-Zuzenbidea, haatik, Hitzarmenari egokitu behar zaio, eskakizun horren barnean Hitzarmenaren hastapen orokor esplizito nahiz inplizitoak sartuz; zehatzago esanda, «procedura bidezko eta egokia» errespetatu behar da, barneramendu-agindua «autoritate egoki» batek ebatzi eta burutu behar du eta, azkenik, neurri «ez arbitrarioa» izan behar du.

Ildo honetatik, kasu batean buru-gaiso baten barneramenduari Hitzarmenaren 5. artikuluko 2. lerroaldiiko garantia («atxilotekaren zioak» eta «edozein salaketa» jakiteko eskubidea) aplikagarritzat hartzeraino iritsi da kontu egin, hasiera batean garantia, hitzez-hitzezko terminoetatik ondoreztatzen den bezala, jatorri penaleko askatasun-gabetzeetarako pentsatuta zegoela, doakionak bere askatasuna modu eraginkorrezz defendatu ahal izateko helburu argiaz.

4. zatiko garantiari dagokionez («organo judizial baten aurrean errekurtsoa aurkezteko eskubidea»), Auzitegia ez da iritsi aurretiko (edo *a posteriori* gisakoa, urjentziazko kasua izango balitz) partehartze judizial eskusaezina bezala interpretatzera —egia esan, Hitzarmenaren testutik ez bait da halakorik ondoreztatzen, baizik eta, era mugatuago batez, organo judizial batek barneramendu neurri baten legezkotasuna baiezttatzeko aukera bezala. Zentzu horretan, zehatzua dauka beharrezkoa dela doakiona organo judizial baten aurrean aurkeztu ahal izan dadila, eta pertsonalki edo, bere kasuan, ordezkaritza motaren batez, entzuna izateko aukera izan dadila; konkretuki, buru-gaiso baten barneramenduaren kasuan eskubide honetaz baliatzeko modua mugatu edo aldatu ahal izango da, baina ez erabat ezabatu. Hori bai, hurrenez hurrenko legerian ezarritako prozedura mota medio barneratzeko erabakia organo judizial batek hartzen badu, garantiaz beteriko benetako prozedura judizial batez, orduan, argi dago, Hitzarmenaren 5.4 artikuluko aurrikuspen hau bete egin da, eta beraz ez da beharrezkoa partehartze judizial berri (bestelako) bat.

Baina oraindik aipa daiteke Europako Auzitegiak honi buruz egindako beste zehaztapenen bat. Adibidez, pentsa liteke agindu horretan jasotako berrikuspen judizialaren garantia hau bete egiten dela doakionak *habeas corpus* errekurtsoa tartejartzen baldin badu. Suposamendu honetan, Auzitegiak uste du baietz, barneramendu laburren kasuetan, prozedura honek ordeztu egin dezakeela Hitzarmenean aurrikusten dena, baina barneramendu luzeen hipotesian ez da nahikoa, *habeas corpus* bidetik kontrol judiziala kogniziozko termino hertsietan gertatu behar delako.

Beste aldetik, Hitzarmenak buru-gaiso baten barneramenduaren partehartze judizial gainbegiratzairen hau gertatzeko aipatzen duen «epe laburra» Auzitegiak interpretatu du kontuan hartuz, jakina, kasu zehatz bakoitzeko zirkunstantziak, baina uko egin gabe horregatik —alderantziz— hura esijitzeari edo, kontrako kasuan, organo judizial eskudunak errespetatu ez due-la egiaztatzeari, honen ondoren Hitzarmeneko garantia bete ez delako aitorpenarekin.

Oraindik Hitzarmenaren 5. artikuluko 4. lerroaldiari dagokionez, Auzitegiak adierazi du halaber legeri propialak barneramendu-egoeraren mantenduaren egokitasuna aginte judizialak noizean behin automatikoki

berrikus dezala xedatzen ez duenean, doakionak babes judizial honen eskaera birraurkez dezakeela «zentzuzko tarteka» denboran, baita barneramendurako lehen erabakia organo judizial batek hartu izan balu ere, hura sortu zuten zioak agian desagertu direlako.

Gainera, Hitzarmenaren 5.4 artikuluaren jasotako garantia judizial hau «errebedlia» kasuetarako edo doakionak ihes egin duen kasuetarako erabakitako barneramendu-aginduetan ere mantendu egiten da.

Azkenik, badago buru-gaiso batzen barneramenduarekin lotura zuzena duen beste alderdi bat, alegia, bere ondasunak administratzeko gaitasun-gabetzearena; hau ere Europako Auzitegia zehazten arduratu da Hitzarmenaren 6.1 artikuluaren esparruan, zeinak garantizatu egiten duen pertsona orok daukan eskubidea «bere kausa Legez ezarritako auzitegi independente eta inpartzial batek entzun dezan era ekitatezko eta publikoan eta zentzuko epe batean, auzitegi honek erabakiko duelarik pertsona honen izaera zibileko eskubide edo betebeharren gaineko edo bere aurka zuzendutako edozein salaketaren funtsari buruzko auzietan (...).» Orduan, Auzitegiarentzat buru-gaiso bati bere ondasunen gaineko administrazio-eskubideaz gabetzea Hitzarmenaren 6.1 artikuluak babesturiko eskubideen kaltetan izan gabe burutu behar da, era horretara bereizgarriak edo desberdingarriak izango dira barneramenduzko garantiak eta mota honetako gabetzearen aitzkako garantiak, lehenak ez bait dira nahikoak bigarrenak garantizatutzat hartzeko.

Beraz, behin Txosten honen eraginetarako interesgarrienak diren alderdiak adierazi ondoren, geratzen den gauza bakarra da ikustea ea zer aztarna utzi duen Europako Auzitegiaren interpretazio honek Europako Kontseiluaren Ministrari Batzordeak 1983ko otsailaren 22an buru-nahasteek jotako eta ez-borondatzeko gaiso bezala barneratutako pertsonen babes juridikoari buruz emandako 2/83 Gomendio garrantzitsuan. Izan ere, Europako Kontseilukideak diren Estatuen Gobernuei zuzendutako gomendio honek, Europako Kontseiluaren Biltzarraren 818/1977 Gomendioaren jarraipen gisa aurkezten dena —eta nahita «buru-gaisoak» expresioa saihesten duena, haren ordez «buru-nahasteek (disorders, troubles) jotako pertsonak» erabiliz—, honakoak ditu puntu nagusiak:

1. Balio moral, sozial, politiko etab. nagusietara moldatzeko zaitasunak ez dira besterik ezean buru-nahastetzat hartu behar eta beraz ez dute barneratzea justifikatzen. Moldagaiztasuna —azaltzen da Zio Agerpenean— buru-perturbazioaren sintoma izan daiteke, baina sintoma horregatik bakarrik (hau da, haren batera buru-nahastea izatea, zientzia medikoaren parametroen arabera, ondoreztatzea ahalbidetzen duten beste elementurik ez badago) barneratzea ez dago justifikatuta.

2. Barneratzea gertatuko da beste edozein aukerako osabiderik ezean bakarrik. Barneramendura jotzea azken erremedio bezala bakarrik dago justifikatuta.

3. Ez-borondatzeko barneratzea justifikatzen duten agizko kasuak bidera:

a) Bere buru-nahastearen kariaz bere buruarentzako edo hirugarren batentzako arrisku larria ekartzen duenean. Gomendioaren testuari erantsitako Zio Agerpenaren arabera, «arrisku» hitza ez dagokio bakarrik uneko arrisku bati, baizik eta baita sinesmen medikoaren arabera aurrikustea zen-

tuzkoan den etorkizuneko arriskuari ere; eta ondasun edo objektu materialetan suntsiketak, muga-kasuetan, besteenganako jarrera arriskugarrietara jotzeko gerta litekeen arriskua adieraz dezake.

b) Bere buru-perturbazioen larritasuna medio barneramendu-ezak gaisoaren egoeran mendekatze bat sortzen duenean edo osabide egokia hornitzea ahalbidetzen ez duenean. Kasu honetan jokoan dagoena doakionaren osasuna da esklusiboki.

4. Barneratzeko erabakia organo judizial batek edo Legeak seinalaturiko beste autoritate egokiren batek hartu behar du. Azken kasu honetan, hau da, erabakia autoritate judizialarena berarena ez denean, independenzia eta organo judizial baterako sarbidea segurtatzen duten garantia sorta bat ezarriko da.

Barneramendua organo judizial batek erabakitzentzu duenean —gure Zubenzidean oraingo sistema dena—, gaisoari bere eskubideei buruzko informazioa eman behar zaio eta Epaileak aurrez aurre entzun diezaiotzera aukera erreala eta benetakoa izan behar du, hark, gaisoaren egoera ikusiz, ordezkaritza motaren batez entzutea erabakiko balu salbu.

Barneratzerako agindu judizialak helegingarria izan behar du eta gaisoari jakin erazi behar zaizkio barneramendu-erabakiaren aurkako errektsoez eta, nola berak hori erabakiko balu hala Epaileak berak bidezkotzat jotzen badu, hirugarren baten aholkularitzaren onuraz baliatu ahal izango da.

5. Larrialdi kasuan gaiso bat hartu ahal izango da mediku batek hala erabakita, baina honek berehala jakin erazi beharko dio epai agintaritzari, eta honek ebatziko du auziari buruz.

6. Tratu deontologiko, zientifiko eta baita materialaren baldintzek gainerako gaisoenekin erkagarriak izan beharko dute. Bereziki daukate osabide eta zainketa egokiak hartzeko eskubidea, honek esan nahi duelarik barneramendua ezin dela ezein kasutan izan gaisoaren isolamendu hutsezko neurria.

Burmuiñearen kalte konponezinen edo gaisoaren nortasunaren endekatzearen arriskua dakarten esperimentuzko osabideak hornitu ahal izango dira bakarrik ezinbestekoak gertatzen badira eta gaisoaren aurretikoen onespenn informatu espresarekin; eta hau osabidearen iritsera ulertzeko egoeran ez dagoenean, medikuak arazoa legeak izendaturiko agintari independente baten menpe jarri beharko du, honek gaisoaren legezko ordezkariari, halakorik balego, entzungo diolarik.

Era berean debekatuta geratzen dira helburu ez-sentatzaleko aproba klinikokoak honelako gaisoekin; beraz, haien onesprena, eragin hauetarako, juridikoki baliogabe eta eraginkortasun gabekoa izango da.

7. Bere borondatearen aurka barneratutako gaiso bat ezar dakizkienean mugapenei dagokienez, hauek ezingo dira bere osasun egoera eta osabidearen efikazia bermatzeko behar direnetik harantzago joan. Zehatzago esanda, ezin dira inondik inora ere mugatuak edo murriztuak izan: a) agintaritza egokiarekin (osasun-agintaritza, judiziala... izan daitekeelarik), abokatu batekin edo aholkuak eman diezazkion pertsonarekin —4. puntuaren aipatu denarekin— komunikatzeko eskubidea; b) irekiko ez zaizkion gutunak kanpora bidaltzeko eskubidea.

8. Gaiso bat zentro batetik bestera eramana izan daiteke terapi interesarrentzat bakarrik eta, ahal den neurrian, bere nahien arabera.

9. Barneramendua iraupen mugatua izan behar du edo, gutxienez, beronen premiak tarteka birraztertua izan behar du. Zio Agerpenean azaltzen den bezala, barneratze-erabakiak amaiera bat adierazi behar du, baina ez bada hala egiten, edo legean iraupen mugatu hori ezartzen ez bada, barneramendua baimendu zuen autoritateak aldika *ex officio* berraztertu beharko du haren beharra.

Era berean, barneramenduan zehar gaisoak, zentzuzko denbora tarteetan, autoritate judizialari barneratua segitzeko beharrari buruzko erabaki bat eskatzeko aukera izan behar du.

10. Barneramenduauren amaiera aurretik finkatutako epemuga baino lehenagoko edozein unetan gerta daiteke procedura berezirik gabe, medikuaren erabakiaz edo lurralteko bakoitzeko legeriaren arabera autoritate esku-duna denaren erabakiaz; beren kabuz edo gaisoak edo doakion beste pertsonaren batek hala eskatuta.

Barneramenduauren amaierak ez dakar derrigorrez osabidearen amaiera, honek borondatezko erregimenean jarraitu ahal izango duelarik. Honen bidez bi gauza jarri nahi dira agerian: gaisoaren irteera ez dagoela erabateko sendatzeari baldintzatuta eta azpimarratu behar dela, ahal den guztietan, mediku eta gaisoaren artean ezartzen diren harremanak borondatezkotasunean egon behar dutela oinarrituta, ez inposaketan.

11. Barneramendua ez du berez izan behar gaisoaren gaitasun juridikoaren murriztapenerako arrazoia. Gerta daitekeen gaitasun-gabetzeak —azaltzen da Zio Agerpenean— Auzi-Zuzenbidearen erizpide eta prozeduren arabera burutu beharko da.

Alabaina, barneratzea erabakitzuen duen agintaritzak gaisoaren interes materialak zaintzeko neurri egokiak hartu beharko ditu edo bestela esku-dunari jakin erazi, bera eskudun ez balitz, era horretan egin dadin.

12. Zirkunstantzia orotan errespetatu behar da gaisoaren duintasuna, eta haren osasuna babesteko neurri egokiak hartu behar dira. Gaisoaren duintasuna «zirkunstantzia orotan» babestu behar dela dioen zehaztapena-ren ondorioa da, Zio Agerpenaren arabera, abiaburu hori errespetatu behar dela ez bakarrik barneramenduan zehar, baizik eta baita gainerako fase edo uneetan ere (bere garraio edo gidaketa materialean, epai-procedura, etab.). Osasunaren aipamenak ez du buru-osasuna bakarrik barne hartzen, era zabalagoan gaisoaren osasun orokorra baizik.

13. Gomendio honen arauek gutxieneko izaera dute, Estatu bakoitza buru-nahasteagatik barneratuak diren pertsonen legebidezko babeserako xedapenak emateko askatasunean geratzen delarik.

Bidezkoa gertatzen zen Txosten honetan, edozein akademikokeria antzutik urrun, europar instantzia gorena hauetan taituturiko lanketa hauetan bilteza. Horretarako hainbat zio badaude. Lehenik eta behin, gero eta indar handiagoz sortzen ari delako —eta Euskal Autonomi Komunitatea *ez da* bazterrean geratuko— *ius commune* europar gisako bat, benetako lege-on-dasun bat, Europako herritar desberdinenzat amankomuna, baina oinarrizko eskubideen arloan. Eta horri dagokionez, adierazi beharra dago Estrasburgoko Auzitegiak burututako interpretazioa ere (oinarrizko eskubideek duten hedatze-indarraren adierazpen berri batean) azkenegan sartu egiten dela —hau ere, funtsean, jurisprudentzia bideetatik, hau da, Luxemburgoko Auzitegiaren lanaz baliatuz— Zuzenbide komunitarioan. Oinarrizko eskubi-

deen babesak bidea zabaldu du, neke handi edo txikiagoz, EEEko herien auzi-Zuzenbidean halako Zuzenbide supranacionalaren hastapen orokor funtsezkoa bezala, eta haren edukinaren beregaintza egitez formalki burtu ez bada ere (joan den hamarkadaren bigarren erdian burututako saioak eta guzti), Europar Elkarteen Justizi Epaitegi Gorenaren sorkuntzaren bidez baizik. Elkarteko kide guztiak Hitzarmenaren eta Estrasburgoko Auzitegiaren menpe egoteak, eta ondasun hori auzitan jarri ezin edo behar ez dela-kontzentzia esplizitoak dakarte, adierazi den bezala, benetako europar *ius commune* baten aurrean egotea, ereferentzia hori erabat egokia delarik Erakunde honentzat ere.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren lanak, erabaki arranditsurik gabe —eta are gutxiago boluntarista hutsak edo erabakikeria arriskutsuaz biziaturu—, ñabardura aberatsak erakutsi ditu buru-gaisoen askatasunaren benetako babesari dagokionez, eta azaldu du halaber duen kezka nabarmena benetako berme judicialari buruz, kasu hauetan ere derrigorrezkoa dena.

Guzti hau termino juridiko-formaletara itzulita, lehenago ere aipatu den bezala, EKren 10.2 artikuluaren bidez (agindu hau oinarrizko eskubideei dagokien Konstituzioaren tituluari sarrera ematen dion atarian kokatzen da), Europako Auzitegiaren jurisprudentzia alor honetako barne-Zuzenbidearen zati bat bilakatzen da. Egitez, eta orain alde batera utz daitekeelarik Europako Auzitegiaren erabakiaren exekuzioari buruz berriki izandako polemika —Konstituzio Epaitegiaren abenduaren 16ko 245/1991 Epaian isladatua (botu partikularrak barne)—, gure Konstituzio Epaitegiak askotan eta askotan erabili izan du Europar Hitzarmenaren interpretazio-jurisprudentzia, azertzen ari garen gaia barne. Izan ere, ekainaren 8ko bere 112/1988 FJ 3 Epaian (Txosten honen hurrengo atal batean jasotzen dena), auzitegi garaia oihartzundu egin du lehenago aipaturiko 1979ko urriaren 24eko (Winterwerp Kasua), 1981eko azaroaren 5eko (X Erresumaren aurkako Kasua) eta 1984eko otsailaren 23ko (Luberti Kasua) epaietan finkatutako doktrina, eta honetaz baliatu emakumezko buru-gaiso bati babes emateko. Era berean, ekainaren 4eko 104/1990 FJ 2 Epaian, Konstituzio Epaitegiak berriro ere jo du 1979ko urriaren 24eko (Winterwerp Kasua) eta 1985eko maiatzaren 8ko (Ashingdane Kasua) epaietan jasotzen den Europako Auzitegiaren buru-gaisoen barneramendu-bermeei buruzko doktrinara.

Ikusten dugu, beraz, nola Europar Hitzarmenak biltzen duen oinarrizko eskubideen gutxieneko babes-eredu bat, kasu guztietan derrigorrez errespetatu beharrekoa, eta nola, gutxieneko garantia amankomun izaera horretaz gain —espreski jasoa Europar Hitzarmeneko bertako 60. artikuluan («Oraingo Hitzamen honen xedapenetako ezein ez da interpretatuko edozein alderdi kontratatzale gorenen legearen arabera edo hura zati den beste edozein hitzarmenetan aitorruak izan litzkeen giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak mugatu edo kaltetzeko zentzuan»)—, horri buruz Europako Auzitegiak duen interpretazioak eragin handia duen konstituzio bermeetarako organo gorenearan, oinarrizko eskubideei dagokienez benetako *auctoritas* izanik.

Baina Europako Auzitegiaren zereginak beste gogoetaren baterako bidea ematen du. Lehenik, nabarmendu egiten du auziaren garrantzia eta gainera, hastapen juridiko sendoetatik abiaturuz nabarmendu; hau da, arazo

«tekniko» hutsa edo «espezialista» medikoek bakarrik konpondu beharrekoia izan ordez –horien eritza, begibistakoa da, erabakiorra gertatuko delarik–edo, bestela esanda, arazo arautugabea edo arau juridikoetatik urruna izan ordez, aitzitik, buru-gaiso baten barneramendua askatasun-gabetze generoaren (beste batzuen arteko) espezie bat da eta, beraz, (kasuak eskatzen dituen espezifikotasunak eta guzti), betiere jarriko dira jokoan gertakizun horretarako izaera orokorrean xedatutako garantiak, besteen gainetik berme judiziala nabarmentzen delarik.

Alabaina, hau garrantzitsua izanik ere, oraindik eman gabe dago Txosten honetarako garrantzi handiena duen eta Europako Auzitegiak, askatasunaren babesaren alderdi honi bakarrik helduz, hots, Hitzarmenaren 5. artikuluan jasotakoari, eman ez duen urratsa, lehenago aipatu gomendioan jasota bazegoen ere. Urrats hori da buru-gaiso baten barneratzeari jarraitzen dion osasun prestazioaren alderdia. Izan ere, lehen adierazi da buru-gaiso baten barneramendua bakarrik legezkotzen dela hau ospitale edo antzeko zentroren batean burutzen bada; hala ere, Europako Auzitegiak –era-gindako pertsona batek hari buruz egindako alegazio jakin baten aurrean– ondoren gaineratu zuen «aurreko guztiaren kaltetan izan gabe, osabide edo erregimen egokia ez dago, hasiera batez, 5.1 artikuluko e zatian sartuta» (1985eko maiatzaren 28ko E., Ashingdane Kasua). Interpretazio murriztaile hau bere termino zuzenetan ulertu behar da, eta hori Hitzarmenaren 5.1.e) artikuluaren *ratione materiae* berezko mugapena besterik ez da; hau da, aipatu aginduaren funtzionaltasuna barneratzearen helburu egokia segurtatzean amaitzen dela, eta besterik ez. Hala ere, gure artean arlo hau arautzen duen esparru normatiboaren multzotik beste urrats bat eman daiteke eta, Txosten honen eta lortu nahi duen helburuaren eraginetarako, baiez-tatu behar da buru-gaiso baten barneramenduaren zuzentasunak ez dituela barne hartzen haren ospitaleratzearen hasierako uneetan hartu beharreko garantiak bakarrik (EKren 17. artikuluan jasotako askatasun pertsonalerako oinarrizko askatasuna gordetzen zuzendurikoak), baizik eta baita –eta indar berezia jarri behar da horretan– egonaldian zehar eta asistentzia psikiatrikoari dagozkion zerbitzuen erabilpenekoak ere. Erakunde honentzat ezingo litzateke inoiz nahiko izango buru-gaiso baten barneratza irudika daitezkeen garantia guztiekin prestatu ondoren, behin zentroan sartu ondoren bere gainerako eskubideak ahaztu egingo balira edo osasun soroz-pena kalitate onartezinekoia izango balitz edo bere bizi-baldintzak askiezak eta duntasun gabeak balira.

Zentzu honetantxe, adierazi behar da jada buru-gaisoen barneramendurako oinarrizko edo funtsezko esparru normatiboa (ondoko zatian hitz egingo da legeri konkretuaz) bi arau blokek edo motak osatzen dutela: a) alde batetik, oinarrizko eskubide edo askatasunak garantizatzen dutenek, besteak beste, eta nabarmenkiro, EKren 17. eta 24. artikuluek, EHAERen 9. artikulua ere ahaztu gabe; b) bestetik, EKren 43. artikuluak, batez ere haren bi lehen zatiek, eta baita EKren 49. artikuluak ere.

Beraz, Erakunde honek orain aldarrikatu eta gogoratu behar dituen bi eskakizun nagusi dira barneramendurako garantiak eta prestazio psikiatrikoaren maila egokiak.

## **9.5.2. Buru-gaisoen barneratzeari egokigarri zaion legeria**

### **9.5.2.1. Sarrera**

Orden konstituzional berritik azken batean eratorritako eskakizunak ikusiz, batez ere askatasunaren berme judzialari dagozkionak, ez da batere harrigaria espezialisten —nola tratadisten hala epaile zein fiskalen— artean honi buruz berehalako lege-zuzenketa bat erreklamatzen zuten ahotsak altxatzea. Zuzenketa hau 1983an gertatu zen, Kode Zibilaren aldaketaren formapean, eta horretxe osatzen du izaera orokorrez ezarrigarria den legeria. Baino haren azterketari ekin aurretik bidezkoa da ohar bat lege-haustezko iharduketa bat gertatzen deneko buru-gaisoen barneratze batzuei buruz, zigor-legeriaren arabera burutzen direnak.

### **9.5.2.2. Zigor-legerian oinarrituz buruturiko buru-gaisoen barneratzeari buruzko hausnarketa labur bat**

Mugapen instituzionalek (Ararteko Legearen 1 eta 9 artikuluak) derri-gortuta, zati honetan aztertu beharko ditugu soil-soilik —harik eta EHAERen 10.14 artikuluak aipatzen duen eskumena (espetxeak eta bergizarteratze erakunde eta etxeak) gauzatzeko behar diren bitarteko pertsonal eta materialen benetako transferentzia Euskal Herriko Autonomi Komunitatera geratzen den arte— zigor-legerian (edo penitentziarioan, bere kasuan) oinarrituriko barneratza euskal osasun Administrazioko zentroren batean burutzen diren suposamenduak.

Jakina den bezala, ekintza deliktibo bat burutu duten buru-gaisoen kasuan (edo espetxean dauden bitartean gaisotasuna hartzen dutenen kasuan) legeri penalak —sustantiboak edo adjetiboak— xedatutakoak agintzen du, batez ere Kode Penalaren 8. (1983an erreformatua) eta 82. artikuluek, Juitzionamendu Kriminaleko Legearen 991. eta hurrengoek eta Espetxe Araudiaren 57. eta 58.ak; arau hauen aplikazioak batzuetan pisu handiko arazoak sortzen ditu, baina Txosten honetan haien aztertza ez da egokia. Hala ere, adierazi beharra dago, lehenik, buru-gaisotasun baten esistentziaren datuak, egozgarritasun penalaren esparruan duen eraginaz gain, badaukala eta eduki egin behar duela islada argi bat espetxe Administrazioak, edo bere kasuan sanitarioak, pertsona hori tratatu eta aintzat hartzeko moduan. Eta alderdi hau era berezian interesatzen zaio Erakunde honi. Zentzu horretan, bi oharpen mota azpimarratu behar dira etengabe:

A) Deliktibotzat har daitekeen ekintza bat burutu duen buru-gaiso bat izateak ezin du ekarri lehen konsiderazioa bigarrenaren gainean erabat inposatzea. Horrek behartzen gaitu gaisotasun hori ahal den modurik eragin-korrenea aurre egingo dien bitarteko sorta bat hartzen, beste alderdi batzuk ere, noski, ahaztu behar ez badira ere, eta honek ekartzen du orekaren beharra —egia esan, askotan lortzen zaila— iharduketa terapeutikoen eta beste konsiderazio batzuen, funtsen, segurtasunezkoen, artean.

B) Konsiderazio juridikoen artean, azpimarratu egin behar da buru-gaisoentzat jarritako garantiak ez direla erabat desagertzen ekintza deliktibo bat burutu dutelako, baizik eta, haietako batzuk behin, esparru ho-

netan aplikagarriak izaten jarraitzen dute, Konstituzio Epaitegiak berak garbi-garbi aplikatu duen bezala bere ekainaren 8ko 112/1988 Epaian. Izan ere, erabaki honen FJ 3an ondokoa adierazten da hitzez-hitz:

«Eragin horietarako abiapuntutzat hartu behar da, Epaitegi honen maiatzaren 18ko 16/1981 Epaiai jarraituz, barneramendu judiziala ospitale psikiatriko batean, epai penalez xedatuta Kode Penalaren 8.1 artikuluuan zehazturiko kasu eta formetan, ez dela, hasiera batez, Konstituzioaren 17. artikuluak aitortzen duen askatasunerako eskubidearen aukakoa. Baina, bere bigarren lerroaldian barneratze horretatik epaia eman duen auzitegiaren aurretiko baimenik gabe ezingo dela irten ezartzean, aipatu artikuluak ez du kantsagratten denbora mugagabeko balizko askatasun-gabetze bat eta betiere epailaritza sail eskudunaren eskumenean. Askatasun-gabetze honek aipatu oinarrizko eskubidearen babesak eskatzen dituen garantiak errespetatu behar ditu, garantiok Espainiak alor honetan berretsitako nazioarteko tratatu eta akordioen arabera interpretatu behar direlarik (EKren 10. art.), eta zehazki Giza Eskubideen eta Funtsezko Askatasunaren Babeserako Hitzarmenaren arabera. Eta honi dagokionez, beharrezko da gogoratzea zoro batzen barneratzearen legezkotasunak, Hitzarmenaren 5.1.e) artikuluuan espreski aurrikusia, urjentzia kasuan salbu, hiru gutxieneko baldintza bete behar dituela, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak 1979ko urriaren 24eko bere Epaian (Winterwerp Kasua) artikulu hori interpretatzean adierazi duenaren, arabera. Baldintza hauek ondokoak dira: a) Era komentigarrian frogatu izana doakionaren buru-besterentzea, hau da, frogatu izana agintaritza eskudunaren aurrean, erizpen aditu mediko objektibo baten bitartez, buru-perturbazio erreal bat dagoela; b) perturbazio hori barneramendua legezkotzen duen izaerakoa edo hedadurakoa izatea; eta c) kontuan izanik hasiera batean erabaki hau zuritu zuten zioak agian desagertu egin direla, aztertu behar da ea perturbazioak bere horretan dirauen eta honen ondorioz barneramendua jarraitu behar duen gainerako herritarren segurtasunaren interesean, hots, ezin dela barneramendua baliozko moduan luzatu, hau sortu zuen buru-nahasteak irauten ez duenean. Doktrina hau berretzia izan da ondoren, 1981eko azaroaren 5eko (X Erresuma Batuaren aurkako Kasua) eta 1984eko otsailaren 23ko (Luberti Kasua) epaietan, epaiok delinkuente zoroak ospitale psikiatrikoetan barneratzea erabakitzenten duten zigor judizialen suposamenduei —aztertzen ari garen kasuan bezala— dagozkielarik.

Aipatu baldintzek garantizatzen dute barneramendua arbitrarioa ez gertatzea, eta aurrikusia izan zeneko xede objektibori erantzutea: somatutako buru-besterantzeari lotuta doan arriskugarritasun sozialeko egoerak iraun dezan saihestea alegia, egoera hori agerian jartzen duelarik, Kode penalaren 8.1 artikuluko bigarren lerroaldiak arautzen duen suposamenduan, legeak delitu gisa zigortzen duen egite bat burutzeak.

Beharrezkoa gertatzen da, beraz, EKren 17.1 artikuluak —askatasuneko arau orokorrari eginiko edozein salbuespen modu hertsian interpretatze-

ra behartzen duenak— kontsagraturako funtsezko eskubidea betetzearen, barneramendua bertan behera uztea, beharrezko baimena emanet, sendaketa edo arriskugarritasun egoeraren desagerpena jasota geratzen denean. Barneratuak etorkizunean portaera sozialki kaltegarri bat eramango ote duenari buruzko epaia, eta baita gaisotasunaren atzeratze-mailari buruzko komentzimendua, Auzitegi penalari dagozkio; honek, tarteka egindako kontrolen bidez, frogatu beharko du barneratze erabakia ekarri zuten arrazoia gertatzen jarraitzen duten ala ez. Bainaz gain arren dagokion erabakia hartzerakoan organo judiziala ez dagoela automatikoki lotuta haren alde jaulkitako txostenekin, bere desadostasunak, zalantzarak gabe, ziorik izan behar du, neurriaren iraunkortasuna arbitrio edo boluntarismo judizial soil batzen ondorioa bezala agertzea saihestearren, eta frogatzera mota objektigarriren batean oinarritu beharko du zeren eta, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren doktrinari jarraituz, aipatu barneramendua ezin bait da luzatu legez-kotzen duen buru-nahasteak, izaerak eta hedadurak irauten ez badute.

Azpimarratzeko da, honi dagokionez, Kode Penalaren 8.1 artikuluan idazketa berriak ahalbidetu egiten duela hartzen diren segurtasun neurriak gaisotasunaren atzeratze-mailari moldatzea, aurrikusi egiten bait du bere hirugarren lerroaldian, ekainaren 25eko 8/1983 Lege Organikoak gaineratua, Auzitegi epaiemaileak barneramendua beste neurri mota batez ordeztu dezakeela, haien artean «osabide anbulatorio baten menpe jartza», zoroa tratatzen duten medikuen txostenen eta agintzen dituen bestelako iharduketen emaitzaren aurrean, gehiketa honek zigor askatasun-gabetzai-leek eta segurtasun neurriek xedetzat izan behar duten bergizarteratze helburuari erantzuten diotelarik».

Kontsiderazio hauen aurrean, auzitegi garaiak gogoeta egiten du emakumezko buru-gaiso baten barneramendua jarraitzeko ebauden judiziala ez dela konstituzionala «bere garaian barneratze neurria hartza justifikatu zuen buru-besterentzearen iraunkortasunari, edo besterentzearen izaera eta hedadurari, edo hartatik erator daitekeen arriskugarritasun kriminaleko egoerari buruzko beharrezko aipamenik gabe; eta beste aldetik, ez ditu aintzat hartzen errekurritzailea tratatzen ari diren medikuen erizpen errepikatu eta uniformeak». Jarraian argudiatuz, «auzitegi penalak aipatu txostenen edukina eta ondorioekin desadostasunean 'egon bazitekeen ere, motibazio espresaz eta modu justifikatuaz egitera behartuta zegoen, beste aditu-txosten batuetan oinarrituz, errekurritzailearen ordezkaritzak berak eskatutako txosten hauek egitea erabaki zezakeelarik. Hala ez egitean eta errekurritzaileari inposatutako barneramendua mantentzean haren buru-egoeraren bilakaera positiboa eta ondoko arriskugarritasun kriminalaren gabezia adierazten zuten erizpen mediko errepikatuak aintzat hartu gabe, urratu egin du Kode Penalaren 8.1 artikulua, zeinaren zentzua eta iritsera Konstituzioaren arabera interpretatu beharra dagoen, eta haren askatasunerako eskubidea, bertako 17.1 artikuluak aitortua, kaltetu egin du» (FJ 4).

Aurreko guztia adierazi ondoren, berriro ere aipatu beharrezkoak dira somatutako eta Txosten honen lehen zatian jasotako bi disfunktionaltasunak. Lehenik, azpimarratu behar da Autonomi Komunitateko ospitale psikiatrikoek ebauden judizial penala hartu duten edo egoera prebentiboan dauden gaisoak behar bezala tratatzeko duten egokipenik eza. Bigarrenik, gogoratu behar dugu polizi-jagoletzapean egoteko agindu judiziala duten

gaisoien harrerak Basurtoko Ospitalean (Bizkaia) erabat desegokia den unitate «penitentiario» baten sorrera ekarri duela; desegokia da gaisoak ia erabatekoia den isolamendu egoeran uzten direlako hilabete luzeetan zehar (kasu batean, lehenago adierazi den bezala, preso prebentibo bat 250 egunez egon zen barneratuta, eta beste batean 116 zeramatzen eta egoera berdinean zegoen Txosten honetarako datu-bilketa ixteko unean), eta honek suizidio saio larriak sortu ditu eta begien bistan dago gainditu beharreko egoera bat dela. Isolamendu luzeko zirkunstantzia honen arrazoia gaisoek iharduketa judizial jakin batzuk burutzearen epailearen eskumenean egon behar dutelako gertatzen denean, Erakunde honen ustez —bere mugetatik irten gabe— komenigarria litzateke zentroko Zuzendaritza medikoa Ministraritza Fiskalarekin harremanetan jartzea, organo honen zeregin konstituzionala, EKren 124.1 artikuluaren arabera, justiziaren ekintza herritarren es-kubideen defentsan sustatzea izanik, jurisdikzio-izapideak ahal den neurrian arin ditzan; honekin saihestuko litzateke ez bakarrik kalte larri gaineratua (isolamendu pertsonalezko zirkunstantzia adieraziengatik) baizik eta behar ez den luzamendurik gabeko prozesua, kasu hauetan hain eskusaezina dena, izateko funtsezko eskubidea urratzea ere.

Behin hau adierazi ondoren, bakarrik gelditzen da esatea, asmo-adierazpen sendo gisa, Erakunde honek, orohar, (eta ez bakarrik, beraz, arazo psikiatrikoak dituzten pertsonei dagokienez, haien aztertzen bait ditu Txosten honek) Euskal Herriko Autonomi Komunitateko espesanteetako preso eta zigortuen egoera errealaz arduratzeko borondate erabakia duela, harik eta gai penitentiarioetako eskuduntza autonomikoaren transferentzia benetan gertatzen den arte.

#### 9.5.2.3. **Buru-gaisoien barneratzea Kode Zibilaren 211. artikuluaren arabera**

A) Uriaren 24eko 13/1983 Legearekin, legegileak Kode Zibilaren I. Liburuaren IX. eta X. tituluak erreformatu zituen, hurrenez hurren adingutxiko edo ezgaituen gaitasun-gabetzeari (199tik 214era arteko artikuluak) eta zaintza, administrazioa eta jagoletzari dagozkienak, espreski derogatu zuen 1931eko uztailaren 3ko Dekretua eta, orain interesatzen dena, buru-gaisoien barneramendurako araudi berri bat ezarri zuen, Kz.ren 211. artikuluak ondoko terminoetan jasotzen duena:

«Ustezko ezgaitu baten barneramenduak aurretikoa epaile-baimena beharko du, halako neurri bat berehala hartzea beharrezko egingo luketen urjentziazko arrazoiaik daudenean salbu; kasu horretan, neurriaren berri emango zaio Epaileari lehen bait lehen, eta edozein kasutan hogeitalau orduko epearen barruan.

Epaileak, pertsona aztertu eta berak izendatutako mediku batzen erizpena entzun ondoren, eman ala ukatu egingo du baimena, eta egiteak Ministraritza Fiskalaren jakintzaapean jarriko ditu, 203. artikulan aurrikusitako eraginetarako.

269.4. artikulan aurrikusitakoaren kaltetan izan gabe, Epaileak, ofizioz, hala erizten dionean, barneramendua jarraitzeko be-

harrari buruzko informazioa bilduko du, eta edozein kasutan sei hilabetero, aurreko lerroaldean aurrikusitako modu berean, eta barneramendua jarraitu edo ez jarraitzeari buruz egokiena erabakiko du».

Hasiera batetik jada adierazi behar da, alde batetik eta zalantzarak gabe araudi honek aurrerapen eskerga adierazi zuela eta ordurarteko gabeziarik larriena zuzendu zuela, nola bait zen kontrol edo garantia judizial baten gabezia; baina beste aldetik, eta bere aplikazioak kasu errealetan ematen duen ikuspegitik, askiez gertatu den araudi bat da, garrantzizko alderdi asko ilunbean uzten dituelako, aplikatu behar dutenen aldetik interpretazio desberdin asko gertatzeko arriskuarekin.

Araudi askiez honek sortzen dituen zaitasunen froga ona ikus dezakegu alor horretan gertatu diren iharduketa desberdinetan —betiere kontuan hartuz hain jatorri, balio eta egokitasun desberdina—. Hala nola, denborazko hurrenkera soilean aipatuz, badaukagu 1984eko otsailaren 23ko Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiko Gabinete Teknikoaren Txostena; ekainaren 8ko Estatuko Fiskalia Nagusiaren 2/1984 zkia. Zirkularra; organo beraren urriaren 23ko 6/1987 zkia. Izapideztea; Azterlan Komitearen Txostena eta Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Batzordearen Osoko Bilkurak onetsitako 1988ko uztailaren 13ko Gomendioak; Osakidetzaren Zuzendaritzaren Nagusiaren azaroaren 18ko 26/1988 zkia. Zirkularra; eta baita, zati batetan, Estatuko Fiskaletza Nagusiaren maiatzaren 7ko 3/1990 zkia. Izapideztea ere.

Txosten hau ez da arauketa horren azterketa sakon bat egiteko lekuri egokiena, bere helburuak, batez ere, barneratze-sistemaren funtzionamendua begiratzen behartzen duelako; beraz, alderdi aipagarrienak azpimarratuko dira soilik, kontuan hartuz gainera hau dela daukagun araudia, eta horregatik, gustatu ez gustatu, hori dela kasuotan aplikagarria dena.

B) Honela, lehen-lehenik, kontuan hartu beharrekoa da arauketa honek, hasiera batez, ez dituela borondatezko barneratzek aztertzen. Hauen justifikazioa edo legitimazioa doakionaren borondate aske eta kontzientearen aurkitzen da. Haatik, oinarritzko zuhurtasunak doakionaren onespenaren esplizitazio formala gomendatzen du, onespenaren ustek, batzutan, borondatezko barneratze maulazkoak edo behargabeko erretentzioak estali ditzaketelako. Doakionaren benetako' onespenari buruzko zalantza kasuan, epailearen baimena eskatu beharko da. Gainera, ezin da ahaztu —burututako ikerketan agerian geratu den bezala— badirela hasiera batean borondatezkoak izan eta epe labur edo luze baten ondoren borondatez kontrakoak bilaka daitezkeen barneramenduak; suposamendu hauek eskatzen dute, halaber, beharrezko epaile-baimena, eta une horretatik aurrera, eragin guztietarako, ez-borondatezko izaerakotzat hartuak izatea.

C) Bigarrenik, araudi hau barneramendu «zibilak» dei genitzakeenei dagokie; «penalek», lehenago adierazi den bezala, legeri penal sustantibo eta prozesalean dute beren *ratioa*, komenigarria izango balitzateke ere Kz.ren 211. artikuluko garantiek J.Krim.L.ren 381 artikuluko aurrikuspen eskasak osatu ahal izatea horren suposamendu zehatz baterako, prozesatuaren burubesterantzearen aztarnak, Epailea mediku-behaketa erabakitzera daramatenak, behin-behineko espetxeratzea bidezkoa ez delarik.

D) Kz.ren 211. artikuluak «barneratze» soila aipatzen du, inongo adjetiborik gabe; hala ere, agindu honen interpretaziorik nabarmenena barneratze psikiatrikoaz ari dela izaten da. Bainan hau egia izanik ere, adierazi behar da halaber buru-gaiso bat, beharrezko osabiderako, kasuaren zirkunstantzien arabera, ospitalean barneratzea eskatzen duen gaisotasun somatiko batek eragina gertatzen denean, barneramendua ere Kz.ren 211ko garantiekin burutu beharko dela.

Determinazio libre pertsonalak eragotzi egiten badu, hasiera batez, osabide baten aplikazio bortxazkoa doakionaren beraren osasuna bakarrik jokoan dagoenean (ik. *mutatis mutandis* Konstituzio Epaitegiaren ekainaren 27ko 120/1990 zkia. Epaia), haren onespina generikoki buru-gaisotasuna deitzen diogunak eraginda dagoela somatuko balitz, osasun tratamendu batzen menpe jartzeko haren ezezkoa, osasuna arrisku larrian jar diezaiokeean, gorabehera hori gainditua izan daiteke dagokion aurretiko edo ondoko epaile-baimen baten bidez, larrialdi kasuan. Zentzu honetan, Kz.ren 211. artikulu hau Sanitatearen Lege Orokorraren 10.6.b) artikulan jasotako sanitate tratamendu bat aplikatzeko beharrezko onesprenaren modulazio edo erregimen-espezialitatea izango litzateke.

E) Egiten den «ustezko ezgaitu»aren aipamenak, barneratua izan daitekeen subjektu gisa, ez du nahasketara eraman behar eta, era simpleago batez, interpretatu behar da —arauketa osoagorik izan ezean, hora bait litzateke desiragarriena— Kz.ren 211. artikulu hau buru-gaisotasunagañiko barneratze suposamendu guztietan aplikatuko delako zentzuan.

F) Agindu horretan «ustezko ezgaitua» aipatu arren, komenigarria da adieraztea ezgaitasuna eta barneramendua ez direla termino korrelatiboak eta are gehiago, ez daudela erlazio zuzen eta derrigorrezkoan. Egia da, bai, legegileak buru-gaisoen barneramendu-erregimena aldatza erabaki duela ezgaitasun eta tutoreta sistema erreformatzeari ekin dionean, baina hortik ez da ondoreztatu behar bata bestearren ondorioa denik edo, lehen irakurketa batek adieraz lezakeena eta guzti, barneramendua burutu ondoren ondoko ezgaitzea beti bidezkoa denik. Alderantziz, komenigarria da bi kontzeptuok ondo bereiztea.

Ezgaitasunezko aitorpena gertatzen da «pertsonari bere kabuz bere burua zaintza eragozten dioten izaera fisiko nahiz psikikoko gaisotasun edo akats iraunkorren» kausagatik (Kz.ren 200. art.). Bainan nabarmena gertatzen da suposamendu hau gertatzen den guztietan ez dela bidezkoa izaten Txosten honetan aztertzen ari garen Kz.ren 211 artikulan arauturiko barneratzea. Hala aitortu du —eta borobilitasun handiz— Epaitegi Gorenak ere; horrentzat Kz.ren 211ko barneratzea «ez da adierazi den gaitasun-gabetzaaren ondorio normala» (1986ko otsailaren 10eko E., Ar. 520).

Gaitasun-gabetzetik ez da barneramendua ondoreztatzen, hora, azken hau egokia den suposamendu desberdinatan aitorzera zuzenduta bait dago. Bainan, are biok bat egingo luketen kasuan ere, halako moldez non barneratze-neurria ezgaitutzat hartutako bati aplikatuko bait litzaiokeen (aldez aurretik edo barneramenduan zehar), halako neurri baten azken ekintzak ere —hau da, irteerak— ez du gaitasun zibil osoaren berreskurapena inplikatzen, zeren eta barneratzea gomendarazi zuen kausa desagertuko balitz ere, bere horretan iraun bait lezake gaitasun-gabetza sortu zuenak. Azkenik, legean bertan aurrikusita dago espreski tutoreari emandako epaile-baimena barne-

ratzeari ekiteko (Kz.ren 271. art.), eta honela begien bistan geratzen da bi auzion hurrenkera-bikoiztasuna.

Beraz, ezgaitu guztiak ez dute barneratuak izan behar, barneratuak izan daitezkeenak ez dira ezgaituak bakarrik, eta, azkenik, barneratu guztiak ez dute ezgaituak izan behar. Egia da Kz.ren 211. artikuluak lotura bat finkatzen duela barneratzea eta gaitasun-gabetzearen artean, bere bigarren lerroaldian xedatzen duenean barneratza baimendu den kasuetan Epaileak Ministerio Fiskalaren ezagutzapean jarriko duela honek gaitasun-gabetzea aitorpena bultza dezan, baina kontuan hartu behar dira barneramendua ondoko gaitasun-gabetzearekiko lotura hori ñabartzen duten bi auzi. Lehenik, argi dago artikulu honek barneramendu luze eta etengabe bat gaitasun-gabetzeaz eta dagokion tutela-eratze batez lagunduta ez doazen egoera tamgarri horiek, Txosten honen aurreko ikerketan oso ugariak bezala agertu direnak, saihestu nahi dituela, haitan, doakiona (batez ere bere ondasun eta eskubideak) babesik gabetesun handiko egoera geratzen bait da. Kz.ren 211. art., bigarren lerroaldiko aurrikuspen honek egoera horiei aurre egin nahi die.

Alabaina, bigarrenik, eta adierazi berri denaren kontrapunto gisa, ez da ahaztu behar badaudela erabat desberdinak diren kasuak, zeinetan barneratza krisialdi iragankor batengatik gertatzen den, barneraldi laburra go-mendatzen duena. Kasuotan litekeena da gaitasun-gabetzeko prozedura juzdiala martxan jarri orduko, doakionak barneramendu egoera jada utzia izana, eta orduan gaitasun-gabetze prozesua alferrikakoa gerta daiteke edo are kaltegarria ere haren birmoldatze sozial errazago baterako. Gogoratu, gainera, Kz.ren 200. artikuluak gaisotasuna iraunkorra izatea eskatzen due-la, eta orduan gaisotasunak izaera hori duen kasuan bakarrik bultzatu ahal izango dela era egokian gaitasun-gabetzea.

G) Behin aurreko oharrak azaldu ondoren, komenigarria da ospitaleetan barneraldi luzeak dituzten gaiso psikikoen kasu zehatzari aurre egitea, haintzat begibistakoa bait da gaitasun-gabetze baten komenientzia. Suposamendu hauetan burututako ikerketak agerian utzi ditu hainbat kasu, zeinetan, famili-loturen ezagatik (edo arduragabekeria gatik, abandonuagatik edo tutelaren zamari senitartekoek edo lagunek aurre egiteko ezintasun soila-gatik), tutelaren eraketa barneratuta dauden zentroko zuzendaritzaren gai-nean uzten den. Era berean, hainbat alditan ikusi dira honek dakartzan zailtasunak ezgaitu bakoitzaren behar bezalako arretarako eta bere zirkunstantzia pertsonal, familiar eta patrimonial partikularren jarraipena arretaz burutzeko.

Egoera honen aurrean, Kz.ren 242. artikuluak ematen duen aukeraz baliatuz («Tutoreak izan ahalko dira halaber irabazizko helbururik izan ez eta xedeen artean adin-txikikoen eta ezgaituen babesea agertzen duten pertsona juridiko guztiak»), interesgarria dirudi helburu espezifiko horri erantzongo dioten erakunde publikoak sortu direneko esperientzia batzuen emaitzak kontuan edukitzeak eta ebaluatzeak. Kontu handiz ibili behar bada ere horren bidez familiaren arduragabekeria susta ez dadin, zinez aztertze-ko ekimena izan liteke, zeren eta asistentzi zerbitzu egoki batzuek —agian foru aldundiak beraien eskuduntzen menpean, haien badaukate eta nola-baiteko esperientzia antzeko alorretan— askoz eraginkorragoa egin bait de-zakete, kasu hauetan, Epaile eskudunak aitortutako gaitasun-gabetzeak se-gitzen duen helburua.

H) Planteiatu beharreko hurrengo kontua da ea nork eska dezakeen barneratzea ahalbidetuko duen epaile-baimena. Kz.ren 211. artikuluak gai horretaz isiltasuna gordetzen badu ere, aukera hori aitoritu beharko zaie, lehenik, gurasoei edo tutoreei adin-txikitasun edo gaitasun-gabetze kasuan; eta, ezgaitu gabeko helduen kasuan, ezkontideari, senitartekoei, berarekin bizi diren pertsonei edo are beste pertsona batzuei ere, bere lanbidea, iharduera edo auzo-erlazio edo ezagutza pertsonal hutsarengatik beharrezkoa egin dezaketenean. Malgutasun handia onartu behar da jite honetako egoera bat Epailearen edo Ministraritza Fiskalaren ezagutzapean jartzeko orduan; gehiegikeria edo eskaera zentzugabeen arriskua benetakoa bada halaber, hori bezain benetakoa da askotan arazoak kontrakoarengatik datozela, hau da, zabarkeriazko egoerengatik.

I) Kz.ren 211. art. honek ez du barneratzea legezkotzen duen kausaz ere ezer esaten, eta hau hutsune tamalgarri bat da dudarik gabe. Haatik, legegilearen adierazkortasun handiagorik izan ezean, auzi honetan lagun-gariak izan daitezkeen hastapen edo erizpide batzuk aurrera daitezke.

Lehenik eta behin, egokia da gogoratzea barneramendua «azken erre-medio» gisa funtzionatu behar duela, hau da, kasu konkretuan beste benetako alternatiba eraginkorrik ez dagoenean. Bigarren, EKren 17. artikuluak bereziki babesten duen funtsezko eskubide gisa garantizatzen duen askatasun pertsonaleko sistema batean, buru-gaiso baten barneramendua justifikatuta egongo da, bakarrik, hirugarrenen edo doakionaren beraren integritate edo osasunerako (edo ondasunerako) egon daitekeen arrisku benetako edo errekal batengatik, arrisku hau —hain zuzen— honen egoera psikologikoak sor dezakeelarik. Norabide honetan zihoan, lehen ikusi den bezala, Europar Kontseiluaren gomendioa.

Arrisku propial edo besterenen aipamena ez da buru-gaisoen arriskutasun presuntzio generiko bat bezala ulertu behar baizik eta, askoz zehatzago, buru-gaiso baten barneramendua justifikatzen duen adierazpen edo «sintoma» bakarraren esplizitazioa bezala; azken finean, era beretsuan gertatzen da gaisotasun somatikoen kasuan, hirugarrenentzako osotasun fisiko eta osasunerako arriskuek justifikatzen dituztela derrigorrezko ospitale-tratamenduak, buru-gaisoen kasuan bereiztasun garrantzitsu bat gertatzen dela-rik, hots, barneratzea ezarri egin daitekeela gaisoaren beraren osasun eta pertsonaren onura soilerako.

J) Legegileak 1983an ezarritako arauketaren muina Epailearen par-tehartzean datza, hau bait da azken batean barneratzerako baimena ematen duena.

Kz.ren 211. artikuluko bigarren lerroaldiak —«arrunta» dei geniezaikoen prozedurari dagokiona, lehen lerroaldeko «urjentziasko» prozeduratik bereizteko— Epailearen bi betebehar edo bi beharrezko iharduketa ezartzen ditu: pertsona aztertzea eta berak izendatutako mediku baten erizpenea entzutea.

Doakionaren azterketari dagokionez, esan beharra dago prozedura mota honetan elementu hau garrantzi handikoa dela garantia bezala. Ohizkoia izango da Epaileak berak egitea eragindakoaren azterketa. Hala ere, eta agindu honetan berak «berez» aztertuko duenik espreski esaten ez de-nez (Kz.ren 208. artikuluan egiten den bezala), eta azterketa hau egokia edo beharrezkoia ez izateko zirkunstanzia motaren bat gerta daitekeenez, agin-

du hau interpretatu beharko da halako moduan non normala edo ohizkoa azterketa Epaileak burutzea izan dadin, baina zirkunstantzia berezietan, harren ordez beste elementu batzuk erabil daitezten barneratzearen egokitasunaren edo ez egokitasunaren komentzimendura iristeko.

Hala ere, ikerturiko ihardunbidetik ez da ondoreztatzen, ezta urrutitik ere, barneratzerako baimena bere esku duen Epailearen behaketa zuzen hau. Izatekotan alderantziz da, barneramenduen gutxiengo batean bakarrik —Txosten honen lehen zatian adierazi den bezala— Epaileak berak aztertzen zuen doakiona. Azpimarratu egiten da, hainbat kasutan Epailearen eta gaisoaren arteko behaketa eta harreman zuzen hau desenkusatu egin daitkeela, baina «garantia» hori (azken finean horixe bait da) ezin da banalizatu eta une honetan bere garrantzia azpimarratu behar da.

Medikuaren erizpenari dagokionez, lege-aginduan jakin erazten da bere «neutraltasuna» garantizatu nahi dela Epaileak berak izendatuko duela xedatzen denean. Mediku hau auzitegikoa bera izan daiteke edo eragin horretarako aditu gisa izendatua. Edozein kasutan, komenigarria da azpimarratza mediku baten erizpenak gutxieneke izaera duela, Epaileak bidezkotzat hartzen dituen guztiak eska bait ditzake.

Legearen letrak «entzun» hitza erabili arren, nahiko argi dirudi erizpenak idatziz joan behar duela (ik. aplikagarria den heinean Giza Eskubideen Europako Auzitegiak bere 1990eko irailaren 27ko Epaian esandakoa) eta funtsean hartu beharreko erabakian zentratu behar duela, hau da, barneratzearen komenientzia edo beharra (edo kontrakoak) ikuspegi tekniko-medioko batetik.

Epailearen baimenera itzuliz —eta alde batera utziz orain ea «baimen» hutsa den edo barneratze psikiatrikorako benetako epaile-«agindua» ote den—, Kz.ren 211. artikulu honek ez du adierazten zein izango den hura emateko eskuduna den jurisdikzio-organoa, eta honek zailtasunen bat sor lezake. Honi buruz esan behar dena zera da, Lehen Instantziako Epaitegi bat izango dela zalantzarik gabe (AJLOren 85.2 artikuluaren arabera); eta logikoa dirudi, aurrikuspen espresik ez dagoenean, epailearen eskuhartzea barneratzearen aurretikoa denean doakionaren bizilekuko Lehen Instantziako Epaitegia izatea eskuduna, baina epailearen eskuhartza *a posteriori* gertatzen denean, hau da, urgjentziazko barneratzeen kasuetan, ospitaleratura dagoen lekuko Epaitegia izango da eskuduna, eta hori hurbiltasun arratoiengatik eta organo hori delako, hain zuzen, barneramenduen seihilabekoa berrikuspena burutu behar duena.

Eperik ere ez da adierazten eskakizuna formulatzen denetik Epaileak ebatz dezan (zehatzago esanda, egia da ez duela ezein iharduketa judizialetarako eperik ezartzen). Ez da egiten ere Epaileak erabakitako barneramenduaren exekuzioari dagokionez (1931ko Dekretuan aurrikusten zen ez bezala, bertan 10 eguneko gehieneko epea ezartzen bait zen ziurtagiri medikoa jaulkia zenetik). Eta esan ez da ezer ere esaten baimendutako barneramenduaren balizko denbora-mugari buruz (epe hau, bere kasuan, berrikusgarritzat har litekeelarik), isiltasun honetatik —eta ihardunbideak ere jarraitu ez badu ere— ondoreztatu behar ez den arren Epaileak barneratze erabakian halako gehieneko muga ezarri ezin duenik.

Ikusiak, bada, artikulu honek aurkezten dituen interpretazio-zailtasunetako batzuk, Erakunde honek, aginte politiko bakoitzarri dagozkion erantzun-

kizunekiko errespetutik abiatur, oso komenigarritzat jotzen du gaian esku-dunak diren organo judizialen eta sanitate Administrazioaren artean komunikazio eta lankidetzarako bideak finkatzea, elkarrekiko ezagutza hobe bat izan dadin errealitate judizial eta sanitarioez eta haien aukerei buruz, disfuntzioak saihestu ezezik buru-gaisotasun batek eragindako herritarren barneramenduaren *quid-a* eta *modum-a* bete-betean asma dadin.

K) Barneratze ez-borondatzkoa gauzatuko duen iharduketa judizia-larekin estuki lotuta dago honen exekuzio materialaren arazoa, hau da, nork eramango duen doakiona dagoen lekutik dagokion ospitalera. Merezi du auzia hemen aipatzeak, hainbat arazo detektatu bait dira gaiso aztoratu edo zailen kasuan. Erizpideak, teorian, argia izan behar du: osasun langilego espezialduak burutu behar du gaisoen garraioa, polizi sailen lankidetzara kasu estremoetan bakarrik jo behar delarik. Gertatzen diren egoera oso traumatikoek aholkatzen dute irtenbide hau.

Zentzu honetan, eta bai denen aldetiko inhibizio egoerak bai iharduketa desegokiak edo zoritzarrekoak —saiharen berezitasunen arabera (burugaisoa)— saihestu nahian, oso desiragarria litzateke osasun Administrazioaren eta polizi sailen artean instituzio-lankidetza finkatzea kasu hauetako iharduketa-ereduak finkatzeko. Iradokitzan da, bada, auzi honi buruz lankidetza alde batetik Osakidetzaren, eta bestetik Ertzaintza, Estatuaren Segurtasun Sail eta Indarren artean —hark Euskal Autonomi Komunitatean bere zabaltze osoa burutu arte— eta baita hiriburuak eta are biztanlego handiko beste herrietako udaltzaingoen artean.

L) Kz.ren 211. artikuluko hirugarren lerroaldian barneramenduen kontrol-tresnak dei geniezaiekeenak xedatzen dira. Mekanismo horiek, lege-erreformaren *ratioari* jarraiki eta Europar Hitzarmenetik eratorri diren es-kakizunei adi egonda, barneratze horietan Epaileari ahalmen berrikusleak ematearen inguruan jiratzen dira. Hala nola, lehenik eta behin, Epaileak edozein unetan eska dezake barneramenduarekin jarraitzeko beharrari buruzko informazioa. Baino, gainera, sei hilabeteroko kontrol judizial automatiko bat ezartzen da.

Beraz, ez barneratzeari ekiteko garaian bakarrik baizik eta baita gero ere, hark dirauen artean, Epailea da, hainbat alditan errepikatu den bezala, gaisoen eskubideen kontrolean giltzarri gisako atala. Honek atal bakarra izatea esan nahi ez badu ere. Izan ere, badago beste pertsona bat, burugaiso barneratuen eskubideen errespetoa zeregin garrantzitsua buru dezakeena, hots, Ministraritza Fiskala, eta honen funtzioen artean, adierazi den bezala, herritarren eskubideen defentsa dago (EKren 124.1 art., AJLOren 435. art. eta haren Estatu Organikoaren 1. art.), edozein unetan dagokion lurraldeko atxilotze, espelteko edo barneramenduko zentroak bisitatu eta barneratuen expedienteak aztertzeko eta egoki deritzon informazio guztia eskatzea ahalmena espreski ematen zaialarak, horretarako agintari, funtzionari eta erakunde galdatek eskakizuna derrigorrez bete beharko dutelarik, legezko mugen barruan (Ministerio Fiskalaren Estatutuaren 4. art.).

Erakunde honek oso komenigarritzat jotzen du epaile eta fiskalen figura, edozein ohikeria burokratikotik urrunduz, pertsonaren funsezko eskubideen funtzio bermatzailea osoki bete dezala. Aldizkako bisita eta gaisoen egoerarekiko benetako ardura epaile zein fiskalen zeregin berezko eta espezifikotzat hartu behar da. Batzuetan gaiso barneratuak funtsik gabeko

kexa edo salaketak aurkezteria iritsi ahal izatea gerta bidaiteke ere (hauek ere irudikeriak izan daitezke, beren psikopatologiak eragindako ernaldioek sortuak), egia da halaber —Espetxe Jagoletzako epaileen kasuaren antzera, nolabait— halako aldizkako bisitaldiak eta horiek dakarten barneramendu egoeraren ezagutza zuzen eta pertsonala, gaisoek beren eskubideak garantiza ditzakeen autoritate gorenarengana jo ahal izatea eta horrek adierazten duen gizartea berak buru-gaisoekiko duen kezka maila korrelatiboa, guzti hauek bisitaldiok gomendatzen dituzten arrazoi ukaezin eta indartsuak dira; gainera, sanitate Administrazioaren edozein errezeloz gainditu beharko litzateke eta, alderantziz, bere lanarekiko kezkaren sintomatuztaz eta herritar buru-gaisoiei emandako zerbitzuaren kalitatera eramango duen elkarrekiko ezagutza aukeratzat hartu.

M) Agindu honek ez du ezer esaten barneramenduaren epemugaz. Hala eta guztiz ere, argi dago hura baimendu zuen Epaileak (eta beharba da besteren batek: ospitaleratzea burutzen den tokikoak, Instrukziokoak *ha-beas corpus* kasuan, Entzutegiak errekurto bidean) irteera agin dezakeela.

Baina interpretazio-arazoa arauketarik ezaren aurrean beste auzi baten gainean gertatu da, alegia, ea ospitale-zentroak berak ekin diezaiokeen gaiso barneratuari alta emateari Kz.ren 211. art. honen bidez ala, alderantziz, Epailearen aurretikoa baimena behar den. Bada kontuan hartuz garantiez inguratzen behar dena askatasun-gabetzea dela, eta ez alderantzizko (hau da, bere berreskurapena), eta barneratzea behar terapeutikoei kasu eginez geratzen dela, logikoagoa dirudi irteera gomendio mediko soilez gertatu ahal izateak —behintzat sarrerarako epaile-ebazpenean kontrako adierazpen espresik ez dagoenean—. Nahiz eta, aldaketa hau, barneratzean eskuhartu zuen Epaileari komunikatzeak ere logikoa iruditu.

Auzi honekin lotuta dago gerta daitezkeen buru-gaisoen birsartzea. Kasuotan mantentzen segitu behar da epaile-baimenaren beharra ospitaleratze ez-borondatzezko bakoitzerako, lehen barneramenduarena aski ez delarik.

Azkenik, egokia dirudi, Osakidetzaren 1988ko azaroaren 18ko Zirkularrean jasotzen den bezala (kontzertatuta dauden beste jabetzako zentroei ere espreski zuzendurik) (ikusi 1 eranskina), bide judizialez barneratutako edozein gaisoren ihesketa suposamendua Epaileari hogeitalau ordu baino lehen komunikatu behar izateak.

N) Kz.ren 211. artikuluko lehen lerroaldeak, barneratzerako epailearen aurretikoa baimenaren beharra jaso eta berehala, larrialdi arrazoiengatiko salbuespen bat ezartzen du, eta kasu honetan lehenik barneratzeari ekiten zaio eta ondoren, hogeitalau ordu iragan baino lehen, egitea jakin erazten zaio Epaileari. Larrialdizko barneratzeen arauketa eskasak nolabaiteko interpretazio-insekuritatea ekarri du alderdi desberdinatan, nola hala bete beharreko gutxiengo baldintzak eta kasu hauetako Epailearen beraren paperari buruzkoak.

Txosten honetan egokia denez, adierazi egin behar da kasu hauetan komenigarria dela nolabaiteko ekintza eta erantzun judiziala barneramendu zentrotik bidalitako jakinerazpenaren aurrean, zeren eta bestela, garantia judiziala praktikan desagertu edo garantia formal soil bilakatuko bait da (idazki baten harrera soila), urjentziazkoena gerta zitekeen kasuetan hain zuzen. Azkenik, puntu honetan, eta larrialdi bidez barneratutako gaisoetako asko poliziak hala xedatuagatik izaten direnez, errepikatu beharra dago komeni-

garriak direla agente horien behar bezalako trebakuntza eta osasun Administrazioarekiko koordinaketa suposamendu guzti hauetarako.

### 9.5.3. Oharrak

Atal honetan burututako hausnarketak laburbilduz, ondoko oharrak egin daitezke:

1) Lehenik eta behin, berriro ihardun behar da Kz.ren 211. artikuluaren jasotako arautegia askieza dela kasu hauetan, beharrezkoak diren segurtasun juridikoaren mailak garantizatzen dituen eta gutxieneko osotasun batez hornituriko arautegia izateko; badago, gainera, askatasun-gabetze suposamendu baten erregimen juridikoa zuzenean xedatzearen ezarritako legezko aurrikuspenak izateko bere maila normatiboak (Lege arrunt soila) sor lezakeen arazoa.

2) Alabaina, behin aurrekoa agerian jarri ondoren –hori konpontzea legegileari bakarrik dagokio eta— egin beharrekoa da, halaber, ahalegin bat halako arautegi (askieza) bat aplikatu behar dutenek ahalik eta modurik zuzenean osa dezaten funtsean testu konstituzionaletik beretik, baina baita askatasun-bermatzaileak diren beste arauetatik ere, ondoreztaturiko hastapen eta praktiken bidez, buru-gaisoen barneramenduen ihardunbidea ahal den modurik egokienean gerta dadin, Euskal Autonomi Komunitateak izan beharko lukeen bezalako gizarte demokratiko eta zerbitzu publiko aurreratuak dituen batean.

3) Akatsak somatu dira kontrol judizialean (arauketaren gakoa). Kasu hauetan garantia judicial erreala eta eraginkorra ez da funtsezko eskubide bat bakarrik, baizik eta baita gizartea egoera hauen aurrean erakusten duen ardura eta sentiberatasun mailaren adierazgarria ere, eta horregatik Epailearen behaketa zuzen eta pertsonala kasu isolatuetan bakarrik desenkusa daiteke. Honi dagokionez, aginte judizialek hausnar lezakete honelako prozesuetan Lehen Instantziako epaile asko dauden lekuaren Epaile bakarraengen zentralizatzearren aukera eta komenientzia.

4) Desiragarria litzateke halaber Ministraritza Fiskala gehiago inplikatza barneratutako buru-gaisoen kasuan, nola gaitasun-gabetze arauaren erabilpen egokiari, hala garantia guztiak betetzeari dagokionez buru-gaisoen barneratzean. Neurri komenigarria izan liteke lurralte historiko bakoi-zean Fiskal bat espezialtza ere.

5) Beharrezkoa gertatzen da eskuhartze egoki baterako behar diren sanitate-bitarteko material eta pertsonalen erabilpena garantizatzen duten neurriak hartza larrialdizko barneratzeetan —gaiso hauek «larrialdi» sail arruntean sartzea saihestuz— eta gaisoen garraioan bertan ere, polizi sailen eskuhartzeak oso salbuespenezko kasuetara bakarrik mugatu behar duela-rik.

6) Aurrekotik ondoreztatzen da osasun Administrazioa beste aginte publikoekin artikulatuko duten mekanismoak ezartzearen komenientzia, halako moldez non oso desiragarria izango litzatekeen, alde batetik, osasun Administrazioaren eta epaileen eta fiskalen eta bestetik sanitate Administrazioaren eta polizi sailen arteko elkar lankidetza, ezagutza eta kooperazioa,

buru-gaisoien barneramenduak sortzen dituzten arazo desberdinei aurre egiteko.

7) Gaitasun-gabetze mekanismoari dagokionez, aldez aurretik gazti-gatuz hau ez dela barneratze psikiatrikoaren ondorio ez berehalakoa ez zuzena, eta batzuetan alde sozialetik eragin estigmatzaileak izan ditzakeela kontuan hartuz, adierazi beharra dago era berean instituzio bermatzalea dela, indarrean dagoen arautegian modulazio malgu eta interesgarriak onartzen dituenak eta, batez ere ospitale-egonaldi luzeen kasuan, babesik eza saihesteko erabili beharko dena. Zentzu honetan, osasun Administrazioak, bere erantzukizuna balitz bezala, bere gain hartu beharko du bere gaiso barneratu guztiak dauden egoeraren ebaluaketa, eta Ministraritza Fiskalari eskatu dagokion prozesu judizialean hasteko hala dagokionean. Azkenik, eta azken gai honi gagozkiolarik, bertan sartutako gaisoen tutela ospitaleari berari edo haren Zuzendaria emateak sor ditzakeen eraginkortasun-ezak zuzentzearren, aztertu egin beharko litzateke probintzi mailan espezial-dutako erakunde edo ihardutze-sail bati, egokientzat hartzen den antolakun-tza-formulapean, emateko bidezkotasuna.

X. ATALA

**ONDORIO OROKORRAK  
ETA GOMENDIOAK**

## **10.1. ONDORIO OROKORRAK**

Ikuskapen lanak eta kontsultek eman dituzten ondorioak, eta inkestak eman dituen emaitzak aztertzeraoan, Euskal Autonomi Komunitateko asistentzia psikiatrikoaren hainbat arlo orokorri eta hainbat programatako arlo espezifikori buruzko ondorioak atera ditugu. Beti ere, arreta berezia jarri dugularik gaisoen oinarritzko eskubideen zein asistentzi-sisteman lanean dihardutenean lagunen eskubideen defentsan.

### **10.1.1. Alderdi kuantitatiboak**

Orokorean hartuta, Asistentzia Psikiatrikoaren Erreformarako Plana Euskal Autonomi Komunitatean zenbateraino bete den ikusita, pozik egon gaitezke.

Ospitale psikiatrikoetan oinarritutako asistentzi-sistema bat izatetik, urte batzuren buruan, kanpoko asistentzi-baliabideak nabarmen garatu dituen dispositiboa izatera iritsi da (esaterako, anbulategiak, buru-osasun zentroak, eguneko ospitaleak), nahiz eta baliabide hauek ez-askitzat jo behar diren «erdi bideko» etxe eta «babestutako» lanlekuei dagokienez.

Hasieran gomendatu zen bezala, barneratze psikiatriko gehienak, denboraldi horretan ospitale orokorretan sortu diren egonaldi laburreko unitateetan egin dira (Basurto eta Galdakao Bizkaian, Santiago Apostol Araban) edo lehendik zeuden eta eraldatuak izan diren unitateetan (Gipuzkoako Ospitale Orokorra kasu). Beste zenbait ospitaletan ere (Zamudio eta Zaldibar) egonaldi laburreko unitate espezifikoak egokitu dira, nahiz eta berauen etorkizuna argitu gabe egon. Unitate guzti hauetan lortzen diren etekin indizeak, gure Autonomi Komunitatearen premiei kuantitatiboki ongi egokiak daude.

Egonaldi ertaineko barneramenduei dagokienez, ohe falta eta errehabilitazio programen desberdinkaketa urria antzematen dira.

Egonaldi luzeko unitateetan dago gaur egun ohe faltarik handiena, gai so geriatrikoentzat gehien bat (eta zorotasunak jota daudenentzat batik bat). Hala eta guztiz ere, gure ospitale psikiatrikoetan inteligentzia atzeratua izan, edo besterik gabe, adinean aurrera doazelako larriagotu zaien arazo sozialen bat duten hiritar askok eta askok jarraitzen dute bizi izaten bertan, barneratze psikiatrikorako agindu zehatzik ez badute ere.

Asistentzi-langilegoari dagokionez, esan dezagun, goi mailako lizentziatuen kopuruak nabarmenki egin duela gora, herrialderik aurreratuenetan aurki ditzakegun beste daudelarik. Psikiatriako espezialisten kopurua aski-

tzat jo dezakegu, hala ere, sortzen ziren plaza berriak betetzeko zenbait urtetan espezialistarik gabe egon bagara ere, azken urte hauetan MIR plazen gorakadarekin parekatu egin da eskaintza eta eskariaren arteko erlazioa. Psikiatria arloan, OLT mailan, eta batez ere, gizarte laguntzaileen mailan, dagoen kantitatea eta prestakuntza nahi baino txikiagoa da. Gaur egun eriazain eta administrari gutxi dago.

#### 10.1.1.1. Antolaketa

Autonomi Komunitateko asistentzia psikiatrikoaren administrazioa, diputazio probintzialen, gero foru aldundi izango zirenen esanetara nagusiki egotetik, Osakidetzan integratzera igaro da, eta honen ondorioz hobetu egin dira sistemaren informazioa, plangintza eta erabakiak hartzeko modua. Psikiatria Nazionalaren Erreformarako Planaren jarraipideak hertsiki beteaz, sistema psikiatrikoak Osakidetzen barruan zuen entitatea desagertarazi zuten, eta bere baliabide guztiak, zuzendaritza nagusietara adskribatu zitzuten denboraldi horretan, honen ondorioz, kudeatzaileak desorientaturik ageri ziren ez bait zitzuten buru-osasunaren arretak dituen berezitasunak behar bezala ezagutzen. Hau ikusirik, buru-osasuna, berezitasun propioak dituen sistematuztatzan hartu zuten, eta medikuntzaren arreta sektorialaren zati izaten jarraitzen bazuen ere, zuzendaritza bana eratu zuten herrialde historikoetan eta zuzendaritza nagusi bat Gasteizen, hala ere, behar bezalako mugapen administratiboa eta baliabide dotazioa izan gabe jarraitzen zuen. Asistentzia psikiatrikoaren Kontseilu Aholkulariaren irudia bersortu zuten, eta honek asistentzi-planak egokitu zituen, ondorioz 1990ean txosten bat argitaratu zelarik.

Informazio sistema nahiko garatuta dago gaur egun; hainbat asistentzi-parametro informatikoki kontrolaturik daude, eta honi esker, asistentziaren indize kuantitatiboak lor daitezke, sistemaren ebaluazioa errazagoa delarik horrela. Orobak, martxan jarrita dago kasuen erregistro bat, eta dagoeneko garapen dexente lortu du.

Asistentzi-zentro desberdinan zuzendaritzek, antolaketa sistema kritikatu ohi dute, bere egituraren ardatza zentralismo administratiboa delako, eta honek, zentroen eginkortasuna murriztu eta zuzendari medikuek eta kudeatzaileek asistentzi-programak garatzeko duten ahalmena mugatu egiten due-lako.

#### 10.1.2. Alderdi kualitatiboak

##### 10.1.2.1. Arkitektura

Ospitale desberdinan bisitatu ditugun ia unitate guztietaan, bizigarritasun baldintzak egokiak dira. Ospitale psikiatriko batzutan unitate desegokian aurkitu ditugu, baina hauek gaur egun eraldaketa prozesuan daude, Bermeo eta Zaldibarko ospitale psikiatrikoak esaterako. Santa María de las Nieves Ospitale Psikiatrikoan dauden bizigarritasun baldintzak ere oso es-

kasak dira, baina hasi dira dagoeneko Gasteizen Arabako Ospitale Psikiatriko berria eraikitzen. Ekimen hau positiboa da, bertan dauden gaiso guztiei kokaleku hobea eskainiko dielako. Hala ere, ospitale hau gaitzerakoan ezin-bestekoa izango da bete behar dituen funtzieetan aldez aurretik pentsatzea, eta eman zaizkion zereginak, batez ere errehabilitaziokoak, ongi beteko dituela zaintza, honekin, gaisoen egoitza soil bihur dadila saihestu nahi da.

Unitate batzutan egin den errestaurazioak, egiturari begira egokia bada ere, zenbait akats ditu dekorazioari dagokionean. Eremu desberdinak kolore batez daude margoturik, sentsazio monotonoa ematen du honek eta ez du eremu desberdinaren funtzie desberdintasuna nabamentzen, guzti honek, egonaldi luzeko unitateetan gaisoen «despersonalizazioa» eragin dezake.

#### **10.1.2.2. Giro terapeutikoa**

Gure ospitaletako unitateetan aurkitu dugun giro terapeutikoa, onuragarriagoa da orokorrean Estatuaren gainontzeko ospitaletakoa baino, eta txarra goa EE.BB. etakoa baino.

Azpimarratzeko da ospitale orokorretako egonaldi laburreko unitateetan giro terapeutiko hobea dagoela ospitale psikiatrikoetako egonaldi luzeko unitateetan baino. Zentroetan lanean diharduten profesionalek, gaisoek baino puntuazio handiagoa, hobea, eman dute, gaisoen kontrolari buruzko galderetan salbu.

#### **10.1.2.3. Norbanakoaren askatasunaren murriketa**

Gaisoei ezartzen zaizkien murriketei dagokienez, orokorrean intimitaterako eskubidea errespetatzen zaiela esan behar da. Unitateek askotan ez dute izaten erasoak, buru hiltzeak eta ihesaldiak ekiditeko dispositibo material aproposik. Nahitaezko kasutan baino ez dira isolamendu gelak erabilten. Ez dituzte indar-atorrak dagoeneko erabiltzen, indar fisikoa murriketako orain erabiltzen diren moduak korreak eta bendak dira, baina nahitaezkoa denean soilik eta denbora tarte laburrez, eta era egokian. Honen ildotik esan behar da, neurri hauek ezinbestekoak direla zenbait kasutan eta ego-kiagoak direla medikamendu dosi handiak erabiltzea baino, hauek gaisoari kalte fisiko handiagoa egin diezaioketelako, eta beraz, inguruari egokitze prozesua atzeratu. Alabaina, erizaintzako langilego portzentaia, ez da gaiso kopuruaren aldean unitate batzutan gaisoen kontrol egokia ziurtatzeko adinakoa, besteak beste, ospitale orokorretako Larrialdi eta Egonaldi laburreko unitateetan.

#### **10.1.2.4. Errehabilitazio programak**

Egonaldi ertain eta luzeko programek, ez dute errehabilitazio premia desberdinak dituzten gaiso multzo guztiei (diagnostiko, adin eta koefiziente

intelektual desberdinekoei) arreta eskaintzeko adinako desberdinketarik. Erresuma Batua bezalako herrialdetan psikiatren espezializazioaren arlorik nagusienetako bat errehabilitazioa den bitartean estatu espanyiarrean ez dago horrelako azpiespezializaziorik.

Autonomi Komunitatean lan egiten duten psikiatra, psikologo eta eriazantzen diplomatutako gehienek, errehabilitazio teknikei buruz duten eza-gumendua oso azalekoa da, talde laneko teknikei buruzkoa salbu. Sistemak ez du apena arlo espezializatuetan adituak direnen laguntzarik, hala nola, lengoaia hezitzaile, psikomotrizitate hezitzaile, denbora libreko animatzaile, eta abarren laguntzarik. Guztি honen ondorioz errehabilitazio programak oso eskasak dira eta ez dute ia espezifitaterik.

#### 10.1.2.5. Erabiltzaileen poztasuna

Erabiltzaileen eta berauen senideen poztasuna sistemaren aurrean, osasun sarearen gainerako ospitale zerbitzuetan aurki daitekeenaren adina-ko da, eta tratu txarrei buruz aurkeztutako kexak, nozitzen duten gaisotasunaz jabetzen ez diren gaisoek egin ohi dituztenak dira.

#### 10.1.2.6. «Errearen» sindromea

Sisteman lanean dihardutenek, poztasunik eza nabarmena erakusten dute lanaren inguruau. Egonaldi luzeko zentroetan antzemandako absentismoa, euskal osasun sistemaren gainerako ospitaleetan ikusten dena baino handiagoa da. Galdeketan jasotako erantzunek, langileak nekatutik, gai-soengandik urrutti eta gogorik gabe daudela erakusten dute. Ezagarri guztí hauek «errearen» sindromea eratzen dute, «helping professions» arloan (asis-tentzi-arloa) dihardutenen artean maiz ematen den sindromea delarik.

Lanarekiko poztasun gabetasun honekin zerikusirik du, era berean, buru-osasunean ari diren makina bat profesional prozedura judizialetan sarturik egon izateak, beraien ardurapeko ziren gaisoek eragindako arazoen ondorioz (ihesaldiak, erasoaldiak, buru hiltzeak...).

### 10.1.3. Arazo bereziak

#### 10.1.3.1. Larrialdi psikiatrikoak

Lehenago ere esan dugun bezala, azken 15 urte hauetan buru-gaisoet asistentzia anbulatorio hobea eskaintzeko ahalegin nabarmena egin bada ere, alde handia dago osasun sistemaren gainerako arloetan eskaintzen den asistentziaren eraginkortasun eta arintasunarekin. Gaisoek beraz Larrialdi zerbitzuetara joan behar izaten dute laguntza eske behar baino maizago, zerbitzu hauek gainezkatz, eta bertara arreta eske iristen diren kasuen erdia komunitatean oinarri duten zerbitzuek konpondu beharko lukete.

Martxan dauden Larrialdi zerbitzuak, ospitale orokorretan daude, eta honez gain, ospitale psikiatriko zenbaitetan, zentro komunitario batzutan eta etxerako arreta medikoko zerbitzu batzutan ere, hauen artean premiazko kasuen %15a bajino tratatzen ez badute ere.

Zerbitzu hauetan gaiso psikiatrikoei gainerako gaisoei bezalaxe eskaintzen zaie arreta, leku berean eta langilego administratibo eta erizaingo berberak. Arreta desberdindu bakarra zaintzako psikiatrak eskaintzen duena da.

Gaiso psikiatrikoei egiten zaien arreta inguru medikalizatu batean egi-teak abantail asko ditu: buru-gaisotasunen inguruko orbain hori arindu egi-ten da, medikuntza espezializatuaren baliabide terapeutikoak eta diagnostikoak erabil daitezke, giro eraginkor eta egingarriagoa dago, eta abar, baina hala eta guztiz ere, laguntha mediko orokor bila hurbiltzen diren gaisoengan ezezik gaiso psikiatrikoengan ere arazo larriak eragin ohi ditu leku berean egote honek. Gaiso psikiatriko larriak, maiz estututa edo artegatsu, eta batzutan oldarkor, nahasteak eragin ditzake larrialdi zerbitzuko giroan, eta langile laguntzaileen espezializaziorik ezagatik edo peitutasunagatik, nahi baino maizago oratu behar izaten zaie baliabide mekanikoak edo medikamenduak erabiliz. Gaiso hauek nahaste ugari sortu ohi dituzte inguru inespefifiko horretan, eta Krisialdirako Interbentzioko unitateak baleude, lasaiago eta egokituago aurkituko lirateke. Larrialdietako gaiso psikiatrikoek, larrialdiko beste gaisoen inguruaren egon behar dute baina inoiz ere ez beraiekin nahasturik.

Larrialdi psikiatrikorako unitatea, «suteak itzali» beste ezer egiten ez duen «suhiltzaile» unitate gisa ibil ez dadin, premiazkoa da Larrialdi Medi-kotarako unitateen aldamenean Krisialdirako Interbentzioko Unitate espezifikoak eratzea, bertan gaisoek egun bi edo hiruko egonaldiak egin ditzaten, larrialdi zerbitzura hurbiltzen diren gaisoehuneko hainbat arreta egokia eman ahal izateko. Unitate hauekin Iparramerikan eta Europan egin diren esperientziek, beraien eraginkortasun eta errentagarritasuna erakutsi dute, izan ere, barneramendu luzeak saihesten bait dituzte zuzeneko ondorio gisa, eta ekipo terapeutiko, gaiso eta senideen arteko tentsioa murritzutegi egiten bait dute zeharkako ondorio gisa.

#### 10.1.3.2. Arazo legalak dituzten gaisoak

Zenbait gaiso komisaldegi eta prebentziozko atxiloketa zentroetatik etorri ohi dira, oker etorri ere, larrialdi psikiatrikorako zerbitzuetara premiazko laguntza psikiatriko eske, gehienak abstinentzia sindromepean. Epaileek ere askotan bidali ohi dituzte gaisoak Larrialdi Zerbitzuetara, oker bidaliak, azterketa mediko-legala egin diezaien eta osabidean jar ditzaten. Atxiloketa zentroetako gaisoak egonaldi laburreko unitateetan ere sartu dituzte inoiz arazo psikiatrikoak dituztelako, baina kasu hauetan ezin izan zaie segurtasun egokia eskaini ihes egin ez dezaten edo besteentzat mehatxu bihur ez daitezen.

Epailearen aginduz, poliziaren zaintzaapean egon behar duten gaisoak jaso izan dira inoiz, horregatik «Presondegi» unitate bat sortu behar izan da Basurtoko Jado Pabilioian. Unitate hori desegokia da erabat, zerbitzu psikiatrikoaren buruzagitzak eta ospitalearen Zuzendaritzak behin eta berriz

salatu duten bezala. Unitate honetan gaisoak erabat isolaturik bizi dira, gainerakoekiko harremanik gabe, aire zabalera irten gabe eta inorekin hitzegin gabe, noizean behin etortzen diren senideekin ez bada. Hilabeteak ematen dituzte horrela, egoera psikikoak okerrera egiten duen bitartean (buru hiltze saiakera larriak suertatu izan dira), ondorioz medikazio dosi handiagoak eman behar izaten zaie.

Dagoeneko epaitutako zenbait gaiso, Autonomi Elkarteko ospitale psikiatrikoetara bidaltzen dituzte, gaisoak menpe dituzten instantzia judizialeko komunikazioa eta egonaldia bera ere behar bezala garantizatzerik ez badago ere.

#### **10.1.3.3. Geriatria**

Gure Autonomi Komunitatean, mundu osoan bezala, gaisotasun psikiatrikoak maizagoak dira 65 urtetik gorakoentzako artean. Gaiso adintsuak hala ere, ez dituzte kanpoko asistentzi-baliabideak hain egokiro erabiltzen, horregatik, ordezkapen urria dute anbulategietako kontsultetan eta denbora guztioa eskaintzen zaie bertan gaiso helduei edo gazteei baino. Zoratasun egoera larri edo ez hain larriei lotutako desarauketa edo alterazio psikiatrikoak dituzten gaisoek eratzen dute gure Autonomi Elkartean, arretarako kasuaren jasotzen duen estamentua. Diagnostiko mota hauentzako dagoen ohe eskasia ikusita, zaharretako askok eta askok zentro geriatriko ez espezializatutan edota gaisoaren etxearen bertan jaso behar izaten dute arreta, honek zer esanik ez, nekealdia dakarkie gaisoari berari eta senideei.

#### **10.1.3.4. Garezurreko traumatismoaren ondorioz nahaste psikiatrikoak dituzten gaisoak**

«Epidemia isila» deritzagunak, jokabide nahaste larria duten gaiso asko eragiten ditu, eta ezin izaten zaie tratu egokirik eman ez senideen aldetik, ez eta zentro mediko eta psikiatriko tradizionalen aldetik ere, hemen arazo larriak eragin ohi dituztelarik.

#### **10.1.3.5. Diagnostiko bikoitzaren arazoa toxikomanietan**

Toxikomanien arazoa, dimentsio anitzeko trataera behar duen arazoa izan arren, agente anitz horietako bat zerbitzu psikiatrikoa izanik, esan beharra dago, gaiso psikiatrikoek gero eta maizago dituztela toxikomania arazoak. Toxikomano askok ez dute tratu egokia jasotzen ez unitate esklusiboki medikotan, ez desintoxikazio unitatetan, ez eta toxikomanoentzako esklusiboak diren komunitate terapeutikoetan ere. «Diagnostiko bikoitzeko» gaisoek, unitate espezifikoak behar baitituzte osabidean jartzeko.

## 10.2. GOMENDIOAK

### 10.2.1. Gomendio mediko-antolamenduzkoak

1. Premiazkoa da Eusko Legebiltzarrari eta Osasun eta Justizia sailei lehentasunezko iharduketak eskatzea, arlo honetan ditugun arazo kuantitativo zein kualitatiboak konpontzeko, azken hamabost urteotan Euskal Autonomi Komunitatearen asistentzia psikiatrikoan egin diren aurrerapausuak borobilduz era honetan.

2. Beharrezko da arazo psikiatriko espezifikorik gabeko gaiso zahar eta oligofrenikoak desikatrizatu eta arreta espezifika eman diezaioketen tokietan lojamendua ematea.

3. Premiazkoa da zenbait birmoldapen iharduketa arkitektoniko egitea, eta dagoeneko EAKko hainbat toki eta unitate psikiatrikotan hasita daudenak burutzea, batez ere honako hauek:

— Izaro pabilioia, Bermeoko Ospitale Psikiatrikoan.

— Usurbilgo Psikogeriatría Unitatea eta Artegatsuen Unitatea.

— Bigarren mailako Errehabilitazio Unitatea edo E sala, Zaldibarko Ospitale Psikiatrikoan.

— San Rafael eta Sagrado Corazón pabilioiak, San Juan de Dios Ospitale Psikiatrikoan.

Aipamen berezia merezzi du Santa María de las Nieves O.P.ak, izan ere, egun eraikitzen ari diren ospitale psikiatriko berria martxan jarri artean, gehiagoz atzeratu ezin diren obrei ekitea beharrezko bait da.

4. Beharrezkoa izango da Arabako Ospitale Psikiatriko berria ongi programatzea, ospitale funtzoak bete ditzan eta ez soilik asilo funtzoak. Horretarako ospitaleko tratamendu psikiatrikorik behar ez duten gaiso taldeak, beste asistentzi-zentrotara bidali beharko lirateke, gaiso hauen premiei ongi egokitutako tratamendu mediko eta psikiatrikoaz gain, aldaketa egin arte jasotzen ari ziren prestazio sozialen kalitatea mantenduko zaielarik. Alabaina, txosten honetan lehen ere esan dugun bezala, orain dagoen ospitale sistema garatu eta mantentzeak ondorio negatiboak eragingo ditu dispositibo komunitarioen sorkuntzan eta erabilpenean.

5. Beharrezko da errehabilitazio psikiatrikoaren teknika berezietan psikiatrak, psikologoak eta begiraleak trebatzea.

6. Premiazkoa da egonaldi luzetako zentro psikiatrikoetan dauden gaisoak, talde homogeneotan banatzea bakoitzaren errehabilitazio premien arabera, horrela programa espezifikoak eskaini ahal izateko.

7. Beharrezko da dispositibo komunitarioak sortzea, etxebizitza babetuak edo «erdi bideko» etxeak kasu, gaiso zenbaitek, bide alternatibo gisa, irteteko aukera izan dezaten, beste gaiso asko egonaldi luze eta ertainerako ospitale psikiatrikoetan barneratu beharra saihestuko delarik horrela.

8. Premiazkoa da zerbitzu psikiatrikoetan lanean dihardutenen artean lanarekiko poztasunik eza hain nabarmena izatea eragiten duten faktoreak lehen bait lehen arintzea.

9. Beharrezko da arreta komunitarioko zerbitzuen garapena sustatzea eta itxarote zerrendak arintzea, horrela, arreta psikikoa lehen aldiz jaso behar duten gaisoek larrialdi zerbitzuetara joan beharrik izan ez dezaten.

10. Premiazkoa da ospitale orokorretako larrialdi unitateen aldame-netan krisialdirako interbentzio zentroak sortzea.
11. Beharrezko da segurtasunezko unitate psikiatriko bat sortzea, gaiso arriskutsuei, presondegikoei barne, behar bezalako arreta eskaintzeko, erakunde ireki edo erdi-irekietan tratu egokirik eman ezin zaienean.
12. Premiazkoa da egonaldi ertain eta luzeko zentroetan psikogeriatriko unitate espezifikoak sortzea, halaber, asilotan eta hirugarren adinekoentzako egoitzetan bizi direnei arreta psikiatriko egokia eskaintzea.
13. Beharrezko da buru traumatismoen ondoriozko buru-nahastea duten gaisoen osabiderako unitate espezifiko bat sortzea.
14. Premiazkoa da diagnostiko bikoitzeko gaiso toxikomanoen osabiderako unitate espezifikoak sortzea.

#### 10.2.2. Gomendio juridiko-antolamenduzkoak

I. Barneratze ez-borondatezkoetan, etxetik zentro psikiatrikora edo larrialdi zerbitzutik osasun zein polizi zentro psikiatrikora gaisoak eramango dituen ekipoak, behar hainbat langile izan behar ditu eta behar bezalako prestakuntza. Betebehar hau aplikagarri zaie larrialdi zerbitzuetako ekipoi ere, batzutan sortzen diren egoera larri ez beharrezkoak ekidin daitezkeela-ko.

II. Zentro psikiatrikoetan saihestu egin behar da polizia presoak zaintzen uniformaturik egotea. Honek eragin negatiboa du zentroaren funtzionamenduan, eta medikoki desegokia da gainera, nahaste eta arazo psiki-koak dituzten gaisoengana atzerakada psikologikoa eta egon eza eragiten bait du.

III. Barneratze ez-borondatezkoetan, epaileak aurrez-aurreko elkarritzeta izango du gaisoarekin, eta bere egoera aztertzeaz gain, gaisoak barneramenduaren aurka dituen arrazoia entzungo ditu. Honako hau oinarrizko garantia da gaisoarentzat eta legezko betebeharra epailearentzat (Kode Zibilaren 211. artikuluaren 2. paragrafoaren 21).

IV. Gaisoak zentroan barneraturik egongo diren denboraldi osoan, dituzten oinarrizko eskubideak erabat errespetatu eta garantizatuko zaizkie, batez ere gaisoen askatasuna, intimitatea edo konfidentzialtasunari dagokio-nez, honen bermatzaile epaileak eta fiskalak ihardun beharko dutelarik. Betezun hau hobeto burutzeko gomendagarria da epaile eta fiskalak horretan espezializatza, zeregin honetara titular jakin bat adskribatuz.

Honi loturik, ezabatu egin beharko dira eskubideak murritzen dituzten eguneroko praktikak, osabide terapeutikoak berak ezartzen dituen mugetatik kanpokoak direnean.

V. Zentro psikiatrikoetako instalazio eta ekipamendutan gutxiengo standar batzuk ezartzera gomendatzen da bizitzeko giro egokia lortzearren, bestela ezingo bait lirateke barneratuen eskubideak behar bezala garantiza-tu. Erizpide honi loturik, beharrezko da zenbait zentrotan dauden taldeentzako gela handiak kentzea, batzutan hogeitabost ohetik gora bait dituzte, barneratuen atsedena eta norberaren intimitatea, hain garrantzitsua edo-zein elkarbizitzan, zaintzeko modu bakarra hau delako. Zaintza berezia be-

har duten gaisoentzat gela egokiak behar dira, zerbitza egokia eta funtzionala izango bada.

VI. Barneratuak edozein unetan jakin behar du bere dirua eta baliozko gauzak non dauden gordeta eta zenbat diren. Puntu hau oso garrantzitsua da, izan ere, gehienek gutxieneko diru sarreren garantia gisako subsidia edo bestelako pentsioren bat jasotzen bait dute, eta zenbaiten kasuan diru kontraprestazio txiki bat ere bai lanterapia lanen truk, eta honi dirua aurrezteko edo ez gastatzeko duten jitea gehitzen badiogu, denboraren poderioz barneratuak diru kantitate handiak biltzera irits daitezke.

Orobat, gaisoa barneratzen den unean, bere dirua eta baliozko gauzak zentroan gordetzen dituenean, gomendagarri da zentro psikiatrikoak deposito gisa jaso dituen ondasun hauek zeintzu diren erakutsiko duen agiri bat ematea.

VII. Oligofreniko eta zahar asko, osabide terapeutikoa dela eta, barneratuak izateko premiarik ez baina inoren asistentziaren premian egoten direnez, osasun administrazioa eta gizarte ongizate administrazioaren arteko lankidetza eta koordinazio formulak aurkitu behar izaten dira. Honekin talde hauei arreta hobea eta eraginkorragoa eskaini nahi zaie, gaur egun Eusko Jaurlaritza eta foru aldundien artean dagoen eskuduntza banaketak ez bait luke oztopo izan beharko.

VIII. Gaitasun gabetze prozesuak ere aztertu beharra dago, une honetan epaitegi desberdinatan geldialdi egoeran dauden prozesuetan ustezko mila ezkai bait daude zai. Eremu judizialetatik diotenez, geldialdi honen arrazoia, barneratua bera eta bere ondasunak ardurapean hartu nahiko dituzten tutoreak aurkitzeko zaitasuna da.

IX. Irudimena landu beharrean gaude tutorerik eza konpontzeko, eta inoiz ere, karguan arduragabeak diren tutoreen arazoa konpontzeko. Zoro ezgaituen tutelaz arduratuko den erakunde publiko bat sortzeko proposamen egin da, beste administraziotan arrakastaz burutu duten esperientzia bat izaki. Formula hau gainera, aplikagarri izango litzateke beste kasu askotan ere, esaterako, zahar ezkaien eta adin txikikoen kasutan.

Ez da gomendagarria ezgaituaren tutore, zentroaren langilegoa edo zuzendaritako kideak izendatzea, beste kasutan egin izan den bezala, kasu hauetan tutelak ez bait dakarkio barneratuari garantia handiagorik.

X. Buru-gaiso oldarkor edo arriskutsu batzuek arreta berezia eskatzen dute Erakunde honen aldetik, prebentziozko presondegi neurriak eta barneramendu luzeetan (duela gutxi 250 egunez egon da bat) egon ohi diren baldintzak kontuan hartzen baditugu.

Barneramendu hauek Autonomi Komunitate honetako osasun Administrazioaren menpeko unitate psikiatriko batean egin ohi dira, Basurtoko Ospitale Orokorean zehatzago esanda. Indarrean dagoen legeriaren arabera, zigor erakundetan preso daudenei presondegitik kanpoko ospitale zentroetan eskaini ahal izango zaie arreta premia edo larrialditan (Presondegiei buruzko irailaren 26ko 1/79 Lege Organiko Orokorraren 36.2 art; maiatzaren 8ko 1.201/81 E.D.aren 79 art., Presondegiko Erregelamenduari buruzkoa; eta martxoaren 30eko 319/88 E.D., Presondegitik kanpoko ospitale asistentziari buruzkoa).

Barneratze aginduak gaisoaren arriskugarritasun mailaren araberakoak izaten direnez, gaisoak jasoko duen tratua eta izango dituen eskubideak

ezingo zaizkio murritzut prebentziozko denaren aitzakiaz, ezinbesteko seguritasun neurriez gaindik.

Alabaina, Basurtoko Ospitalera egin dugun bisitaldian desberdintasun egoerak antzeman ditugu, barneramendu luze hauek burutzen diren unitatearen desegokitasunaren ondorioz. Baldintza hauek, denboraren poderioz, lotsagarri eta bertan barneratutako pertsonen dignitatearen kontrako izate-ra iristen dira. Horregatik, buru-gaisotasunak dituzten presoak unitea horretan ez barneratzeko iradokizuna egin da.

Honen ordez, gaiso oldarkor arriskutsuentzako, bai prebentziozko preso zein aurrekin penalik gabeko hiritarrentzako, unitea psikiatriko bat sortzea proposatzen da (zigorra betetzen ari diren presoei ere aplika daki-keena), unitea honek jolasaldirako leku egokiak izateaz gain barneramen-duarekin bateragarri diren segurtasun neurriak izan beharko lituzke. Instalazio hauek, Euskal Autonomi Komunitatean lehendik ditugun ospitale psikiatrikoetakoren batean jar daitezke, ohe kopuru handiegirik jarri beharrik gabe.

Egun dagoen eskuduntza banaketaren ondorioz, unitea hau sortzeko administrazio arteko akordio bat lortu beharko litzateke gaia dagokien agin-te publikoen artean.

I. ERANSKINA

**OSAKIDETZAREN SAREAREN  
OSPITALEETAN GAISO  
PSIKIATRIKOAK ONARTZEKO  
ARAUAK**

## **Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren azaroaren 18ko 26/1988 Zirkularra**

(Arauok aplikagarriak izango dira, Osakidetzarekin ituna duten zentroetan, baita beste titulartasun bat izanik ere).

Urriaren 24eko 13/83 Legearen 2. artikuluak 1931ko uztailaren 3ko Dekretua derogatu zuen, honako honek asistentzia psikiatrikoara autu eta gaiso psikiatrikoak toki publikoetan onartzeko prozedurak ezartzen zituelarik.

Aipatu 13/83 Legeak ez ditu gaiso psikiatrikoak zehazki aipatzen, izan ere, «ustezko ezgaituen barneramendua» orokorki aipatzen bait du, (hots, araudi hau edozein zentrotan edonolako barneratze egitean aplikatu beharko dela, ustezko ezgaitasuna edozein delarik ere), alabaina, ez da dudarik aipatu Legeak aurrikosten dituen arauak aplikagarri direla gaiso psikiatrikoen barneramenduan, beraien gaisotasun psikikoak ezgaitasun zibilen bat eragin dezakenean.

1931ko Dekretua derogatu zenetik hainbat nahaste egoera suertatu dira buru-gaisoen ospitaleratzea araupetzeko aplikatzen diren Kode Zibilaren 203. eta 211. artikuluak interpretzerakoan, hori dela eta, beharrezko eritz diogu sare publikoaren ospitale guztientzat eta sarearekin ituna dute-nentzat araudi uniforme bat ezartzeari.

Xede honekin, beraz, eta honako zirkular honen datatik aurrera, aplikagarri izango dira sare publikoaren zentroetan eta sarearekin ituna dute-netan honako arau hauek,

### **ARAUAK**

**Lehena.**—Gaiso psikiatrikoak ospitaleratzean barneratze modalitate hauek desberdinduko ditugu:

1. Borondatezko barneratzea.
2. Barneratze arrunt ez-borondatezkoa.
3. Larrialdiko barneratze ez-borondatezkoa.
4. Nahitaezko barneratzea, epailearen aginduzkoa.

**Bigarrena.**—Borondatezko barneratzea.

1. Borondatezko barneratzetzet hartuko da gaisoak eskatu eta libreki eta kontzienteki ontzat emango duena, mediku-en erizpi-

deak oinarri hartuta osabiderik egokiena ospitaleratzea dela erabaki izan ondoren.

2. Interesatuak, ospitaleratzea eskatzenko unean zentroaren Zuzendaritzari zuzendutako eskabide eredu bat, borondatzeko barneratzeko, bete beharko du. Eredu honetan, barneratze eskabidea jasoko duen medikuak, bere ustez, gaisoa bere kabuz erabakiak hartzeko gai denentz adierazi beharko du, era honetan kontsentimendu biziorik egongo ez dela bermatzeko (1 eredua).

3. Gaisoa ospitaleraterakoan ahalmen betetasuna galduko balu, bere barneratze arrunt ez-borondatzeko bihurtuko litzateke eta honen ondoko balizkoan xedatutakoa bete beharko luke.

#### **Hirugarrena.—Barneratze arrunt ez-borondatzkoak**

1. Honekotzat hartuko da gaisoaren senideek, edo kasu bada, bere legezko ordezkariek eskatutako barneratza, gaisoa zentroan berehala sartza eskatzen duen mediku-arrazoi larririk ez bada.

2. Barneratze mota hau aurrera eraman ahal izateko epailearen baimena behar izaten da aldez aurretik.

3. Onarpen prozedura:

— Gaisoaren senideak edo legezko ordezkariek barneratze eskabidea bete beharko du eta dagokion epailearen baimena aurkeztu horrekin batera (2 eredua).

— Baimena lortu ez badu ukatu egingo zaio barneratza mediku-larrialdietan salbu, larrialdirik dagoen ala ez dagokion fakultatiboak gaisoa aztertu eta gero erabakiko delarik.

— Azterketa egin ondoren arrazoi larriengatiko barneratza burutzen ez bada, medikuaren txostenan gaisoaren senide edo legezko ordezkarieren eskuutan jarriko da, dagokion epailearen baimena eskatzerik izan dezan (3 eredua).

4. Barneratze arrunt ez-borondatzkoak honako beharkizun hauek eskatuko dizkio zentroaren Zuzendaritzari, tramitazioari dagokionez:

a) Epaileari altaren berri ematea, alta gertatzen den unean (4 eredua).

b) Gaisoaren nondik norakoari buruzko txostenak seihilero epaileari igortzea alta egoera egokitutarte, edo epaileak eskatzen dionean.

Tramite hauek gauzatzea, gaisoa bere kargu duen ospitaleko Unitate Buruaren erantzukizuna izango da.

#### **Laugarrena.—Larrialdiko barneratze ez-borondatzkoak**

1. Larrialdiko barneratza, zerbitzuko fakultatiboaren ustez berehala egin behar dena izango da, dagokion epailearen baimena eduki arte itxoin gabe.

2. Larrialdirik dagoen ala ez erabakitzeko erizpide murriztai-leak erabiliko dira barneratze modalitate hau aparteko bide bat izan dadin eta inolaz ere ez ohizko bide bat.

3. Onarpen prozedura:

— Larrialdi kasua tratatuko duen zerbitzuko medikua izango da barneratzea erabakiko duena.

— Zentroaren Zuzendaritzak barneratzearen berri eman beharko dio epaileari lehen bait lehen, eta beti ere 24 orduetako epe berruan. Jai egunetan zaintzako fakultatiboari gaitasuna emango zaio larrialdi izaeraz egon litzkeen sarreren berri epaileari emateko (5 eredu).

— Larrialdiko barneratze ez-borondatezkoak, barneratze arrunt ez-borondatezkoak sortzen dituen beharkizun berberak sortuko dizkio zentroaren Zuzendaritzari.

#### Bostgarrena.—Barneratza ukatzeko aukera

Barneratze ez-borondatezkoa, Epailearen baimena izan arren, ukatu egin daiteke barneratze eskabidearen kargu egin den fakultatiboak egindako azterketaren eta txostenaren ondorioz barneratza beharrezkoa ez dela ikusten bada.

Zentroaren Zuzendariak honen berri jakinerazi beharko dio barneratza baimendu zuen epaileari (6 eredu).

#### Seigarrena.—Altak

1. Altak medikuaren preskripzioz emango dira ospitaleratze-ko zeuden arrazoia desagertutat jotakoan, epailearen aldez au-retiko baimena lortu beharrik gabe.

Barneratza epailearen baimena lortu aurretikoa izan edo larrialdiko barneratza jakinerazi ondoren egin bada, altaren berri dagokion epaileari eman beharko zaio (4 eredu).

2. Era berean alta egoera honako kasu hauetan ere emango da:

— Borondatezko sarreren kasuan gaisoak horrela eskatzen badu, horretarako legalki gaiturik baldin badago bederen.

— Barneratze ez-borondatezkoetan senide edo ordezkariek horrela eskatzen badute, medikuaren eritziaren aurka egonda ere, beti ere, mota horretako alta eskabidea bete ondoren (7 eredu).

— Edozein kasutan salbuespen izango dira epailearen aginduko barneratzeak.

3—Epailearen baimenez barneratutako edozein gaisok ihes egingo balu, honen berri dagokion epaileari eman beharko zaio 24 ordu igaro baino lehen.

## Zazpigarrena.—Epailearen aginduzko barneratzeak

1. Askatasun-gabetze egoeran dauden pertsonei barneramendu erregimeneko trataera emateko, bai penatuak zein prebentziozkoak izan, epailearen erabakia behar izango da Zerbitzu Psikiatikoetan barneratu aurretik.

2. Barneratza Epaileren baten aginduz egin bada, edozein modutan onartuko da, eta gaisoak barneratuta egon beharko du epaileak besterik agindu artean.

Hala ere, zentroaren zerbitzu medikoek, barneratzearen komenigarritasunaren inguruan beraien diktamena eman ahal izango dute eta eman beharko dute ikuspuntu tekniko-asistentzial estu batetik, eta ospitaleratzeari komenigarri erizten ez badiote barneratza agindu zuen Epaileari horrela jakineraziko diote.

3. Barneratzearen ordez beste osabide alternatibo egokiagorik aplikatzeari komenigarri erizten baldin bazaio, Epaileari honen berri eman beharko zaio. Era berean, gaisoari alta emateko dituen aukeren berri ere luzatu beharko zaio Epaileari.

4. Epailearen aginduz ospitaleratutako gaisoren batek ihes egingo balu, gertakari honen berri berehala jakinerazi beharko zaie barneratza agindu zuen epaileari, Distritoko Presondegi Zaintzaren Epaileari, eta Poliziari.

5. Zentroak ez du inoiz bere gain hartuko gaisoa bere balibidez gordetzeko erantzukizuna, eta horrela emango zaio aditzera barneratze agindua eman duen Epaileari.

## II. ERANSKINA

# EUSKO JAURLARITZAREN 1983KO «ADIMEN OSASUN ETA ASISTENTZIA PSIKIATRIKORAKO PLANA»REN HELBURUEN EBALUAZIOA, EAK-REN BURU-OSASUNEKO ZERBITZUEN ERREFORMARAKO BATZORDEAREN ESKUTIK

## **IIA. 1989AREN AZAROA EGINDAKO HELBURUEN EBALUAZIOA**

### **1.1. ASISTENTZI-EGITURAREN ESKUALDEKETA**

#### **Epe laburrerako helburuak:**

1. *Buru-Osasuneko konsultategiak ezartzea lehendik ez dauden sektoretan, hala nola, Ibar ezkerra, Enkarterriak, Meategi zona, eta Arabako hegoaldean.*

Autonomi Komunitate osoan buru-osasun zentroak eratu eta sustatu dira. Enkarterriean oraindik konsultategirik ez badute ere, Ibar ezkerrak, Meategi zonak eta Arabako hegoaldeak badute dagoeneko beraien A.O.Z.a.

2. *Eskualdetako Eguneko ospitaleak martxan jartzea lehendik ez dauden baina aurrikusita duten eremuetan, esaterako, Gipuzkoan, Bizkaiko Ibar Ezkerrean eta barnekaldean.*

Dagoeneko zenbait Eguneko Zentro eta Ospitale eratu badira ere (Garamendi, Basurto, Antiguo, Gasteiz) urriak dira, eta zenbait zona geratzen dira oraindik estali gabe (Ibar ezkerra, barnekaldea, e.a.) edo egoera kaskarean (Basurto,...).

3. *Unitate psikiatrikoak sortzea Gasteizko Santiago Apostol Ospitale Orokorrean, eta Basurto, Ibar ezkerra eta Galdakaokoetan.*

Santiago Apostol, Galdakao eta Basurtoko ospitale orokorretan unitate psikiatrikoak sortu dira, baina oraindik Ibar ezkerrekoan (Gurutzeta) zerbitzu hau sortzeke dago.

4. *Toxikomanoen errehabilitaziorako landetxeak sortzea Bizkaia eta Araban.*

Manu-Eneko landetxea sortu da Bizkaian eta Forondakoa Araban.

5. *Lantegi Babestuak antolatzea, 2 kapituluau zehaztu bezala.*

Helburu honetan ez da ia aurrerapausurik eman.

6. *Zaldibar eta Bermeoko ospitaleen birmoldaketa fisikoa, Bizkaiko Foru Aldundiak aurrikusitako planen arabera.*

Birmoldaketa bi hauek hasita daude eta aurrera doaz, Bermeoko Ospitalearena batipat, nahiz eta oraindik obra horiek pabilioi eta zerbitzu guztieta zabaltzea falta den.

#### Epe ertainerako helbaruak:

7. *Eskualde bakoitzean Buru-Osasun Ekipo bat izatea, iharduera integratua, asistentziala eta prebentziozko burutzeko gai izango dena.*  
Ia eskualde guztiak dute beraien Buru-Osasun Ekipoa.
8. *Gipuzkoako Ospitale Probintzialaren Unitate Psikiatrikoaren berregituraren fisikoa.*  
Berregituraren hau buruturik dago dagoeneko.
9. *Egonaldi luzeko gaisoak zerbitzu sozialen sarean integratzea.*

Integrazio honi ez zaio ekin. Azken urte hauetan sortu diren zenbait eritzi kualifikatuk zalantzan jarri du helburu hau lortuko denik, era indiskriminatuaren behintzat. Honen ildotik, Osasun sistemak gaiso psikiatrikoak bere gain hartzen eskanidea egin da. Lurralde Historikoaren Legea agertzeak, Osasun zerbitzuak (Eusko Jaurlaritza) eta Gizarte Ongizatea (foru aldundiak) banatu dituenak, prozesua zaildu egin du.

10. *Zaldibar eta Bermeoko Psikiatrikoak sendategi misto bihurtzea.*

Bi zentro hauek eskauntza monografiko zehatza dute oraindik, emakumeentzako Zaldibarkoak, eta gizonentzako Bermeokoak. Zamudioko oin bat besterik ez dago misto gisa.

## 1.2. OSASUN SISTEMAN INTEGRATUTAKO ORGANIZAZIOA

#### Epe laburrerako helbaruak:

1. *Larrialdietako mediku neuropsikiatrekiko eta INSALUDEko mediku orokorreko koordinazioa, informazioari eta gaisoen lekuz aldatzeari dagokionez.*

Foru aldundietako eta Insalud-eko zerbitzuak Osakidetza integratuzko koordinazioa erraztu du. Neuropsikiatren bikoitzurak eta hierarkizazioak prozesu hau erraztu dute, oraindik hobetu behar bada ere. Larrialdi zerbitzuen koordinazioa oraindik orain burutzeko dagoen zeregin da.

2. *Eskualde bakoitzean Buru-Osasun Batzordeak sortzea.*

Batzorde mota hauek ez dira eratu izan. Bizkaiko Ibar ezkerrekoa da bakarra. Aldiz, Batzorde Tekniko-Sanitarioak garatu dira eskualde bakoitzean.

3. *Erakunde desberdinak (INSALUD, Sanitatea, aldundiak) zerbitzu psikiatrikoen gestioa integratzea, eta, Plan honen arabera, zerbitzu hauek arlo bakoitzean instantzia batean koordinatzea.*

Une honetan Buru-Osasuneko dispositiboak Osakidetza biltzen ari dira, hala nola, Osasun Sailekoak, Insalud-ekoak, aldundietakoak, Drogen

Plan Nazionalekoak. Integratzekotan daude oraindik udal mailako dispositiboak: Uribe-Kosta Kontsorzia, Modulu psikosozialak.

4. *Psikiatri-koordinatzaile baten izendapena Eskualde bakoitzeko.*

Izendapen hauek egiteke daude.

5. *Gestio eta Ebaluazio Jarraiaren Plana martxan jartzea. 1983ko urte amaieran prest egon behar du 1984erako Gestio plana lantzeko, horretarako egin eta Plan honen eranskin gisa aurkezten den azterlanak proposatzen duen bezala. Asistentzian zenbait helburu ezarriko dira, batzuk kualitatiboak ere izango direlarik.*

Aipatu plana ez zen 1987rarte landu. Buru-Osasuneko arduradunen aldaketa etengabeak zaildu egin du mota honetako planen lanketa.

6. *Buru-Osasuneko indize sozialak lantzea eta berauen azterketa martxan jartzea.*

Osakidetzaren Zentroetan sartutako gaisoen azterketa egin da. Orain azterketa hauek Kontzertatutako Zentroetara zabaltzea, eta Zentro propietakoak eguneratzea falta da.

7. *Premiazko antolamendu-egituraren Plana garatzeko zuzkidura. Egiturak honako hauek ditu ardatz:*

a) *Arearen Psikiatriako Buruzagitzza.*

b) *Asistentzia Psikiatrikoaren eta Buru-Osasunaren Programaren Buruzagitzza Osakidetzaren asistentzi-zuzendaritzan.*

c) *Aurrekontu eta azpiegitura zuzkidura Sailaren Zerbitzu Psikiatrikoen Buruzagitzarako, plangintza (asistentzia, irakaskuntza, prebentzioa eta osasun hezkuntza), ikerkuntza eta ebaluazio zereginak gara ditzan.*

a) *Orain arte ez da egon Arearen Psikiatriako buru irudirik. Helburu hau 1990erako burutu nahi da.*

b) *Une honetan hutsik egonagatik, irudi honek gaur egun existitzen du, eta 1985etik hona existitu izan du.*

c) *Sailaren Zerbitzu Psikiatrikoen Buruzagitzak ez du ia azpiegiturrik, izan ere, une honetan Buruzagitzza honek Osakidetzara adskribaturik egon beharko bait luke. Badu aurrekonturik heziketa arlorako.*

8. *Zentro eta Modulu Psikosozial kontzertatu edo subentzionatuak kreditatzeko erizpideak zehaztea eta aplikatzea Eskualde bakoitzeko sare psikiatrikoan tartekatzeko.*

Zentro kontzertatu edo subentzionatuen integrazioa proiektu gisa dago (Uribe-Kosta kontsortzioa, eta modulu psikosozialak).

9. *Larialdi zerbitzuak antolatzea*

Bizkaian aurrera egin da Larrialdi Psikiatrikoetako anbulantzien eta Barneratze Psikiatrikoen Deribazio eta Informazio Zentroen kontzertuan (goizeko hirurak arte baino funtzionatu ez arren). Basurtoko Ospitaleak bere

gain hartu ohi ditu ospitale larrialdirik gehienak. Ospitale orokorreko larrialdi zerbitzuak ez dira handitu, eta larrialdiak ez dira sektorizatu, ez eta, Osasun Larrialdien Zerbitzu Nagusian integratutakoak ere.

#### Epe ertainerako helburuak:

10. *Gestio eta Ebaluazio Jarraiko Planaren ezarpen orokorra.*

Honako hau azken urte hauetan soilik ari da burutzen.

11. *Zerbitzu psikiatriko guztien integrazioa Osakidetzan.*

Integrazioa ia buruturik dago.

12. *Gaiso Psikiatrikoen Erregistroaren ezarpen orokorra.*

Erregistro sistema desberdinak egon badira ere, guztiak uniformitate-rantz jo dute. Orain arte helburu horrekin izan den pertsonala berriro ez kontratatzeko arriskua dago gaur egun.

### 1.3. ASISTENTZI-PROGRAMA ESPEZIFIKOAK

#### Epe laburrerako helburuak:

1. *Haur Psikiatriako Plana lantzea.*

Plana landu eta argitaratu egin zen, eta orain Erreformarako Batzordearen Azpibatzordea ari da plana gainbegiratzen.

2. *Psikogeriatrico Plana lantza.*

Plana landu eta gero gainbegiratu egin zen. 1989an EAK-ko Zoratasun Plana landu zen. Plan espezifiko bat dago Arabarako.

3. *Gizarte Segurantzaren neuropsikiatri-kontsultategietan psikoterapia teknikak sustatzea.*

Anbulategietan taldeko psikoterapia programa bideratu zen baina urte batez soilik.

Psikoterapien arloa Buru-Osasun zentroek dute gaur egun beraien gain.

4. *DAKen eta Sailaren Zerbitzu Psikiatrikoen arteko koordinazioa lortzea, plangintza (asistentzia, irakaskuntza, prebentzioa eta osasun hezkuntza), ikerkuntza eta ebaluazio zereginetan.*

Koordinatzeaz gain Osakidetzaren sarean integratutakoak da.

5. *Gaiso kronikoen errehabilitaziorako programak lantza.*

Arabean zein Bizkaian burutu izan dira. Oraindik Gipuzkoakoa lantza eta denak eguneratzea falta da.

## 6. Prebentziorako Programa Plana lantza.

Ez da horrelako planik landu.

### Epe ertainerako helburuak:

#### 7. Haur Psikiatriako Plana abiaraztea.

Haur Psikiatriako plana abiarazteak garapen desberdina du herrialde historikoa zein den. Orokorean hartuta, Helduen edo Drogomenpekotasun planek baino garapen txikiagoa du. Araban edo Bizkaiko zenbait eskualdetan hainbat ekipo egon arren, talde hauek indartu beharra dute, batik bat, izate kaskarrena duten eremuetan. Bitarteko egiturak garatzekotan daude oraindik.

#### 8. Psikogeriatrako Plana abiaraztea.

Ez da oraindik inolako psikogeriatrako programarik praktikan jarri.

#### 9. Kronikoen Errehabilitaziorako Programen Plana abiaraztea.

Araban baino ez da praktikan jarri izan.

#### 10. Prebentziorako Programen Plana abiaraztea.

Ez dira prebentziorako programak martxan jarri izan, esperientzia zehatzen bat edo beste salbu.

#### 11. Gazte Psikiatriako Plana lantza.

Plan hau Haur Psikiatriako planarekin batera landu zen. Erreformarako Batzordeko Gazte eta Haur Psikiatriaren Azpibatzordea oraindik gainbegiratzen ari da plana.

## 1.4. IKERKUNTZA

### Epe laburrerako helburuak:

#### 1. Ondoko hauei buruzko ikerkuntza garatzea:

- a) Diagnostiko psikiatrikoen sistemen balidapena.
- b) Zenbait osabide-metodoren eraginkortasunaren ebaluazioa.
- c) Arriskuan dauden biztanle talde jakinen premia berezien azterketa, hots, adintsu, haur eta baztertu premiak egoera berezietau daudenean.
- d) Zoratasunaren eta adimen-atzerapenaren eraginari eta gailentasunari buruzko ikerketak.
- e) Ikerkuntza epidemiologikoa P.S.E. eta L.E.D.S.ekin.

Gaur egun D.C. 10 sailkapenaren balidapena aztertzen ari dira gure inguruan. Materia desberdinei buruzko ikerkuntzak ere egin izan dira tresna desberdinak erabiliz, guztiak hemen aipatzea lan honen edukinaz kanpo geratuko litzatekeelarik.

2. *Psikiatriarako ikerkuntza batzorde bat sortzea Hezkuntza Sailarekin batera.*

Ez da aipatu Ikerkuntza Batzordea sortu.

#### **Epe ertainerako helburuak:**

3. *Epe luzerako ikerkuntza desberdinena eta Psikiatriako ikerkuntza zentroen arteko koordinazioa lortzea, Hezkuntza Sailarekin elkarlanean.*

Plan hau plan bezala burutu ez bada ere, makina bat laguntza egon dira bai psikiatri-arloko ikerkuntzan zein prestakuntzan.

#### **1.5. PROFESIONALEN HEZIKETA BURU-OSASUNAREN ARLOAN**

##### **Epe laburrerako helburuak:**

1. *Sendategien azterketa psiko-soziologikoa egitea, beraien dinamika informalari dagokionez eta komunitate terapeutikoen dinamizazioaren arabera.*

Zenbait esperientzia zehatz burutu izan da.

2. *Gaur egungo laguntzaile psikiatrikoentzako erizain psikiatrikoak prestatzeko Plana lantzea.*

Heziketa arloan zenbait esperientzia egin badira ere, ez da laguntzaile psikiatrikoen irakaskuntza oraindik Lanbide Heziketaren barnean egituratu.

3. *Komunitate Autonomoan Psikiatri-espezialistei dagokienez egon daitezkeen premien azterketa.*

1987az gerotzik azterketak egin dira psikiatrian dauden premiei buruzkoak, lehendik dauden erratioen arabera eta etorkizuneko aurrikusten diren premien arabera.

4. *Zerbitzu eta sektore desberdinaren koordinazio Plana lantzea, egoiliarrek bertatik igarotzerik izan dezaten kreditazioa jaso eta gero.*

Psikiatriako zein Familia-Medikuntzako egoiliarrek txandaka igaro ohi dira zerbitzu desberdinatik. Gerora begira beste era era-

ginkorrago batez egituratu beharko da txandaketaren koordinazioa. Honako hau MIR batzordeak burutu beharko du.

5. *Mediku psikiatra, psikologo klinikoa eta gaiso psikiatrikoaren-tzako irakaskuntza programa eta plan desberdinak koordinatu asmozan elkarlanean aritzea Hezkuntza Sailarekin irakaskuntza batzorde bat prestatzeko.*

Ez da elkarlanik izan.

6. *Teknika psikoterapeutiko berezien irakaskuntza planak sustatzea.*

Teknika psikoterapeutikoen heziketa sustatu nahi izan da, bai teknika individual zein familia eta talde mailakoak. Ekimen hauek sektore publikokoak (Unibertsitatea, Osasun Saila, zentroak, e.a) zein pribatukoak izan dira. Aipatu heziketa ez da, sektore publikoan, helburu zehatzetara zuzendu izan, horregatik deskoordinatua eta denborarekiko ez-jarraiaaren itxura izan dezake.

#### **Epe ertainerako helburuak:**

7. *Erizain Psikiatrikoen Heziketa Programaren garapena.*

Osakidetzaren Erizaintza azpizuzendaritza, egituratuz doazen heziketa etengabeko planak aztertzen ari da gaur egun.

Irakaskuntza arloa (Erizaintza Psikiatriko espezialitatea) itxarote eta azterte egoeran dago gaur egun, erizaintzaren gainontzeko espezialitateak bezala.

8. *Psikologo klinikoen heziketarako Plana lantzea Hezkuntza Sailarekin elkarlanean.*

Honen inguruko proposamen desberdinak egon badira ere, praktikan ez dira Psikologia Klinikorako irakaskuntza plan gisa gauzatu.

9. *Teknika Psikoterapeutiko Berezien Heziketa Programak gara-tzeko elkarlanean aritu Hezkuntza Sailarekin.*

Ez da horrelako elkarlanik izan.

### **IIB. 1991KO URTARRILEAN EGINDAKO HELBURUEN EBA-LUAZIOA**

#### **1.1. ASISTENTZI-EGITURAREN ESKUALDEKETA**

1.1.1. 1992-2-1etik aurrera Zallako (Enkarterriak) Kontsultategia irekiko da.

1.1.2. Urte hasieran Basauriko Eguneko Ospitalea (barnealdeko) eta Urtuellako (Ibar ezkerreko) irekiko dira.

Basurtoko Ospitalea sendotu egin da.

1.1.3. Galdakaoko Unitatea martxan dago dagoeneko (1990-X-1etik aurrera).

Gurutzetako ireki asmotan.

1.1.6. Bermeo eta Zaldibarko birmoldaketa obrak osatzeko 1991-92-93 urteanitzetako planak onetsita daude.

1.1.10. Zaldibar eta Bermeoko egonaldi labur eta ertaineko unitateak, mistoak dira 1991z geroztik.

Buru-Osasuna integraturik dago Osakidetzan 1986az geroztik. Insalud-eko Baliabide iraunkorrik 1988an Osakidetzen integratu zirenetik, integrazioia ia erabatekoa dela esan genezake.

1.2.1. Ez da ia neuropsikiatrarik geratzen.

1.2.2. Buru-Osasuneko Distrito Batzordeak Osasun Eskualde guztietañ daude gaur egun.

1.2.3. 1990eko maiatzetik aurrera Udaletako Osasun baliabideak Osakidetzen daude integraturik (modulu psikosozialak eta Uribe-Kosta Kontsortzioa)

Gaur egun ospitaleaz kanpoko ia plantila osoa Osakidetzaren menpeko da. Bost modulu kontzertatu baino ez dira geratzen.

1.2.4. Eskualde bakoitzean Psikiatri-Koordinatzaile bat izendatu ordez Zuzendaritza kolegiatu bat izendatzea erabaki da (Buru-Osasuneko Distrito Batzordea), halaber, Ospitale Zerbitzuetako Buruzagitzak eta A.O.Z.ak izendatzea.

1.2.5. 1991n zehar, eta 1992ra begira, Osakidetzaren maila guztiak, Zerbitzu Zentraletatik hasi eta Zentro guztietañ, beraien Gestio Plana landu dute 1992rako helburuen araberakoa.

Osakidetzaren Buru-Osasuneko Kalitate Batzordea sortu da.

1.2.6. Araba eta Bizkaiko A.O.Z. etan Gaiso Kronikoen alderdi sozialei buruzko azterlanak burutu dira. Zenbait ospitale zerbitzutan (Zaldibar) eta A.O.Z. tan (Errekaldeko modulua) ikerlan zehatzak burutu dira.

1.2.7. Buru-Osasuneko Buruzagitzak egituratu dira, bai hiru osasun areetan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, zein Osakidetzaren Zerbitzu Zentraletan.

1.2.8. 5 modulu psikosozial baino ez dira Osakidetzaren sarean integratu ez direnak, kontzertaturik daude.

1.2.9. Ospitaletako Larrialdi Psikiatrikoen asistentzia zentralizaturik dago Zerbitzu Psikiatrikoa duten ospitale orokorretan, hots, Gipuzkoako Ospitalean (Donostia), Santiago Apostol Ospitalean (Araba) eta Basurto eta Galdakaoko ospitaleetan (Bizkaia).

1.2.10. Egun Osasun Informazioarako Zerbitzu bakarra dago Osakidetzen, eta gorabehera psikiatrikoen Erregistroa ia sare osoan dago ezarririk.

### 1.3. ASISTENTZI-PROGRAMA ESPEZIFIKOAK

Aipatu programa hauetako lantzea EHAKren Asistentzia Psikiatiko eta Buru-Osasuneko Plan Estrategikoan eta dagozkion Ges-

tio Planetan jasotako zerbait da. Programa hauek garapen fasean daude.

1.3.7. 1992rako sendotu egin dira Haur Psikiatriako Eki-poak, langile zuzkidurarak txikiena zuten Eskualdetan, Gipuzkoa eta Bizkaian batik bat.

1.3.8. Martxan jarri dira ospitale orokorretako Unitateetan.

1.3.9. Bizkaian ere praktikan jarri dira orain, bai ospitale psikiatrikoen Egonaldi Ertaineko Unitateetan zein A.O.Z. desberdinetean.

1.5. Profesionalen heziketa Buru-Osasunaren arloan.

1.5.7. Txagorritxuko Erizaintza Eskolan Erizaintza psikiatrikoari buruzko post-graduatuentezako ikastaro bat egin da Osakidetzaren laguntzarekin.

1.5.8. Euskal Herriko Autonomia Komunitateko P.I.R.a pres-taketa fasean dago Osasun Saila, Zorroagako Psikologia Fakulta-tea eta Osakidetzaren artean.

### III. ERANSKINA

**«ESKIZOFRENIA-SUBSTANTZIEN  
GEHIEGIKERIA» DIAGNOSTIKO  
BIKOITZAREN AIPAMENIK EZA**

## SARRERA

Autore askok egiaztatu du substantzia psikoaktiboen erabilerak populazio psikiatrikoan duen nagusitasuna. Estatu Batuetako National Institute of Mental Health (N.I.M.H.) delakoak D.I.S.ekin egin duen «Epiemiological Catchment Areas» (E.C.A.) proiektuan eta beste hainbat azterlanetan (Kay & cols., 1989; Lehman & cols., 1989; Bukstein & cols., 1989; Nace & cols., 1991) nahaste psikiatriko eta drogen gehiegikeriaren arteko erlazoa aurrikusitakoa baino handiagoa zela aurkitu zen. Gaiso hauetan, substantzien gehiegikeriaren nagusitasuna % 60 eta % 85 bitarteko da; populazio orokorrean, ordea, substantzien menpekotasunaren nagusitasunak ez du % 15etik % 35erako portzentaia gainditzen (Minkoff, 1989).

Arazo hau nabarmenagoa da eskizofrenikoen artean. Substantzia hauen erabileraren tasa altuak «diagnostiko bikoitza» terminoaren erabilpena eragin du, patologia bien (eskizofrenia eta toxikomania) aldiberekotasuna adierazteko.

Gaiso hauen artean alkohola eta beste drogen gehiegikeriari buruz egin diren zenbait azterlanetan erizpide diagnostiko desberdinak -eta ondorioz, parekaezinak- erabili dituzte, erizpide hauek baliagarri dira erabileraren lehentasunari idea bat emateko. Gaiso ezkizofrenikoetatik % 60ak baino gehiagok droga ez-legalak gehiegikeriaz hartu dituela ikusi da (Alterman & cols., 1980; Negrete & cols., 1986; Dixon & cols., 1989; Miller & Tanenbaum, 1989; Test & cols., 1989). Gaiso ezkizofreniko gazteeen artean egindako azterlanetan agertzen diren datuak populazio orokorraren datuekin konparatuz gero, eskizofrenikoek bost aldiz lasaigarri gehiago erabiltzen dutela ikusten da, zortzi aldiz estimulagarri gehiago, bost aldiz narkotiko gehiago eta bi aldiz psikodisleptiko gehiago.

Bazirudien helburu kliniko-adiministratiboak oinarri hartuta ospitaleetan eta anbulategietako kontsultetan ematen ziren diagnostikoek diagnostiko bikoitzaren garrantzia gutxitzeko joera zutela. Horregatik, gure ingurunean azterlan piloto bat egitea erabaki genuen, gaiso eskizofrenikoen artean substantzia psikoaktiboen gehiegikeriaren dimentsio erreala baloratzeko, eta horrela, osabiderako programa espezifikoak proposatzeko. Helburuak honako hauek izan ziren: lehenik, diagnostiko bikoitzaren aipamenik-eza dagoen ala *ez* ikustea; bigarrenik, erabili diren substantzi motak eta euren maiztasunak definitzea; eta hirugarrenik, drogak gehiegikeriaz hartzen dituzten gaisoen taldea, drogak hartzen *ez* dituztenen taldearekin konparatzea, aldagai demografiko desberdin arabera.

## Metodoa

Bilboko Ospitale Zibileko Larrien Unitatean alta emanda zeuden gai-soetatik honako bi baldintza hauek betetzen zituztenen historia klinikoak aztertu ziren, hots, altaren data 1991ko urtarilaren batetik eta urte bereko irailaren hogeitamarra bitartekoia izatea, eta euren diagnostikoak (DSM-III-R) ondoko hauek izatea: nahaste eskizofrenikoa, nahaste eskizofreniformea eta nahaste eskizoafektiboa. 104 gaiso aztertu ziren guztira; horietatik 61 gizonezkoak ziren eta 43 emakumezkoak (batez besteko adina 33,7 urte, mediana 30,0, lerrunea 18-72). 75 gaisori eskizofrenia diagnostikatu zitzaien, 25 gaisori nahaste eskizofreniformea eta 4 gaisori nahaste eskizoafektiboa. Substantzien gahiegikeri-menpekotasunaren erizpide diagnostikorik ba ote zegoen begiratu zen eta zalantzak azaldu zirenean, familiartekoekin jarri ginen harremanetan hauek argitzeko.

## Emaitzak

104 gaisotatik 37k substantzien gehiegikeria edo menpekotasunaren erizpide diagnostikoa betetzen zuten (% 35,6) baina hauetatik bostik bakarrik (% 4,8) eman zitzaien diagnostiko hori. 37 gaisoetatik 21ek substantzia bakarra hartzen zuten (% 56,75) eta gainerako 16ek bat baino gehiago (% 43,24). Gaisoetatik % 37,8ak substantziekiko gehiegikeria erakusten zuen eta % 18,2ak anfetaminen gehiegikeria. Substantzien menpeko gaisoek alkohola eta cannabis hartzen zituzten batipat (% 16,2 bakoitzak), opiazeo eta kokainarekin jarraituz (% 10,8 bakoitzak). Ez zen alde estatistiko adierazgarririk azaldu gaiso kotsumitzaile eta ez-kotsumitzaileen artean aldagai demografiko (adina, sexua, egoera zibila, kultura maila, laneko egoera, aurrekin familiarrak), diagnostiko eta gaisotasunaren hasierako urteari zegokienez.

## Eztabaida

Komorbilitatearen maiztasuna, ikusi dugunaren arabera, handia da gure laginean. Gehien erabiltzen diren substantziak ondokoak dira: alkohola (% 23,06), cannabis (% 19,22), anfetaminak (% 7,68), kokaina (% 5,76), opiazeoak (% 4,80), benzodiazepinak (% 3,84) eta beste droga batzuk (% 3,84). Erabilpenaren lehentasun hauek parekagarriak dira ingurune bereko populazio orokorrean aurkitutakoekin (*Encuesta de salud de Euskadi. Eusko Jaurlaritza, 1987*).

Komorbilitatearen maiztasuna azaltzen duten teoria desberdinak proposatu izan dira. Teoria etiologikoak dioenez, drogen gehiegikeriak eskizofrenia nozitzeko probabilitatea gehitzen du. Autore gehienek diote drogek eskizofreniaren hasiera arindu dezaketela gaiso aurrekoetan edo eskizofrenia latentea duten gaisoetan, baina gaisotasuna ez duela zuzenean substantzien gehiegikeriak eragiten. Gaisotzeko aurrekoerarik ez duten pertsonengan kontsumoa eten ondoren estimulagarriak gehiegikeriaz hartzeak

eskizofreniaren antzoko kuadra eragin dezakeen ala ez konfirmatzeko dago oraindik. Automedikazioaren teoriak dio drogak gehiegikeriaz hartzen dituzten eskizofrenikoek gaisotasunaren sintomak gutxitzeko erabiltzen dituztela edo bestela medikazio neurolitikoaren bigarren mailako ondorioak arintze-ko hartzen dituztela. Teoria honen arabera, substantzia bakoitza, bere ondorio espezifikoekin, sintoma espezifikoak tratatzeko erabiltzen da. Beste teoria batzuek faktore soziokulturalak aipatzen dituzte, eskizofreniaren era-gin sozioekonomikoa azpimarratuz, pertsona hauek marginazio eta behar-tasunera eramatzen dituzten eragina; edo, aitzitik, uste dute eskizofrenikoek sozializatzeko ahaleginaren ondorioz erabiltzen dituztela drogak, eta honen bidez pertsona isolatuak azpitalde sozial jakin batekin identifikatzeko joera duela. Azkenik, hainbat autorek esan du gaiso hauetan eta poulazio oroko-rean drogen gehiegikerien eragileak ez liratekeela desberdinak. Guk ez daukagu hipotesi etiologiko bat edo besterekin bat etortzeko behar adina datu.

Drogak kontsumitzen dituzten eskizofrenikoei buruz duela gutxi egin diren azterlanetan, eskizofrenikoen artean ezaugarri zehatzak dituen azpital-de ageri zaigu. Estimulagarriak gehiegikeriaz hartzeak zerikusirik du lehen aldiz ospitaleratu zitzutenean zuten adin gaztetasunarekin. Datuen arabera, estimulagarrien erabilerak gaisotasunaren hasiera goiziarra eragin erazi le-zake, gaisotasuna hartzeko aurrejoera handiagoa duten gaisoen artean, eta eskizofrenia lehenago hastea eragingo luke (Weller & cols., 1988; Aterman & cols., 1984). Beste zenbait lanek egokipen aurremorbidoa gaiso hauen artean ez-kontsumitzaileen artean baino hobea dela diote (Tsuang & cols., 1990) eta klinikoki psikopatoloia arinagoa ikusten zaiela (Dixon 1991); hortaz, pronostiko hobea eta eskizofreniaren ezaugarri kliniko arinagoak dituen azpitalde gisa har daitezke. Duela gutxi New York-eko Estate Commis-sion on Quality of Care for the Mentally Disabled (1986) delakoak, diag-nostiko bikoitza duten gaisoek ezaugarri psikiatriko arinagoak edukitzeko joera dutela esaten du, baina soziopatia eta izaeraren beste nahaste batzuk gehiagotan erakusten dituztela. Gure lanean, gaiso kontsumitzaile eta ez-kontsumitzaileen analisi konparatiboa egin ondoren, erabili ditugun alda-gaietako bat ere ez zen adierazgarria izan estatistikoki, beraz, ezin dugu baieztapen hauekin bat etorri.

Gaiso hauek funtzionamendu aurremorbido hobea dutela ikusita, eta funtzionamendu honi egokipen sozial handiagoko norbaitek hobeto eutsiko liokeela suposatuta, badirudi pertsona mota huaeitik egokitutako osabide es-pezikofiko erabiltzeak egungo osabideekin lortzen diren emaitzak hobetuko lituzkeela. Dixon-ek gaiso eskizofreniko, eskizoafektibo eta eskizofreniformeen lagin batekin egin zen azterlan batean drogen gehiegikeria duten eta ez duten gaisoak konparatzen ditu (Dixon & cols., 1991). Ondorio honetara heltzen da: drogak gehiegikeriaz hartzen dituzten gaiso eskizofrenikoek pro-nostiko hobea eta sintomatologia arinagoa dutenen azpitaldea eratzen dute; baina drogen gehiegikeriak emaitza orokorrean eragin latza izan lezake eta horrela, drogen gehiegikeria eta eskizofreniaren konbinazioak, bestela arinagoak izango liratekeen kasuak konplikatuko lituzke. Droga psikotogenikoak erabili izan dituzten gizonezko gaiso psikotikoen artean egin den osabide neuroleptikoak emaitza txarra izan du. Neuroleptikoei dagokien erresistentzia hau diagnostiko bikoitza duen zenbait gaisoen ezaugarri izan

liteke, gaisotasunaren hasiera beretik (Bowers & cols., 1990). Orokorrean, literaturak eman dizkigun datu kliniko terapeutikoek, gaisotasun eskizofrenikoaren eboluzio eta pronostikoan drogak kontsumitzearen garrantzia era-kusten digute, eta eredu terapeutikoak ezartzeraoa komorbilitatea igerri eta kontuan hartzearen beharra azpimarratzen dute. (Minkoff, 1989; Osler & cols., 1989). Guzti honek, kasuak behar bezala igerri behar direla erakus-ten digu eta hori ez da beti horrela gertatzen, gure azterlanean ikusten de-naren arabera.

Izan ere, gure Zerbitzuan, diagnostiko bikoitzaren aipamenik ezaren tasa alta delako ikusi da (% 87) (11. Irudia). Honen arrazoia eskizofreniaren diagnostikoari arreta handiegia eman izana izan liteke, eta gaisotasunaren sorreran eta eboluzioan substantzien kontsumoari, bereziki alkoholari, ga-rantzi gutxi eman izana.

Beharrezkoa da, beraz, profesionalak sentsibilizatzea, arazo hauek iger-tzerakoan; hori gabe ezin da arreta espezifiko eta egokia eskaini.

## AUTOREAK

- Javier Pastor Doktorea
- Juan Mendiola Doktorea
- Emilio de la Sierra Doktorea
- Iñaki Egiluz Doktorea
- Jose Guimon Doktorea

IV. ERANSKINA

**BURU KOLPEAREN ONDORIOZ  
GAITASUNA KALTETZEN DUTEN  
SINDROME PSIKIATRIKOAK**

Traumatismo kroniko larriek sarritan sortzen dituzte gaitz psikiatriko ezgaitasun gradu handiago edo txikiagoak sortzeko gai direnak eta osasun eta gizarte arazo handiak ekartzen dituztenak. Horrelako arazoen garantzia ebaluatzea komeni litzateke, Estatu espainiarra bigarrena bait da Europako Ekonomi Elakartean trafiko istripuek eragindako heriotzetan, eta horregatik egin dugu Bizkaiko lurraldeko gaisoen estudio bat.

## METODOA

107 gaisoren historia klinikoa estudiatu da; gaisoak Basurtoko eta Guztietako (Bizkaian) ospitaletako neuropsikiatria zerbitzuetan 1990 baino lehenago sartutakoak ziren, garezurreko kolpearen diagnostikoa zuten (C.I.E-9 berrikusia) eta garun-edema edo hemorragia TAC edo garun Erresonantzia Magnetikoaren bidez egiaztatua. Sarreran, 31 gaisok 7ren azpitikoa puntuazioa agertu zuten Glasgow-an eta 12ren azpitikoa gainerakoek.

Lagina 92 gizonezkok eta 15 emakumezkok osatzen zuten, batazbesteko adina 42,9 eta 56,8 urtekoa zutelarik hurrenez hurren; horrek traumatismo larrienek adin-kurba goratu egiten dutela pentsarazten du. Laginean bagenituen 5 urteko bi haur eta 90ko bi zahar.

Adinaren araberako banaketaren grafikoan banaketa bimodala agerida, maiztasun handienak 20-60 urteen artean daudelarik eta intzidentzia handienaren gailurra 20-30 urteren inguruau mantentzen delarik, eta, beraz, bat dator idazlanean esandakoarekin.

## EMAITZAK

Datu klinikoak, Cohafdon eta Cols-i (1991) jarraiki, honela sailkatuko ditugu:

— Pertsonalitate-desarauketak:

- 1) Larriak
- 2) Arinak
- 3) Psikotikoak

— Ezagutza-desarauketak:

- 1) Dementziatuak
- 2) Memoria-desarauketa larriak eta/edo afasia.
- 3) Memoria eta/edo arreta-desarauketa arinak.

Atal hauetako bakoitza, berriz, gaisoak eguneroko bizitzarako agertzen zuen ezgaitasun graduaren arabera, lau azpisailetan bereizi zen.

- a: Menpekotasun osoa du.
- b: Laguntza behar du.
- c: Etxeko lanetarako baliatzen da.
- d: Gizarte-bizitzarako baliatzen da.

Klinikari eta ezgaitasunari buruzko informazioa, historia klinikoen bidez ezezik, erreabilitazio zerbitzuen informazioaren bitartez ere, zerbitzu horietatik igarotzen bait dira mota honetako gaisoak, lortu da, eta baita psikiatrik, egoera jasaezina zenean kontsultatzen zenetik ere, edo familiengandik beraiengandik ere.

Gaisotasunak ezagumenean uztitako ondorioen emaitzak jasotzen ditu % tan, intzidentzia (% 26) eta larritasun handia erakusten dutelarik. Aipatzekoa da traumatismo osteko dementzien % 5,6ko presentzia eta gaisoen % 10,3a dela guztiz ezgaiturik dagoena buru-narriaduraren ondorioz.

Pertsonalitate eta jokabide-desarauketak «larriak» (% 5,5), «arinak» (% 14), eta «psikotikoak» (% 0,9) bezala sailkatu ditugu, lehenengo biek errealitate-zentzu ona mantentzen duten jokabide-desarauketei eta beronen desarauketak barne dituen nahasketei dagozkielarik; hirugarren sailekoak, ikusten den bezala, gaiso bat besterik ez zuena. Gaisoen % 20,4ak pertsonalitate-desarauketaren bat agertu zuen eta % 4,5a guztiz ezgaiturik aurkitzen ziren, traumatismo osteko jokabide-nahasketak eguneko hogeitalau ordutan jasango zizkion familiartekoren baten laguntzaren beharrean.

Adina, sexua eta garuneko kaltearen larritasuna nahasketen larritasunean eragin erabakiorra duten faktoreak dira. Dementzia, memoria eta arretaren desarauketa arinak, pertsonalitatearen desarauketa larriak eta arinak handiagoak dira izatez gizonengan (0,001en azpitiko «p»arekin). 40 urtetik gorakoek posibilitate handiagoak dituzte traumatismo-osteko dementzia jasateko, eta dementzia hori gehiagotan agertzen da sarrerakoan Glasgow eskalan 7ren azpitiko puntuazioa eman zuten traumatismoetan.

Azkenik, aurkikuntza interesgarri bat, aldez aurretik idazlanean esan dena, aipatzea geratzen zaigu, hau da, pertsonalitate desarauketa larriak ohizkoagoak badira ere traumatismo larrienetan (% 66,7 versus % 33,3), aitzitik, ondorio arinak ohizkoagoak direla traumatismo arinagoetan (% 53,3 versus % 46,7). Aurkikuntza paradojiko hau erabili da kolpeosteko kuadro kronikoen osagarri psikogenikoa frogatzeko.

## AUTOREAK

- Miguel Angel Salazar Doktorea
- Antonio Bulvena Doktorea
- Jose Guimon Doktorea

V. ERANSKINA

## LARRIALDI PSIKIATRIKOAK

Azken urte hauetan oso nabarmena izan da gure autonomia elkarteko larrialdi psikiatrikoen asistentzi-dispositiboak ez direla, inondik inora, bere zeginak egokiro betetzen aritu.

Egoera hau sortu duten faktoreen artean ondokoak ditugu.

Bat. Sektorizaziorik eza, hau da, gaisoak oso sakabanaturik abiatzen dira asistentzi-sistemaren puntu desberdinetara, sistema batzuk gainezkatzu eta beste batzuk ordea erabilera urritasunez erabiliz.

Bi. Gaiso psikiatrikoen egonaldi laburrerako ohe kopurua urria da, hortaz, gaisoen barneratzea atzeratu egiten da kasu batzutan, eta bestetan, honek nolabaiteko presioa eragiten du klinikoengen larrien unitateetan dauenden egonaldiak labur ditzaten, asistentziaren kalitatearen kaltetan noski eta atzera zentrora itzuli beharra bultzatzuz. Asistentzi-eskakizunak gainezkatu egiten ditu ospitaleaz kanpoko eta komunitateko baliabideak, larrialdie-tako bisitak ugariagoak eginez.

Hiru. Ez dugu gaiso toxikomano judizialei harrera egokia eskaintzeko dispositibo berezirik. Bestalde Informazio eta Gestio Sistema egokirik ez iza-teak barne koordinazio falta eragiten du larrialdi psikiatrikoen sarean, eta hauen eta buru-osasun sare orokorraren artean ere bai.

Beraz, arazoa ez datza baliabide faltan, arazoa baliabideen erabilpen traketsean dago. Osasun Erakundeek orain arte arazoari eman dioten irtenbidea era askotakoa izan da, baina ez da nahikoa izan. Burura datorkigu ohe psikiatrikoen baliabideak koordinatzeko mekanismoaren sorrera, uste zen emaitzik eman ez duelarik oraindik.

Cooper irakasleak (O.M.S.) larrialdi psikiatrikoek Europan duten egoeari buruzko azterlan zehatza argitaratu zuen 1982an. Basurtoko Ospitalearen Zerbitzu Psikiatrikoak 1986ko urtarrilean antolatu zituen Ihardunaldi-ten zehar, irakasle honek, gure inguruan dagoen larrialdieta rako asistentzia psikiatrikoa aztertu zuen eta Bizkaian sistema honek dituen arazoak administratiboak eta antolamendukoak direla azpimarratu zuen.

Eusko Jaurlaritzaren Psikiatriarako Batzorde Aholkulariak, Euskal Herri eremuan larrialdi psikiatrikoen asistentziari dagokionez jarraitu beharreko ereduak ezarri zituen 1987an landutako barne dokumentu batean.

Aipagarria da Komunitateko Lagunza Sistemen arteko harremana (Sare Sozialak eta Komunitate Zerbitzuak), izan ere, eskasak direnean larrialdi bisitak eta atzera berriz itzuli beharrak ugariitu egiten bait dira ondorioz. Guimon irakasleak eta lankid. zenbait azterlan burutu izan dituzte (1985, 1986, 1988) buru-gaisoen Sare Sozialari buruz. Azterlan hauek adierazten dutenez Sare Sozialak lagunza askieza eskaintzen duenean gaiso psikiatrikoek, krisialdian egonik, larrialdieta rako jitzeko jite handiagoa dute.

Beste ikerlari batzuren esanetan (M.A. Gonzalez eta lankid., 1989; D. Mohan, 1988) larrialdi psikiatrikoetara joaten diren gaisoetatik asko lehe-

